

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-11-05
ASTELEHENA
384. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Gartziak irabazi du Antxintxika

Hirugarren garaipena lortu du krosean | 22



Helmugaratzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiko Lope Agerrekoa gogoan, jaio zela 500 izango direnean | 9



Eguaztenean ekingo diote irakurketa-klubari, Oñatin | 14



Doctor Deseo taldearen biraren amaiera Bergaran izango da | 13

Heriotza errituak Angiozarren bizirik

Herritar ugariak parte hartu du asteburuko bisita gidatuetan | 24



Hildakoa agurtzeko erabiltzen zituzten Bibliak, kandelak eta bestelakoak ikusi ahal izan zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

Ume txikien guraso elkarte berria jaio da, Aretxabaletan

Kriantza edo hazkuntza taldea da sortu dutena: Kuku-Miku | 2

Alokairuak eta hipotekak ordaintzea gero eta zailago

Gero eta gehiagok jotzen dute Caritasera laguntza eske ibarrean | 4

Aretxabaletako ordenantza fiskalak %3,1 igoko dira

2011ko irailetik 2012kora arteko KPI %3,1 izan dela hartu dute kontuan | 15

Diru sarreren jaitsierak baldintzatuko du Elgetako aurrekontua

Hala ere, "zerga-politika jasagarria" bultzatu gura dute | 16

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK
www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

INTTRADE
100 00012006

INTTRADE
100 140012004

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

%25 eko
deskontua

Argia
ARGIA
euskaraldizkari orokorra

► Zoaz 7. orrialdera.

Ume txikienen gurasoen elkarte berri bat jaio da

- ▶ Aretxabaletan sortu da Kuku-Miku elkarte
- ▶ Hazkuntza edo krianza taldea da
- ▶ 6 urtera artekoen gurasoen bilgune izan gura du

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA

Lokal eder batekin eta guzti, ibilbidea hasi du bailarako hazkuntza proiektu berriak, Kuku-Miku elkarteak. Aretxabaletan dago eta hango zenbait gurasoren ekimenez sortu da. 6 urtera arteko gurasoendako topagune gisa sortu dute. Taldearen sortzaileek honakoa diote: "Hutsunea igartzen genuen 0 eta 6 urte arteko umeen gurasoon artean". Adin horretatik aurrera, ikastetxera joaten hasten dira umeak eta han lantzen dituzte beste eduki batzuk, eta gurasoek ere bestelako formazioa jasotzeko aukera izaten dute.

Erreferentziako leku baten beharrak, gurasook elkarrekin egoteko beharrak, hainbat gairen gainean informazio eta formazio zehatza jasotzeko gogoak... horrek guztiak bultzatu zituen elkartearen sortzera. "Gurasoon arteko elkarrekintza, gogoeta eta laguntza bultzatu gura ditugu; eta haurren hazkuntza eta hezkuntzari zein guraso izateari lotutako zalantzak eta gogoeak trukatzeko eta laguntzeko erreferentziako bilgune bat sortu", diote kideek. Norberak kalean, beste guraso batzuekin berriketaldi informaletan... jasotzen dituen nozioak beti ez direlako zuzenak izaten eta, zenbait kasutan, horiek kontrastatzeko edo konpartitzeko beharra sortzen delako.

Horretarako, gidari berezi baten laguntza dute: Ana Bacigalupe ama eta doula, "taldearen gidaria eta aditua", Kuku-Mikuren esanetan. Ana Bacigalupe Zornotzako Amalur Amatasunaren Laguntza Zentroa sortu zuen, eta aurrerantzean, Aretxabaletako gurasoekin ere ibiliko da.

Psikopedagogo batekin

Hazkuntza, edo krianza, da guraso horiek guztiak batzen dituen ardatza. Formakuntza "polito-polito" antolatu gura dute, aurrekontuek eta eguneroko bestelako eginbeharrek

FITXA	
KUKU-MIKU ELKARTEA	
Helbidea: Durana kalea, 30.	
Herria: Aretxabaleta.	
E-posta: kukumikuelkatea@gmail.com.	

ematen dizkieten aukeren neurrian. Badakite ze landu gura duten: zeloak, atxikipena, aitasuna... dira gai batzuk. Gogorarazten dute "oraintxe, irailen" hasi direla eta, beraz, lotzeko asko daukatela. Psikopedagogo batekin harremanetan ipini dira eta haren kolaborazioa izatea espero dute. Asmoa da gurasoek dituzten kezken arabera joatea formazio saioak antolatzen.

Haurdunaldia eta haurdunaldi-ondorengoko aldia, elikadura, loa, gatazkak konpontzea... ere lantzen dituzte, normalean, hazkuntza taldeek, eta horiek jorratzeko aukera ere izango dute Kuku-Mikun. Bi taldetan banatuko dira: 0 eta 3 urte arteko umeen gurasoena, eta adin horretatik 6 urtera arteko gurasoena.

Euskararen normalkuntzarako gune ere izan gura du Kuku-Mikuk, baina "denoi zabalik" daudela ere azpimarratzen dute.

Giltza eta konpromisoa

Ezin hobeto hasi dute ibilbidea guraso aretxabaletar horiek:

Udalarekin hitzarmena egin zuten maiatz bukaeran, eta Durana kaleko 30. zenbakian egoitza utzi die Udalak uztaillaren lean hasi eta urte beterako. Hitzarmena luzatu egin daiteke. Kuku-Mikukoak oso pozik daude: "Lokal ederra eta handia da, eskertzeko modukoa: ez du oztopo arkitektonikorik, zabalik dago..."

Lokal horretan postontzia ipini dute, eta bazkide izan nahi duenak hantxe utz dezake bere eskaera. Hori egin ahal izateko, esku-orriak banatu zituzten Aretxabaletako ikastetxeetan.

Bazkidetza kanpaina berez bukatu den arren -urriaren 10a zen postontzian eskaera-orria uzteko azken eguna-, ardurdunek argi utzi nahi dute Kuku-Miku "irekia" dela. Sortzaileek dioten bezala, "proiektu bat da, zabalik dago". Hori bai, bazkide egiten direnei "konpromisoa" eskatzen diete, urteko 30 euroko ezinbesteko kuotarekin batera: "Lokalera sartzeko giltza bana izango dute familiek, baina ez dugu bazkideak horretara bakarrik mugatzea, giltza eduki eta lokala erabiltzeko bakarrik izatea. Gustatuko litzaiguke bazkide bakoitzak, ahal duen neurrian, lan-talde baten parte har dezan", azaltzen dute taldeko kideek.

Izan ere, orain lan-talde horiek sortzen dabilta, pixka-



Ate irekien egunean gustura ibili ziren gurasoak eta umeak Kuku-Mikuren lokalean.

na-pixkana. Zuzendaritza talde bat izango dute, beste edozein elkarterik moduan; Komunikazio talde bat ere izango da; Garbiketa taldea, beste bat; eta laugarren talde bat lokala txukuntzeaz edo banatzeaz arduratuko da: "Lokala nahiko handia da eta gauza asko egiteko aukera ematen du. Horrela bada, txoko bat psikomotritziterako izango da; beste bat, marrazketa-txokoa; liburutegia ere izango dugu...". Beraz, horiek denak antolatu

eta prestatu beharko ditu lantalde horrek.

Seme-alaba txikiak izateak dakartzen erritmoak eta denbora mugak kontuan hartu dituzte elkarterko kideek: "Ordu erdi bakarrik duenak lokala garbitzen lagundu dezake, adibidez. Marraztea gustatzen zaionak paretak marraztu ditzake; ordenagailuan asko ibiltzen dena Komunikazio taldean ibiltzeko boluntario aurkeztu daiteke..." Kontua da bazkide bakoitzak dituen gaitasunekin eta ahalmenekin taldeari aurrera egiten laguntzea.

"Lokal bat baino gehiago da"

Egoitza propioa lortzea oso garrantzitsua izan da Kuku-Mikurendako (esan behar da lokala ez dela euren bakarrak, baizik eta beste zerbitzu batzuekin konpartituta; adibidez, astean bi egunean emaginak erabiltzen du, erditze osteko gimnasia saioak egiteko).

Hala eta guztiz ere, lokala edukitzearen helburua ez da "euria egiten duen egunetan gurasoak umeekin joateko eta gora begira egoteko lekua izatea",

Guraso izatearen gaineko proiektua

Guraso izatearen eta hezkuntzaren gaineko proiektu gehiago sortu dira azkenaldian bailaran. Horietako bat Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteraren eskutik dator. Helburua da aita edo ama izatea zer den umei erakustea. Asmoetako batzuk dira umei marrazkiak eskatzea, eta kalean erakusketa ipintzea.

Proiektu hori lantzen, mamitzen dabil elkarteak, eta aurrerapausoak eman ditu azken asteotan; hala, Arrasateko ikastetxeekin hitz egin du dagoeneko. Bestalde, emakume haurdunen artean ikerketatxo bat egin du: ama izan behar direnek ze behar sentitzen duten, sisteman ze hutsune ikusten dituzten... jakin gura zuen elkarteak.



Haurdun baten sabela. | TEZA HARINAIVO



DATUA

25

FAMILIA

Oraingoaz, Kuku-Mikuk 25 familia bazkide ditu, eta gehiago izatea espero dute.

ESANAK

"Gurasoendako erreferentzia gune izan nahi du elkarteak"

"Hazkuntzaren gaineko formazio saioak egingo ditugu"

KUKU-MIKU ELKARTEA

ea bera ere bazkide egin zitekeen; eta beste batek jakin gura zuen ea aitaitek ere etor zitezkeen...", azaltzen du elkarteko arduradun batek. Horrelako kontuak zehaztuko dituzte laster.

Azaroaren 8ko batzar orokor horretan ere jakingo dute momentuz zenbat bazkide izango diren, eta lan-taldeak antolatzen hasiko dira.

Aditu baten gidaritza

Ana Bacigalupe doulaaren kolaborazioa eskertuko dute, ziur, Kuku-Mikuko gurasoek. Zornotzan Amalur zentroa sortu zuen Bacigalupek. 10 urte baino gehiagoko esperientzia du amatasunaren inguruko elkarteekin lanean, eta zazpi urtean ibili da familiei doula gisa laguntasuna ematen.

Haurdun dauden emakumeei eta gurasoei hainbat zerbitzu ematen dizkie Amalur zentroak, eta helburua da bizitzako etapa horren inguruko gaitan sakondu dezaten laguntzea: biltzeko lekua ematea, eztabaidatzeko eta zalantzak galdetzeko lekua, esperientziak elkarrekin konpartitzeko eta norberari hazten lagunduko diona.

Hori osatzeko, norberaren burua zaintzeko lekua ere eskaintzen du Amalurrek, kualifikatutako profesionalak ematen dituzten ekintza, terapia eta teknika holistikoen bidez.

Ana Bacigalupe esperientzia handiko doula da. Bi semeren ama da. 2001etik 2009ra arte, Euskadiko Esnearen Ligan jardun zuen, eta 2001ean Haurdunaldi, Erditze, Jaiotza eta Hazkuntza Gizatiar eta Kontzientearen aldeko Haurdun elkarte sortu zuen. 2005az ezkerou doula gisa lan egiten du, haurdun dauden emakumeei eta haien familiei laguntasuna ematen. Hitzaldi, tailer, jardunaldi eta beste ekintza batzuetan ere parte hartzen du.

argitu gura dute taldekoek; era berean, ez da ludoteka, ezta liburutegia ere, nahiz eta jolas-teko lekua ere izango den eta liburutegi txokoa ere izango duen. "Proiektu bat da, lokal bat baino gehiago da", azpimarratzen dute arduradunek. Lokala euren beharretara moldatuko dute, eta bertan lekua daukate ume txikienek eta nagusitxoagoak direnek: "6 urteko umeek ez dute lokalean hainbeste egon gura izango, baina elkartera etortzen diren gurasoek, seguru asko, ez dute ume bakarria izango", diote elkarteko kideek.

Hala, ate irekien jardunaldia egin zuen elkarteak orain aste batzuk, eta "txikiak marrazten zeuden; 4 urteko umeak ipuin-kontalariaren inguruan batu ziren..." Adin desberdinetako umeen eta haien gurasoen beharrak desberdinak izan arren, "badago aukera denok batera gauzak egiteko, eta hori da helburua", esaten du elkarteak.

Batzarra egingo dute

Elkartea sortzeko lehenengo pausoak orain urte eta erdi eman

zituzten, guraso batzuk batzartzen hasi zirenean. Denborarekin, gero eta jende gehiago hurbildu zaie, eta, bazkideetza kanpaina bukatuta, dagoeneko

25 bazkide ziren, eta seguruenik gehiago izango dira.

Hurrengo egingo duten urratsa zalantzak argitzeko eta gauzak finkatzeko balioko duen

batzarra izango da. Hori azaroaren 8an egiteko asmoa dute. Izan ere, "ate irekietan, zalantza piloa azaleratu ziren. Esaterako, Bergarako batek galdetu zidan

Doula, amen eta aiten laguna

ESPERIENTZIADUNA Doula ez da medikua, erizaina edo emagina. Jaiotza prozesuan esperientzia duen pertsona da, normalean ama ere dena, eta bere zeregina haurdun dagoen emakumeari eta familiari babes fisiko eta psikologikoa eta informazioa ematea da.

GREZIERATIK Doula hitza grezieratik dator eta beste emakume bat edo gizonezko bat zerbitzatzen zuen emakume esklaboa izendatzen zuen. Arrazoi horregatik, zenbaitek gurago dute "erditzen laguntzen duena" gisa aurkeztea.

MENDE LAURDEN Doulaen figura orain 25 urte hasi zen erabiltzen. AEBetako ikertzaile batzuek ikusi zuten Guatemalako ospitale handi baten erditze interbenitu asko, zesarea asko eta erditzeen inguruko gastu farmazeutiko handia zeudela. Orduan, zenbait emakume haurduni esperientziadun emakume bana ipini zioten. Ikusi zuten, beste emakume baten gidaritza eta une

oroko laguntza zuten amek zesarea gutxiago eta erditze azkarragoak eta konplikazio gutxiagokoak izaten zituzten.

ERDITZE HOBEAK Espainiako doulaen elkartearen arabera, doula baten laguntasuna duten emakumeen artean %50 zesarea gutxiago egitea, erditze-denbora %25 txikitzea, %60 epidural gutxiago eskatzea eta forzepsak %40 kasu gutxiagotan erabiltzea lortu da.

ETAPA ZORIONTSUA Doula amaren eta aitaren ondoan egoten da. Emakumea haurdun dagoen bitartean, zalantzak, beldurrak eta minak arintzen laguntzen du. Erditzean ere, amaren ondoan egon daiteke, eta erditze prozesu ahalik eta naturalena izan dadin lagundu. Umea jaiotzeko eta gero, depresioa gertatzen baldin bada, hura arintzen lagun dezakete. Funtsean, haurdunaldia eta guraso izatea modu positiboan eta konfiantzaz eta zoriontasunez bizi izaten laguntzen du doula.

Alokairuak eta hipotekak ordaintzea, gero eta zailago Debagoienez

Gero eta bizilagun gehiagok jotzen dute Caritasera laguntza eske, bereziki, etxebizitza ordaintzeko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Uda aurretik hipotekari aurre egin ezinean zebiltzan hiru kasu genituen, eta dagoeneko hamar bat izango dira. Alokairua ordaindu ezinda dabilzanak, berriz, 15 bat familia badira dagoeneko".

Arrasateko datuak dira horiek, Caritasen dituenak. Baina Debagoien osora estrapola daitezke. Hala baieztatu du Horazio Argaratek, Caritaseko arduradunak eta Arrasateko parrokoak.

Datu gordinak

Hitzak bakarrik ez, datuak ere eman ditu hark baieztapen hori babesteko: 1.328 lagun ematen dio laguntzara Caritasen Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin (Aretxabaletako datuak batu barik dituzte).

Eta dirutan begiratuta ere, datuak deigarriak dira: iaz, 54.922,22 euro gastatu zituen Caritasen laguntzatan. Horien artean, adibidez, ia 10.000 euro bideratu

zituzten alokairuak ordaintzen laguntzeko (xehetasunak beheko taulan).

Dirua izan ostean, galduta

"Alokairua ordaintzeko laguntza eske datozenekin lehenengo aha-legintzen gara Jaurilaritzako diru-laguntzetara bideratzen. Horiek lortu bitartean, dirua aurreratu egiten diegu, gero bueltatuko delakoan. Beti ez da horrela izaten zorritarrez, badakizu, zorrak dituztenekin arrisku hori dago".

"Beste batzuek, berriz, egoera administratibo zaila dute zorrak dituztelako epaitegi edo segurtate sozialekin, eta ezin dituzte dirulaguntzak eskatu. Horiei musu-truk ematen diegu dirua eta irtenbide bila segitzen dugu. Halakoak askotan dira bertakoak, dirua izan dutenak, baina dena gaizki joan zaienak, eta orain alokairua ordaindu ezinda daudenak", kontatu du Horazio Argaratek.



Horazio Argarate parrokoa eta Xabier Jorrin liberatua Caritasen egoitza berriko egongelan. | UBANE MADERA

Hipotekak ordaintzeko

Hipoteken kasuan, berriz, "Elizbarruti mailan, Gipuzkoan diru poltsa dugu sortuta halakoei aurre egiteko. Arrasaten fondo horretatik lau familia dabilta jasotzen. Hilero batez beste familia bakoitzari 600 euro ematen diegu. Batzuei gehiago eta beste batzuei gutxiago. Bakoitzaren hipotekaren eta diru-sarreraren arabera ematen diegu dirua".

Gero eta etorkin gehiago, larri

"Eta egoera larritzen dabil", dio gainera Argaratek. Izan ere, bertako kasuak ugartzen hasi badira ere, etorkinen kasuak, lehenagotik ere ugariak bazirenak, larritzen dabilta orain. "Kinka larriaren geratu diren atzerritarak dira, orain arte lanean edo "sasi lanean", beltzean kobratzen, ibili diren pertsonak baina dagoeneko babesik gabe daudenak. Askok Espainiatik hona etortzen ari dira. Beste autonomiatan murrizketa handiak gertatu dira, eta hemen oraindik ere zerbitzuak ematen ari direnez, boladaka etortzen dira: sahararrak, hegoamerikarrak, Valentzia ingurutik asko, hango laguntzetatik bizi ziren asko sakabanatu egin dira eta. Familiak etortzen dira irtenbide bila. Familiako edo ezagunen etxeetara etortzen dira batzuk, eta Arrasaten, Polmetasa inguruan

koadrila handia elkartzen da. Hemen geratzeko biderik ikusten ez badute, pare bat astera-edo joan egiten dira. Bailarako herri guztietan gertatzen da hori, Caritasen lankide guztiek esaten dute. Kalean, adibidez, ikusten da jendea edukiontzietan jana topatzen. Bereziki atzerritarak izaten dira", dio Argaratek.

Caritas laguntza beharrean

Horrek guztiak erakusten du, beraz, gure ibarrean ere krisi ekonomikoaren ziztadak handiagotzen dabilta. Ondorioz, Caritas bera ere laguntza beharrean dago: "Gure behar handienetako bat dira dirulaguntzak, egoera honi guztiari aurre egiteko. Zerbait badugu gordeta, baina egoera larritzen dabil, alokairuak ordaintzeko, batez ere, eta hor dirutza joaten da". Kasu honetan lagundu gura duenak Kutxan edo Euskadiko Kutxan Caritasen dituen kontuetan sar ditzake laguntzak.

Baina beste laguntza mota bat ere esker onez hartzen dute Caritasen: boluntarioenak. "GOIENAtik azken deialdia egin zenetik asko handitu da kopurua. 5-6 boluntario berri astero-astero datoz, eta ekintza zehaztarako gehiago datoz. Adibidez, neguko aterpean bazkariak emateko 25 pertsonak eman dute izena. Gaur-

tik (astelehena) hasten da aterpetxea martxan. Hala ere, boluntarioak beti dira ongi-etorriak gurean", azpimarratu du Horazio Argaratek.

Hala eta guztiz ere, eta ikusita zelako lan handitza ari den sortzen, liberatu bat kontratatu behar izan du Caritasen Debagoieneko. "Herri guztietako kasuak gehitzen eta korapilatzen dabilta, eta Gipuzkoako beste Caritas guztiekin lotuko gaituen pertsona behar dugu, eta horretarako sortu dugu Xabierren lanpostua".

Bukatzeke, gogora ekarri Caritasen egoitza berria estreinatuta zuela uda ostean. Bertan egiten diete harrerara laguntza behar dutenei. Egunak dira martitzen eta egubakoitzetan 17:00etatik 19:00etara. Sarrera Mitarte kaletik du, atzeko partetik.

XABIER JORRIN CARITASEKO LIBERATUA

"Bergaran ere ibarreko joera bera ikusten da: gero eta behar handiagoa"

Xabier Jorrin (Azpeitia, 1971) irailan hasi da Caritasen liberatu moduan.



Zein da zure zeregina?

Beharren arabera zehaztuko dugu. Hasteko errealitatea ezagutu beharko dut, eta gero hasi lanean: boluntarioak koordinatu, proiektuak...

Non ibiliko zara?

Momentuz, bereziki, Bergaran nago. Eta gero ikusiko dugu non segituko dudun, seguru aski, Arrasaten. Baina egoera bera ikusten da Bergaran, Arrasaten, eta ibar osoan: gero eta behar handiagoa du jendeak.

ATENDITUTAKO PERTSONA KOPURUA

ARRASATE

Materiala eman	264
Ibiltariak	47
Etorkinak	183
Bertakoak	34
Lana topatzeko laguntza eskaerak	363

BERGARA

Atenditutako pertsona kopurua	314
Lanerako formazio zentroan (Labegaraieta)	72
Lehen harrera	296

OÑATI

Etorkinak	24
Oñatiko familiak	22
Ibiltariak	16

ESKORIATZA

Atenditutako pertsona kopurua	42
GUZTIRA	1.328

2011KO DIRU MUGIMENDUA ARRASATEN

Alokairurako laguntzak	9.761,94
Laguntzak dirutan (jana erosteko, jantziak...)	41.527
Bertakoak	8.059
Atzerritarak	30.538
Ibiltariak	2.930
Haurren zaintza (Ikastolako gastuetarako)	2.183,28
Osasun Pastoralta (ospitalean daudenenako)	500
Espetxeko Pastoralta	500
Gastu orokorrak	450
GUZTIRA	54.922,22

Eneko Olasagasti | Zine zuzendaria

"Pelikulak alde bat kontatzen du, baina ez da alde batentzat egina"

Pasa berri den asteburu honetan *Barrura Begiratzeko Leihoak* dokumentala eman dute Arrasateko Amaia Udal Antzokian

U.M. / J.D. | ARRASATE

Bost zuzendari, bost euskal preso. Horixe da *Barrura Begiratzeko Leihoak* dokumentalaren oinarria. Arrazoia, berriz, "sarri ezkutatua izan den errealtate sozial hau modu gizatiar batean erakusteko asmoa". Bada, oinarri eta arrazoi horren emaitza oraingo asteburuan taularatu da Arrasateko Amaia Udal Antzokian, ikusleen aldetik oso harrera onarekin, gainera. Eguen eta egubakoitzean emanaldi bana izan ziren, eta azkenekoan dokumentaleko azken istorioaren zuzendari Eneko Olasagasti izan zen.

Zelako harrera izan du orain arte dokumentalak?

Oraindik denbora gutxi daramagu, baina estreinaldirako data ipini genuenetik deiak ugariak izan dira eta astebururo lauzpabost herritan ematen ari da. Ikusle aldetik, berriz, ni egon naizenetan oso ondo dabil.

Ikusi ostean, zer da herritarrengandik sumatzen dena?

Jendeak, batez ere, ematen ditu eskerrak, kontatu beharreko zerbait zelako. Oso esker oneko agertzen dira.

Gogorra badela ere badiote...

Bai, pelikula triste da. Baina ez da zaila. Irlatu dugun jendearen egoera ez da zorionekoa, beraz normala da jendea jota ateratzea. **Subjektibitate egindako film moduan aurkeztu da.**

Subjektibo atera da. Dena den, subjektiboa baino, esango nuke dela alde bat begiratzen duena. Batetik aukeratutako gaiarengatik, eta bestetik bost zuzendari izanik, bost begirada desberdin direlako. Norberaren begiak dira istorioa kontatzen dutenak. Horrek berorrek istorioa subjektibo egiten du.



Eneko Olasagasti dokumentalaren karatula atzean duela. | JOSETXO ARANTZABAL

"Jendeak eskerrak ematen ditu, kontatu beharreko zerbait zelako"

Bakoitzak modu independentean landu duzue istorioa?

Ez, bakoitzak askatasuna izan du bere istorioa nahi izan duen moduan kontatzeko. Baina grabatu aurretik, bitartean eta ostean bilera asko egin ditugu. Ze beldurra geneukan pelikula mosaiko bat egiteko eta gure asmoa zen bost istorio duen pelikula bakarra egitea. Horrez gainera, kamera, soinua, musika... berak izan dira, eta horrek guztiak kohesioa eman dio pelikulari.

Esan izan zitzaizuen apologia egiten zenbiltzatela...

Hori baino, esan zuten izango zela Bilduk apologia egin izan balu moduan. Guri esan zigutena izan zen agian urratu ahal geneula Biktimak Babesteko Legea. Hori da Urkijok esan zuena. Eta ez zen zurrumurru hutsa izan, ze gutunak bidali zizkiguten, baina ez zen hortik harago joan. Beti egon da mamu bat gure gainean, baina ez da ezer konkreturik egin, ez da salaketarik egon.

Edozelan ere, ikusleei dagokienez, pozik zaudete emaitzarekin...

Ikusita ze numerotan ibiltzen diren aretoak, bai, alde horretatik debaldeko propaganda egin ziguten. Baina pena ere bada, ze pelikula ikusiko zuketuen batzuek agian ez dute ikusiko, aurreiritzi batzuk sortu direlako. Eta pelikulak alde bat kontatzen du, baina ez da alde batentzat egindakoa.

Odol emaile gehiago eta gazteak behar dituzte

U.M. | DEBAGOIENA

Odol erreserba onak lortu guran, dei berezia egin dute Gipuzkoako eta Arabako odol emaileen elkarteetatik odol emaile egiteko; bereziki, gazteei zuzendu diete dei berezi hori, "euren laguntza funtsezkoa delako".

Hurrengo ateraldiak

Gure ibarrean dauden hurrengo odol ateraldiak ere gogora ekarri dituzte herritarren parte-hartzea eskatzeaz batera: Bergaran, azaroaren 14an eta 28an, eta abenduaren 12an. Oñatin, azaroaren 9an eta abenduaren 14an. Elgetan, abenduaren 3an eta Aramaion 2013ko hasieran da hurrengo hitzordua. Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, berriz, urrian izan dira odol ateraldiak egiten, eta datozen hitzorduak zehaztu barik dituzte.

la 2.500 emaile

Datu orokorreki begirata, Debagoiengan 2.441 odol emaile daude gaur egun. Odol emaileen elkarteetatik diotenez, "behar dugun odol guztia lortzeko, nahikoa litzateke urtean 1.000 biztanleko 50 emanaldi izatea, horrela emaile bakoitzak urtean birratan emateko".

Gure ibarrean bi elkarte ibiltzen dira lanean: Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartetik Bergarara, Oñatira, Antzuolara eta Elgetara etortzen dira ateraldiak egitera; eta Arabako Odol Emaileen Elkartekoak arduratzen dira, berriz, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaioako odol ateraldiak egiteaz.



AHTko Arrasateko zatia. | GOIENA

Langileekiko gehiegikeria egin dela dio sententziak

U.M. | ARRASATE

AHTko Arrasateko zatiko lanetako bi langileren kontra gehiegikeriak egin direla onartu du Eibarko epaitegiak sententzia batean. Langileok "lan jardun jasangaitza" izan dutela onartu du, eta baita ere euren soldatak Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Probintzialak zehaztutakoaren oso azpitik zeudela. Ordainetan, langile bati 12.725,12 euro eman beharok dizkiote eta 28.592,57 euro besteari (gehi interes legalak).

ELA sindikatuak jarri zuen "legez kanpoko jardun horren" kontrako salaketa. "Salatzen ditugun lan-jardunak 12 ordu-tik gorakoak izan ziren, zapa-tuak barne. ELAk demostratu ahal izan du askotan 15 eta 16 orduko jardunak ere egiten zituztela, eta behin edo behin 22 ordukoak ere egin zituztela", azaldu dute sindikatutik.

Hiru enpresa zigortuta

Sententziak hiru enpresa zigortu ditu kalte-ordainak ordaintzera: Valentziako GEYSP S.L. eta AHTren Arrasateko zatiko lanak egiteko sortutako aldi baterako enpresa osatzen duten Obras subterraneeas SA eta OSSA Obras subterraneeas enpresak.

ELAk azpimarratu du kalte-ordainetatik harago, "pozik" daudela sententziarekin, "legitimitatea" ematen dielako mota honetako lan-jardun "bortitzen" kontra "borrokan segitzeko". "Ez dezagun ahaztu berezko esplozazio ekonomikoaz gainera, halako lan-jardun bortitzen ondorioak istripu bilakatzen direla" diote. Bestalde, salatu du epaitegian aurkeztutako frogak berak lehenago ere aurkeztu zituztela Lan Ikuskaritzan eta baita Jaurlaritzako ordezkarien aurrean ere, baina bi kasuetan ez zietela kasurik ere egin. Eta gogora ekarri du antzerako salaketa gehiago ere badituela aurkeztuta. Hori dela eta Jaurlaritza "estutu" gura du egoera horren aurrean "behingoz" zerbait egin dezan eta AHTren obretako beharginek jasatzen dituzten gehiegikeria larriak konpon" ditzan.

Zartaginak su hartuta, sute txikia izan zen Arrasaten

Zartagin batek su hartu, eta handik ke xurgagailuraino igota, sute txikia piztu zen zapatu eguerdian Arrasateko Nafarroa etorbidean. Polizia eta suhiltzaileak berehala joan eta sua emendatzea lortu dute, kalte handiegirik eragin aurretik. Ez zen zauriturik izan, eta ez dute etxea hustu beharrik izan.



U.M.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
http://goiena.net/iritzia/



Herrien Europarantz harro

Urriaren 21ean Euskal Autonomia Erkidegoak emandako pausoarekin Herrien Europa hurbilago dago gurean, eta baita Katalunian ere. Guk Eskoziaren laguntza behar dugu, eta, noski, katalanena ere bai, baina katalanek ere gure laguntza behar dute. Pertsonen elkarren laguntza behar dute garatzen joateko. Kooperatibek ere elkarren arteko elkartasuna behar dute azpiegiturak sortzeko (unibertsitatea eta ikerketa-garapen zentroak), sinergiak eta ekonomi eskala handiagoak lortzeko eta egoera txarretatik lagunduta irteteko. Eta herrialdeek ere elkarren laguntza behar dute egoera latzetatik irteteko (lurrikarak, goseteak, sute eta istripu erraldoiak) eta baita independententziarantz abiatzeko.

Duela urte gutxira arte ematen zuen euskaldun batzuk arraroak ginela independentzia eskatzen genuelako. Bakarretakoak ginen European eta Estatu zentralista zaleek (nazionalista espainolak, frantsesak...) ez ziguten ahalmek ematen geurea dena eskatzeko ere, atzerakoiak ginela, hemezgarren mendeko eskariekin gentozeala, eta abar. Baina Quebecoak, Kosovokoak, eskoziarrak, katalanak eta azken hogeitaz sortu diren nazio berri zaleak (Eslovenia, Montenegro, Kroazia...) ere atzerakoiak dira? Modaz pasatutako eskakizunak dira? Ez, horixe. Hauteskunde aurreko astean Eslovenian egon nintzen (1991n independentzia lortua) eta han sumatzen den gogoia herri garatu eta moderno egiteko oso pozgarria da. Eta bertako Europako parlamentari batek esan zidan: "Zuek guri erakutsi kooperatibak egiten eta guk Estatu egiten erakutsiko dizuegu". (Isilik esan zidan, zeren eta Espainiako Enbaxadorea nire beste alboan baitzegoen).

Katalanek azaroan dauzkate hauteskundeak eta badirudi independententziarantz botako dutela. Euskal Parlamentuaren bi herena gaur egun independentista da eta bide hau erdi batera egin behar dugu garaipena nahi baldin badugu. Euskal Herri aberatsagoa, solidarioagoa inguruko herriekekin eta modernoagoa egingo dugu laster.

"Pertsonen elkarren laguntza behar dute garatzen joateko"

USTEAK USTE

ANDER MONEDERO | amonedero@goiena.com

Kultura alde batera utzi...

Oraindik hauteskundeen biharamunarekin gaude... eta ez dakit inor konturatu den edo ez, baina hautagaiek eztabaidetan kultura aipatu ere ez zuten egin! Dirua egon denean museo ikusgarriak egin dira, zine eta musika jaialdi handiei dirulaguntza handiak eman zaizkie turismoa sustatzen dutelakoan... Eta kultura ofizialetik kanpo geratzen den guztia, pertsonen euren ekimenez egiten dutena, hiltzen uzten ari dira: BEZaren %21eko igoera, dirulaguntzak murriztu edo kentzea... Nahiz eta komunikabide handietan gutxitan ikusi, industria handia dago atzetik eta aurretik ere industria krisian zegoen... Nork lagunduko ditu gure artistak?

KALE INKESTA

Uste duzu beste zubi batzuetan baino jende gehiago gelditu dela oraingoan herrian kanpora joan barik?



LUPE OTEIZA
ARRASATE

"Ez naiz kalean gehiegi ibili eta ez dakit zer esan. Dena dela, nire inguruan badakit jende asko kanpora joan dela".



RAMON NIETO
ARRASATE

"Uste dut jendea kanpora joan dela, bestela ikusi telebista. Hegoaldean hotelak topera daude. Krisia dagoela, baina..."



MIKEL DIAZ
ARRASATE

"Herria egun arruntetan baino lasaiago dago. Denetik egongo da, baina jende asko kanpora joan dela uste dut".



ANA OLABARRÍA
ARAMAIO

"Aramaiotik etorri naiz eta uste baino askoz zailagoa egin zait aparkatzea. Jende asko hemen geratzen seinala".

HANDIK ETA HEMENDIK

Nondik dator "kana"?

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Mutikotan, nire sasoiko eibartarrok arrunt asko erabili izaten genituen, futboleko jolasean, "kornerra", "orsaixa" eta "kana" moduko hitzak.

Jakinekoko dira aurrenengo adiera bien jatorriak.

Inork ez daki, ostera, non arraiotatik datorren "kana".

Ezaguna ere bada, duela ehun urte futbol-terminologia ez zela Euskal Herrira gaztelaniaren bitartez etorri, zuzen-zuzenean ingelestik baino.

Gure aita zenaren belaunaldiak normaltasun osoz esan ohi zuen *foballa* (football), *erreferia* (referee), *penaltixa* (penalty), *kiperra* (goalkeeper), baka (back), *kornerra* (corner), *orsaixa* (offside) eta *kana* (?).

Ingelesaren eragin hau ez da inondik ere harrigarria.

Kantauri itsasbaterreko Athletic, Racing, Sporting, Touring eta honelako taldeen izenak gogoan hartu besterik ez dago.

Eragin berberetatik datoz *alirona* (all iron), *erroberak* (rovers), *porlana* (portland) eta *esmita* (smith) hitzak, eta guztietan dakigu, zehatz mehatz, adieren jatorria, *kana* delakoaren kasu bakarrean izan ezik.

Izan ere, nondik dator *kana*?

Kana zer den (edo zen), zeri esaten genion alegia, badakigu, noski.

Kana, *kornerra* ez zena zen.

Hau da, *kornerra* jokalariek baloia jo eta euren ataldeko murratik kanpora irtetzen zenean zen, eta da.

Kana, ostera, aurkariek jota irtetzen zenean.

Behin baloia zelaitik irtenda, *kornerra* ateratzen da ertzetik.

Eta *Kana*, aldiz, ate aurretik.

Gaur egun, *kornerrari* esaten zaio euskaraz, oraindik ere, *kornerra*.

Ingelesezt "corner kick" eta, gaztelaniaz, "saque de esquina".

Kana-ri, berriz, "ateko sakea", euskaraz.

"Goal kick", ingelesez.

Eta "saque de puerta", gaztelaniaz.

Baina, nondik dator orduan *kan* hitza?

Bai, guztiok dakigu zer den "can" ingelesez (to be able/ahal izan) eta, hainbat adieratan sakonduz gero, *kaiola*, *espetxe*, *pote*, *ontzi*, *ipurdi* eta *atze* (?).

Kontua da, baina, inork ez duela adiera horietako bat bera ere futbolarekin lotzen.

Ezta "atze" hipotetiko horrekin ere.

Lan-kontuengatik ingelesez batekin topo egiten dudak bakoitzean, galdera berbera egin ohi diot -azkena joan zen astean-, baina sekula ez dit inork argitasunik eman ahal izan -ezta oraingoan ere-.

Eta han-hemenka aurkitu daitezkeen futbol-hiztegietan ez dago batera aztarrenik.

Eta nondik dator, bada, *kana*?

ZUZENKETA

Urriaren 22ko GOIENA paperean, hauteskundeen gaineko informazioan, datu bat ez genuen zuzen eman. Arabako emaitzetan, Ezker Anitzakoak eta Ezker Batuarenak nahastu genituen. Ezker Anitzari 2.482 boto eman genizkion, eta ez da zuzena. Hau da zuzena: 4.570. Boto horiek lortu zituen Ezker Anitzak Araban.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SARI SORTA

Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

PENDRIVE
Bidali **KLUBA PENDRIVE**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira

goiena



LIBURUA ETA DVDA
Bidali **KLUBA LIBURUAK**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira

PAMIELA
argitaletxea



DVD ERREPRODUKTORE BAT
Bidali **KLUBA DVD**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

EROSKI



UMEENTZAKO JOKUA
Bidali **KLUBA JOKUA**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

argia



SARRERAK

Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



KONTZERTUA
Azaroan 9an. "Zuloak" taldearen kontzertua Oñatiko Gaztelekuan. Bidali **KLUBA ZULOAK** [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

OÑATIKO UDALA



DANTZA
Azaroan 11n. "Concierto Concepto" dantza ikuskizuna Arrasateko Amaia Antzokian. Bidali **KLUBA CONCEPTO** [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Atera etekina

goienakluba 2012

%25eko
deskontua

argia

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

%25eko deskontua ARGIAko harpidetzan
Goiena klubeko kide izanda

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

AVARIVM

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

AVIA

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIENDO

BEGIENDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

eureka!
zientzia
museoa

EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

Esko Sport

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

gahir
fisioterapia
osteopatia

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

GAES

Centros Auditivos
Entzumen zentruak
GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ
EDER
edertze
zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER
SUKALDEAK

IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

IZENADUBA
BASOA

IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA

LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

JAIXAK
disfrutatzeko oparixak

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

lastai

LASTAI
hautzaintza eta atsedeen gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN

NAREN
fisioterapia
zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT
AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI-URDIN
izotz
jauregia
Donostia,
943 46 44 00

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Iker Arrizabalaga | Agifes elkarteko esku-hartze familiarren koordinatzailea

"Garrantzitsua da gaixoari nahi duen bizitza proiektua aurrera eramaten laguntzea"

- ▶ Agifes gaixotasun mentala duten familiarrekoei zuzendutako ikastaroa egiten dabil
- ▶ Familia ondo informatuta egotea ezinbestekoa da gaixoari laguntzeko orduan

A.TXINTXURRETA/A. EZKIBEL | ARRASATE

Gaixotasun mentala duten familiarrekoei zuzendutako ikastaroa egiten dabilza Arrasaten. Agifes elkarteak du ikastaroaren ardurua. Gaixotasun mentalak zer diren eta nola eragiten duten azalduko digu Iker Arrizabalaga Agifes elkarteko esku-hartze familiarren koordinatzaileak. Besteak beste, familiak duen garrantzia nabarmendu du.

Zer dira gaixotasun mentala?

Arazo psikiatrikoak dituzten pertsonen hitz egiten dugu gaixotasun mentalaz ari garenean: adibidez, eskizofrenia, nahasmen bipolarra, nortasun nahasmenak eta horrelako arazo psikiatriko larriak dira. Gaixotasun mentalek eragiten dute pertsonen buru mailako arazoak izatea, askotan euren gaitasunetan atzerapen bat izaten dute eta emozionalki alterazio handiak izaten dituzte. Bi sintoma multzo bereizten ditugu: positiboak eta negatiboak. Sintoma positiboak izango lirateke buruari gehitzen zaizkion gauza batzuk; adibidez, haluzinazioak. Irrealak den zerbait ikusi edo entzuten dute gaixoak. Hala, perzeptzio mailan arazoak izaten dituzte eta horrek pertsonari sufrimendua dakarkio; baita delirioak ere; hau da, ideia arraroak izatea: "Jendea nire atzetik dator" edo "Kamerak jarri dizkidate etxean". Bestalde, sintoma negatiboak direla esaten dugu pertsona isolatu egiten denean: etxean geratzen da, ohean, ez dauka ordutegi finkorik, erlazio sozialak murrizten ditu, familian gatazka asko izaten dira...

Sintoma horiek nolako ondorioak izaten dituzte gaixoarengan?

Pertsonak ezin du bere funtzionamendua aurrera eraman; bai ikasketa mailan, bai lanean, bai familia mailan... Gatazka izaten dira eta uste izaten dute familia euren kontra dutela.

Horrek guztiak nola eragiten du familia giroan?

Gaixotasun mentalaz hitz egiten dugunean arazo psikiatrikoaz ari gara. Guri ez digute erakutsi zer egin behar dugun familian horrelako zerbait gertatzen denean. Hortaz, ezjakintasun horrek eragiten du horrelako kasuetan zela jokatu ez jakitea. Gainera, nahiko estigma daude gaixotasun horien inguruan eta familia giroan, gizarte mailan ez da onartzen gaixotasun hori dagoenik. Eta onartzen denean, arazoa izaten da gaixotasuna daukanak ez duela onartzen bere arazoa. Zaila izaten da zirkulutik irtetea.



Iker Arrizabalaga, Monterron parkean. | ARANTZAZU EZKIBEL

Hortaz, batetik familiak baina bestetik gaixoak berak onartu behar du, eta hori ez da erraza.

Bai, garrantzitsua da familiak onartzea; ondoren, eurak izango dira agente aktiboak, pertsona hori lagunduko dutenak. Garrantzitsua da familia informatuta

"Nahiz eta gaixotasun mentala izan, bizitza normala eramaten daiteke"

"Gaixotasun psikiatriko hauek larriak eta, gainera, kronikoak dira"

egotea, ze arazo den, ze egin daitekeen... esan behar da momentu honetan ez dagoela protokolo bat, egiteko modu bat. Badaude psikiatrikoak, badaude erdi mailako egitura batzuk, baina oso zaila da haiengana iristea. Horregatik, Agifesez egiten duena da familiarri lagundu. Informatu egiten da helburua delako gaixotasun mentala duen pertsonak autonomia ona izatea eta errekueratzea. Nahiz eta gaixotasun mentala izan, pertsona batek bere burua ondo zaintzen badu eduki dezake bizitza normal bat. Orokorrean, jendeak hori ez daki, baina hala da.

Gaur egun, gaixoei zuzendutako zein motatako tratamenduak daude?

Batetik, farmakologikoak daude. Kontuan izan behar da gaixotasun psikiatriko hauek larriak direla, eta, gainera, kronikoak. Ezer ez bada egiten, denborarekin txarre- ra egiten dute; hortaz, garrantzi-

tsua da psikiatrarengana joatea -Arrasaten badago osasun mentaleko zentro bat-. Euren eskuetan jarri eta medikazioa ondo hartzea komeni da. Bestalde, laguntza psikologikoa izatea garrantzitsua da. Gaur egun, guk erdi mailako laguntza eskaintzen dugu Gipuzkoa mailan, baina egia da eskual-

"Garrantzitsua da okupatuta egotea, drogarik eta alkoholik ez hartzea..."

"Prebentzioa eskatzen dugu pertsona autonomoa izateko"

de honetan ez dagoela ezer. Debagoiena Gipuzkoako eskualde bakarra da erdi mailako egitura-rik ez duena.

Esan daiteke egitura soziosanitarioa falta dela?

Egitura soziosanitarioak laguntza sozialen eta sanitarioen artean kokatuta dauden egiturak dira. Egitura horiek koordinazioan lan egiten dute osasun mailako mediku eta psikiatrekin. Pertsonen errekueratze eta kalitatezko bizitza eramaten laguntzen diegu. Eta, garrantzitsua dena, pertsonari nahi duen bizi proiektua aurrera eramaten laguntzen diegu.

Zeintzuk dira laguntza sozial horiek?

Hemen, Debagoiengan, momentu honetan ez dago ezer. Laguntza psikosozialerako eguneko zentro bat laster zabalduko da Arrasaten. Diputazioak bere programan horrela du jarrita; bestalde, Agifesez etxez etxeko zerbitzua dauka. Laguntzailea etxera joaten da eta gaixoarekin erlazio on bat izanez lagundu egin daki etxetik irteten eta beste gauza batzuk egiten. Gaixotasuna duenak bere burua zaintzen ikasi behar du eta horretarako onartu behar du gaixotasun bat duela. Horretan, lehenengo bidea familia izango da. Familiak lortuko du gaixoak hori onartzea.

Gaixoari laguntzerakoan, familiak zer egin dezake?

Ba esan duan bezala informatuta egon behar du. Arazo handia dago eta informatu egin behar dira, psikiatra eta elkartei informazioa eskatuta. Adibidez, Agifesez laguntza terapia taldeak ditu familiarrekoei laguntzeko. **Berriro ere zirkulu berean ez erortzeko zer egin behar du gaixoak?** Gaixotasun hauek pertsonaren bizitza osoan dute eragina. Guk prebentzioa eskatzen dugu, pertsona autonomoa izan dadin eta ikas dezan zer egin behar duen. Garrantzitsua da okupatuta egotea, zer eginak izatea, droga eta alkoholik ez hartzea... nolabait bere burua zaintzea. Hori nola egin daitekeen erakutsiko diegu guk, baina gaixoak eta familiak hartu behar ditu erabakiak.

Arrasaten da ikastaroa. Dagoeneko erdia egin duzue. Nolako harrera izan du ikastaroak gaixoen familiarrengan?

Esan dezaket harrera ona izan duela eskualdean. Orain arte 60 familia inguru etorri dira ikastarora eta erantzuna ona izan da.

HERRIAK

Lope Agerrekoaren jaiotzaren 500. urteurrenaren aitzakian

- ▶ ARTaso taldeak hainbat ekitaldi antolatu gura ditu herritarrekin 2013rako
- ▶ Urriaren 26 eta 27an oroigarria eta kartela ipini zituzten Lope de Agirre kalean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Lope de Agirre kalean, kaleari izena ematen dion pertsonaia ezagunari erreferentzia egiten dioten bi oroigarri ipini dituzte. Kalearen hasieran eta bukaeran. Portu tabernaren parean Joxan Izak egindako irudia duen kartela dago, eta kalearen goiko aldean, kultura etxe parean, Angel Milikuak egindako zeramika. Bietan Lope Agerrekoa da protagonista, baina zergatik? Bada, 2013an, haren jaiotzaren 500. urteurrena ospatuko dutelako. "Ez dago jaiotza-agiririk, baina ezagutzen ditugun datuen arabera Lope Agirrekoa 1511 eta 1516 artean jaio zen. Bost urteko tartea ematen dute historia liburuek, eta guk erdikoa aukeratu dugu ospakizunak egiteko. 2013an jaiotzaren 500. urteurrena ospatuko dugu", esan digu ARTaso taldeko kide Kepa Elortzak.

Jaiotza-agiririk ez dago, baina jakinekoea da Lope Agerrekoa 1561eko urriaren 27an hil eta zatikatu zutela. Hori horrela, urriaren 27an ipini zituzten oroigarriak haren izena duen kalean. Angel Milikuak egin duen zeramikan, alaba besarkatzen, babes ten dago. "Bera hil eta zatikatu aurretik, alaba hil zuen. Bazekin bera atxilotzen zuten unean, Elvira alabaren kontra egingo zutela, eta nahiago izan zuen berak hil", esan digu Elortzak.

Bestalde, Joxan Izak egindako kartela Bruce Willisen *Looper* pelikulan oinarritu dute. 2012an kokatzen da pelikula eta pelikula batzuk argitzeko urteetan atzera, iraganera egiten duen pertsonaiaren istorioa kontatzen du. "Guk ere atzera egin gura genuke Lope Agerrekoaren garaien zer gertatu zen jakiteko. Gauza txarrak egin zituela jakin bada-kigu. Baina orduan idatzitako kronikatan oinarritzen bagara, gauza txarrak bakarrik egin zituela ematen du. Gure asmoa da Lope Agerrekoaren bi aldeak erakustea", diote ARTasokoek.

Hamabostaldia egingo dute

Hori horrela, herritarren artean bi ikuspegiak erakustearren, Lope Agerrekoa oinarri hartuta, hamabostaldi berezia egingo dute 2013-



ARTasoko taldeko kideak Lope Agerrekoaren oroimenezko zeramika ipintzen. | ARTASO



Joxan Izak egindako kartela. | ARTASO

DATUA

27

URRIA

1951eko egun horretan atxilotu eta zatikatu zuten Lope Agerrekoa.

ko urrian. Askotariko ekintzak antolatu gura dituzte: hitzaldiak, mahai-inguruak, erakusketak... Azken hori martxan dute dagoeneko. "Herriko artisauekin egon gara, eta Lope Agerrekoa oinarri hartuta euren lanak egitea eskatu diegu. Pertsonaia horrek sortzen dizkien sentimenduak erakusteko eskatu diegu. Lanak kultura etxean batuko ditugu", aurreratu digu Elortzak.

Hamabostaldia antolatzeko lanean dihardutenen ametsa da Miguel De La Cuadra Salcedo ekartzea. "Zenbat kontu ez ote dituen ezagutuko gizon horrek. Abenturazalea eta jakintsua da, eta Lope Agerrekoari buruz kontu eta istorio asko ezagutuko ditu. Hori da gure ametsa, baina oso zaila izango da. Hitzaldiak emateko diru asko eskatzen du. Hori da gure beste erronka: baliabide ekonomikoa".

Prest dute dirulaguntza eskatzeko gutuna. Enpresetara eta erakundeetara bidaliko dute, euren asmoen berri emateko.

Herritarren laguntza

Dena den, eta urtebeteko epea dutela ikusirik, deialdi berezia egin gura dute herritarren artean, euren proposamenak ezagutzeko. "Guk ideia batzuk ditugu, baina herritarrek beste hainbat izan ditzakete. Horiek ezagutu gura ditugu: antzerki saioa, musika emanaldia, pintxo dastatze berezia... Edozerk balio du, beti ere Lope Agerrekoa oinarri hartuta. Proposamena egin eta bideragarria bada, aurrera eramango dugu", diote.

Interesatuak bi bide dituzte euren ekarpenak egiteko: 630 00 07 24 (Angel) zenbakia edo artasokolope@gmail.com helbidea.

ESANAK

"Askotariko ekintzak egingo ditugu 2013ko urrian Lope Agerrekoa oinarri hartuta"

"Pertsonaiaren ikuspegi guztiak erakutsi gura ditugu; alde onak eta alde txarrak"

KEPA ELORTZA | ARTASO TALDEKOA



Josu Zubia oñatiarra zapatuan Arrasateko Amaia antzokian eskainitako emanaldian. | UBANE MADERA

ARRASATE

Gipuzkoako Kantu Txapelketaren beroketa saioan, maila polita

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Gipuzkoako Kantu Txapelketak aurten hainbat aldaketa izango ditu; garrantzitsuena ez dela kanporaketarik egongo eta parte-hartzaile guztiak zuzen-zuzenean azaroaren 18an Donostian ospatuko den finalera pasatuko direla. Dena dela, zapatuan "lagun arteko beroketa saioa" egin zuten Arrasateko Amaia antzokian –horrela deitu zioten antolatzaileek– abestiak jendaurrean aurkeztu eta finalera iritsi baino lehen epaimahaiaren aholkuak jaso ahal izateko. Parte-hartzaile gehienak gustura gelditu ziren egindako lanarekin, baita Josu Zubia oñatiarra ere; aurten Debagoieneko ordezkari bakarra izango da bera.

Kantu zaleendako eskola polita izaten da Gipuzkoako Kantu Txapelketa eta zapatuan ere agerian gelditu zen hori. Parte-har-

tzaile guztiak Donostiako finale-rako sailkatuko direnez, abestiari eta eszenaratzeari azken ukituak emateko erabili zuten zapatuko

saioa. Donostiatik, Tolosatik, Oriotik edo Hernanitik etorritako abeslariak ikusi ahal izan ziren Amaia taula gainean.

Guztira 12 parte-hartzaile aritu ziren, 16 abesti interpretatu zituzten eta horietatik 11 sortze-lanak izan ziren.



AINZIBER GUIU
TOLOSA

"Bakarlari moduan etorri naiz, baina nire ahizpa eta lagun baten laguntza izan dut biolinarekin. Urduri samar nengoen, baina ondo atera da guztia. Donostian ikusiko dugu zer gertatzen den. Aurten denok goaz eta hori abantaila da."



INTZA, ENERITZ ETA IÑAKI
ORIO

"Beste urte batzuetan ere parte hartu izan dugu Gipuzkoako Kantu Txapelketan. Gaur hiru sortze-lan aurkeztu ditugu eta gustura gaude taula gainean egin dugun lanarekin. Propio txapelketarako sortutako abestiak dira eta denbora asko eman dugu entseatzeko. Donostian lan ona egitea da gure helburu bakarra."



ARANTZA ETA JOSEBA
DONOSTIA

"Soinu frogia egin dugunean oso urduri geunden, baina gero momentua iritsi denean nahiko lasai igo gara taula gainera. Aspaldi sortu genuen abesti bat jo dugu, sekula jendaurrean jo barik geneukana. Guri asko gustatzen zaigu baina jakin nahi genuen ea jendeak zer esaten duen. Oso esperientzia polita izaten da Gipuzkoako Txapelketa eta garrantzitsuena da asko ikasten duzula."

BERGARA

Zabalotegi gaztetxoan dantzaleku bilakatu zen

Dj jaialdia egin zuten eta atsedenerako denbora barik dantza eta dantza ibili ziren gaztetxoak



Neska-mutiko koadrila Zabalotegiko Dj jaialdian zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

A.B. | BERGARA

Eguna iristeko zain egoten dira Bergarako gaztetxoak. Izan ere, Zabalotegi aretoan egiten diren Dj jaialdietan horren gustuko dituzten abestiak lagun artean dantzatzeko aukera izaten dute. Horixe da, hain justu ere, zapatuan egin zutena. 18:30ean hasi eta 21:30era arte gelditu ere egin barik dantza eta dantza ibili ziren gaztetxoak.

Humbertorekin dantzan

Hileroko hitzordua izaten da Zabalotegi aretoko Dj jaialdia eta oraingo honetan Humberto izan dute musika jartzaile.

Gaztetxoak behin eta berriz gerturatu ziren musikariarengana gustuko dituzten abestiak ipintzeko eskatzera. Hurrengo saioa azaroaren 17an izango da, ordutegi berean.



Humberto musika jartzailearekin ondo moldatu ziren neska-mutikoak. | J.A.

JOSU ZUBIA
ABESLARI OÑATIARRA

"Helburua da gauzak ondo egitea eta gero gerokoak"

Emanaldiaren ostean oñatiarra pozik zegoen egindako lanarekin.

Gustura gelditu zara?

Bai. Hasieran urduri nengoen, baina taula gainera igotakoan oso ondo sentitu naiz eta gozatu egin dut.

Txapelketarako propio sortutako abestiak dira jo dituzunak?

Ez. Zerbait gertatzen zaidanean idazten ditut abestiak; batzutan astebetean egiten ditut eta beste batzutan hiru hilabete behar izaten ditut. Abesti horien artean aukeratzen dut txapelketan jotzeko.

Nola ikusten duzu zure burua Donostiako finalean?

Ikusiko dugu zer gertatzen den. Lehenengo helburua da gauzak ondo egitea eta gero etorriko da etorri behar dena. Pasa den urtean hirugarren postuan gelditu arren, akats larri bat egin nuen eta aurten dena ondo irtetea nahiko nuke.

KONTZERTUA

Rockeroak infernura eramán zituzten, Galiziarren eskutik

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Elvis erregearen anaia maltzurra bere jarraitzaileekin izan zen zapatuan gurean. Presleyren kanta ezagunenak alde batera utzi, eta 50. hamarkadako rock and roll gordina egiten zuten zapalgailua bihurtu ziren galiziarrok.

Kontzertua berandu hasi arren, gaua ondo baino hobeto berotu zuten Rockers Go To Hell taldekoek Eskoriatzako Inkernu tabernan, bertara gerturatu ziren arimak dantzan jarritz.

R'n'R urrezko aroa

Bateria, kontrabaxu, gitarra eta abeslaria oholtza gainera igo eta lehen akordeak eman orduko, argi geratu zen ez zeto zela denbora pasa. Artzaina, apaiza balitz bezala, gaua liturgia bihurtu zuen Dorda abeslariak, publikoa zorraziz.

Elvisen bertsio talde bezala dira ezagunak, baina tartean, Stray Cats, Buddy Holly edo Eddie Cochran-en kantak eskaini zituzten. Kontzertu izerditsu eta borobila, *Viva Las Vegas*.



Alvaro Dorda, Elvisen anaia maltzurra, indartsu zapatuan. | JAGOBA DOMINGO

BERGARA

Inprobisaziorako gaua izan zen egubakoitzean Laino skateparkean

Jam Session gaua egin zuten eta Funk Junkers taldearen ostean, jende dezente igo zen taulara

A.B. | BERGARA

Egubakoitzeroko musika emanaldiekin jarraituz, Jam Session gaua egin zuten pasa den egubakoitzean Bergarako Laino skateparkean.

Funk Junkers taldeak ireki zuen gaua eta laupabost abesti jo ostean eta giroa apur bat berotu ostean, poliki-poliki jendea taula gainera igotzen hasi

zen. Denetariko musika entzuteko aukera izan zen bi ordu eta erdi inguru iraun zuen saioan: funky, blues eta jazz doinuak, besteak beste. Mikrofonoaren aurrean jarri eta abes-tera atera zenik ere izan zen.

Bergarako jendeaz gain inguruko herrietatik etorritakoak ere ikusi zitezkeen egubakoitzean Lainon.



Funk Junkers taldeak hasi zuen egubakoitzeko saioa. | LAINO



Guija jokoa egin zuten Eskoriatza neska-mutikoeek gaztelekuan. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA

Aste bukaera beldurgarria guija eta guzti, gaztelekuan

Beldurrezko zinema emanaldiak, tailerrak eta jokoak egin dituzte gazteek

ARRITXU BARRUSO | ESKORIATZA

Halloween gaua aprobetxatuz aste bukaera beldurgarria ospatu dute Eskoriatzako gaztelekuan, eta benetan iluna eta beldurgarria izan da asteburua bertan.

Egubakoitzean gore tailerra egin zuten eta zapatuan gau beltza ospatu zuten. Horretarako lehenengo gaztelekua bera apaindu egin zuten itxura beldurgarria emanaz. Istorio beltzak kontatzea zen gau beltzaren asmoetako bat,

baina Eskoriatzako neska-mutikoeek zerbait gehiago egin nahi zuten *espiritismo* saioa egin zuten. Gaztelekuko arduradunen esanetan gaztelekuek eurak presatatu zuten guztia: "Pasa den urtean kanposantura joan ziren eta guija jokoa egin zuten bertan. Aurtentzako kanposantura joan gabe hementxe egin dute. Eurak presatatu dute guztia, baina guijarako taula ere. Gu beldurtiegiak gara horrelako gauzarako".

Beldurrezko aste bukaera amaitzeko atzo, domeka, beldurrezko filma eskaini zuten.

Astebururo ekintzak

Oraingoa beldurrezkoa izan da, baina Eskoriatzako gaztelekuan astebururo burutzen dira ekintzak. Hurrengo domekan, esaterako, Wii kontsolarekin jolasteko aukera izango da. Arduradunak herriko gaztelekuek animatu nahi dituzte ekintzetan parte hartzera.



JAGOBA DOMINGO

BERGARA ETA ARRASATE

Kanposantuak lorez jantzi ziren eguenean

Urtero moduan Domu Santu egunez ibarreko hilerriak jendez bete ziren. Kasu gehienetan egun osoan zehar zabalik egon ziren hilerriak eta Arrasaten, esaterako, autobus urbanoak geldialdi bereziak egin zituen San Kristobal hilerrian. Domu Santu eguna pasata, koloretsu eta dotore-dotore daude orain Debagoieneko kanposantuak.



J.D.

Dorleta Martinez | Medikua

"Fibromialgiak eta halako gaitzek gure bizimodua zalantzan jartzen dute"

- ▶ Gure inguruneak eragindako gaitzak ardatz dituen liburua atera berri du
- ▶ Azaroaren 1a ezkerro Indian dago, medikuntza aiurbedikoa ezagutzen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

20 urtez medikuntza tradizionalan lan egin arren, Dorleta Martinez (Arrasate, 1963) betidanik interesatu da medikuntza alternatiboaz. Joan den astean *Fibromialgia y otras enfermedades ambientales* izenburu duen liburua aurkeztu zuen Kulturaten, lepo bete zen areto nagusian. Liburua salgai dago Elkar liburu dendan. Azaroaren 1a ezkerro Indian dago, medikuntza aiurbedikoa gertutik ezagutzeko.

Zure lehen lana idazle moduan. Zerk bultzatu zintuen liburua idaztera?

Osasuna eta elikadura ardatz izan zituen hitzaldi zikloak zerikusi zuzena izan du. Horrenbeste jende agertzea ez nuen espero eta jaso nuen informazioa ez nuen galtzerik nahi. Horregatik erabaki nuen liburua idaztea. Egia esan, ez dakit fibromialgiarekin lan egiten duten elkarrekin ados egongo diren liburuarekin, izan ere, medikuntza tradizionalaren bertsio ofizialarekin oso lotuta doaz. Hor gatazka bat dago.

Zein da, bada, gatazka hori?

Fibromialgia eta liburuan lantzen dituen beste gaixotasunak inguruneoko moduan ezagutzen dira, baina Espainia osoan gaixotasun horiek tratatzen dituzten lau mediku bakarrik daude, Bartzelonan



Dorleta Martinez Arrasaten, liburuaren aurkezpen kartelarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

eta Madrilen. Medikuntza tradizionalak nahiago du esatea gaixotasunon jatorria zein den ez dakitela. Hala, oraindik badira medikuak gaixoa psikoloarengana bidaltzen dutenak, gaitza psikologikoa baitlitzen.

Zeintzuk dira fibromialgia eta halako gaitzen sintoma nagusiak?

Muskuluetako mina, nekea, loaren gorabeherak eta alterazio kognitiboak –memoria, kontzentrazioa,

"Kasuen %90a emakumeak dira; azkenaldian umeen artean agertu da"

argitasunez pentsatzeko zailtasunak...-. Bigarren maila baten ere badira beste sintoma batzuk; azalean,

arnasketan... Finean, gorputza sistema guztiei eragiten diete. Datu esanguratsu bat da kasuen %90a emakumeak direla. Eta are kezka-garriagoa da azkenaldian umeen artean ere agertzen hasi dela. Bestalde, duela 30 urte ez ziren ezagutzen, sortzen ari diren gaixotasunen artean daude.

Zeintzuk dira faktore nagusiak?

Hainbat eta hainbat daude. Ingurune-medikuek diotenez jatorria intoxikazioan dago, elikagaietan zein ingurunean sustantzia toxiko eta uhin elektromagnetiko gehiegi ditugulako.

Hala aurkeztuta, prebentzioak ezinezkoak dirudi.

Zaila da ihes egitea, baina argi dagoena da halako gaitzek gure bizimodua zalantzan jartzen dutela. Txip aldaketa orokorra behar du gizarteak, izan ere, egoera kezka-garria da. Ingurune-medikuek aholkatzen dute toxikoen kontsumoa jaistea; euren tratamenduak, finean, desintoxikazioan oinarritzen dira. Hala ere, ohiko medikuntzan farmakoekin tratatzen dira eta produktu horietan kimikoak nagusi direnez, diagnostikoa are okerragoa izaten da. Hobetzen duen jende gehienak bide alternatiboak aukeratzen dituelako hobetzen du.

2013rako %3ko igoera orokorra ordenantza fiskaletan

J.B. | ARRASATE

Uraren, zaborraren eta ibilgailuen gaineko zergan %3ko igoera, ondasun higiezinaren gaineko zergan %2koa eta kiroldegiko zerbitzuan %5koa. Horiek dira Arrasateko udalbatzak onartu dituen 2013rako ordenantza fiskaletako aldaketa nagusiak. Aldaketok Udal Gobernuaren –Bildu eta Aralar– zein PSE-EEren aldeko botoekin eta

EAJren kontrakoekin onartu ziren urriaren 30eko osoko bilkuran.

Igoera, "derrigorrezkoa"

Igoera KPIaren igoerari erantzutera datorrela dio Udal Gobernuak: "Udal zerbitzuak gutxienez bere horretan mantendu ahal izateko derrigorrezkoa izan da tasak igoetzea. Hori bai, saiatu gara igoera hori ahalik eta orekatuena eta

herriarrari ahalik eta kalte gutxien eragingo diona izaten", uste du Iraia Sola bozeramaileak. Alderdi sozialistak aldeko botoa eman zuen, uste dutelako igoera egoera ekonomiko zailari proportzionala dela: "Arrasatearren ongizaterako minimo batzuk mantentzeko igoera aplikatu beharra dago. Ordenantza fiskalak ez badira igotzen murrizketa

gehiago datoz eta bide hori ez dugu defendatzen", uste du Aritz Arrieta PSE-EEko bozeramaileak. EAJK, berriz, kontra bozkatu zuen. Herriarrek bizi duten egoera zaila aintzat hartuta bestelako neurriak defendatzen dituzte jeltzaleek: "Soldata izoztuak zein murriztuak, langabezia... egoera oso zaila da. Eta halako igoerak beste zigor bat gehiago dira; gogoeta bat egin beharko dugu zergak ez diren beste modu batera dirua jaso ahal izateko".

Gurasolandia etzi hasiko da, hilaren 30era arte

J.B. | ARRASATE

Etzi hasiko da Gurasolandia-ren laugarren edizioa, gai ezberdinak jorratu, esperientziak trukatu eta haur zein gurasoek elkarrekin ondo pasatzeko.

Txatxilipurdiko Guraso Sailak azaldu ditu helburuak: "Batetik, hizkuntzaren transmisioan gurasoek duten garrantzia nabarmendu nahi dugu, azken finean, etorkizuneko belaunaldien hizkuntza erabileretan egungo gurasoek zerikusi nabarmena dutelako. Bestetik, gurasoei gai ezberdinen inguruko kezka eta esperientziak euskaraz elkartrukatzeko espazioa eta tartea eskaini nahi zaie".

Gurasoak protagonista

Gurasolandia osagarria da Txatxilipurdik gurasoendako dituen beste bi jarduerekin: gurasoentzako transmisio proiektua eta *guraso.com* webgunea. Egitasmoa gurasoei zuzenduta dago, eta eurak bakarrik edo hurrekin parte hartu dezakete ekintzetan. Ekintza batzuk gurasoei soilik zuzendutakoak izango dira –haurrendako zaintza zerbitzuarekin– eta beste batzuk, berriz, guraso eta haurrak elkarrekin burutzeko ekintzak. Bestalde, euskalduntze bidean dauden gurasoendako proposa dela uste dute.

EGITARAUA

Azaroak 7: Dantza familiar.

Azaroak 8: Jolasak familiar.

Azaroak 8 eta 9: Jostailu erakusketa.

Azaroak 15: Sare sozialak, arriskua eta prebentzioa.

Azaroak 16: Maitie-maitie tailerra.

Azaroak 19: Lehen sorospena.

Azaroak 20: Haurren elikadura.

Azaroak 22: Saltsa-maltsetan.

Azaroak 27: Berramesten hitzaldia.

Azaroak 30: Transmisioaren gaineko dokumentalaren aurkezpena.

Erretiroa hartu duela ospatzen

Arrasateko Eroski hipermerkatuko arrandegian hainbat urtez lan egin ostean erretiroa hartzeko ordua heldu zaio Jabi Mondragon arrasatearrari. Afaria egin zuten urriaren 28an; 77 lankide eta lankide ohi elkartu ziren: "Ederto ibili ginen, gogoratzeko moduko eguna izan zen. Onena opa diogu Jabiri etapa berrian", adierazi dute.



Elizondora joateko aukera Abaroa elkarrearen eskutik

Abaroa erretiratu elkarrekin irteera antolatu du Elizondora hilaren 15erako. Egun osoa plana egin dute, denetarik ekintzekin. Izena emateko azken eguna etzi izango da; 10:30ean da hitzordua, Etxaluzeko bulegoetan. Txartelak hilaren 13an banatuko zaizkie izena eman dutenei. Prezioa da 30 euro.



Al amanecer seguir soñando diskoarekin dator Doctor Deseo Bergara. | GOIENA

Doctor Deseo Udal Pilotalekura etorriko da azaroaren 17an

'Al amanecer seguir soñando' biraren amaiera kontzertua izango da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Kultura eskaintza zabala izango da Bergaran azaroan ere, musika emanaldi, antzerki, dantzaldi eta abarrekin. Dena dela, seguruenik jende gehien batuko duen hitzordua izango da Doctor Deseoren kontzertua. Udal Pilotalekuan izango da azaroaren 17an 21:30ean hasita. Hain justu ere, *Al amanecer seguir soñando* biraren azken kontzertua eskainiko du talde bizkaitarrak Bergaran. Udalak Hontza produkzio etxearekin batera antolatutako kontzertua da eta sarrerek 15 eta 22 euro artean balioko dute. Honako

leketan erosi ahalko dira: Bergaran kultura etxean, Etxagin eta Bulen; Elorrión Parra tabernan eta Arrasaten Taupa tabernan. Horrez gain, Internet en ere erosi ahalko dira www.kulturalive.com webgunean.

Dantza ikuskizunak

Bestalde, Zabalotegi aretoan dantza saioek protagonismo berezia izango dute azaroan. Hilaren 11n *Papiroflexia* dantza emanaldia egingo da gaztetxoendako eta 24an berriz *Minimon* dantza ikuskizuna. Gaztetxoendako Dj jaialdia ere egongo da azaroaren 17an.

Horrez gain azaroaren 30ean Elgoibarko Taupada antzerki eskolak *Rusini* antzezalana eskainiko du Zabalotegin. 22:00etan hasiko da emanaldia.

Josu Okina Aroztegin

Bukateko, Aroztegi aretoeko protagonista nagusia Josu Okina margolaria izango da. Azaroaren 2tik 25era *Afizio eta Bizio* erakusketa egongo da ikusgai. Santa Ana jauregian erakusketa egin zuenetik hamaika urte pasa dira eta Bergarako margolariak bere lanak jendaurrean erakutsiko ditu berriro ere.

OHARRAK

1933AN JAIOTAKOEN KINTADA

Azaroaren 18an elkartuko dira 12:00etako mezan eta ondoren bazkaria egingo dute Azpeitxi tabernan. Intxorta tabernan eman behar da izena 6 euro ordainduta.

1934AN JAIOTAKOEN KINTADA

14:00etan elkartuko dira txikiteoa egiteko eta 14:45ean taldeko argazkia aterako dute. Erreki tabernan eman behar da izena 12 euro ordainduta.

1945EAN JAIOTAKOEN KINTADA

Azaroaren 24an elkartuko dira eta Azpeitxi jatetxean bazkalduko dute. Bertan eman behar da izena hilaren 19a baino lehen.

AUTOBUSA BAIONAKO MANIFESTAZIORA

Azaroaren 10ean Baionan egingo de manifestaziorako autobusa 10:30ean irtengo da autobus geltokitik.

Taxi zerbitzuaren tarifa %2 igoko da 2013 urtean

A.B. | BERGARA

Pasa den astelehenean udalbatzak egindako osoko bilkuran aho batez onartu ziren 2013ko taxi zerbitzuen tarifak. AGITAX elkar-teak egindako proposamena onartu egin zuten udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiak eta horrenbestez hurrengo urtean taxi zerbitzua %2 garestiago izango da. Egunez ibilitako kilometroa 1,07 euro izango da eta gauzez 1,71 euro.

Tarifa moten ordutegia

Egun Bergaran gaueko tarifaren ordutegia 22:00etatik hurrengo goizeko 06:00ak arte da, baina Mankomunitatea osatzen duten beste udalerrien ordutegia hurrengo eguneko 07:00ak arte denez 2013an Bergaran ere ordutegi hori bera ezarriko da. Udalak uste du taxilariak herri batean zein bestean lana egiteko aukera izanda ordutegi ezberdina izateak ez duela zentzurik.



Bergarako taxia. | GOIENA

2013KO TARIFAK

TARIFA	ABIASARIA KM IBILITA	ITXARON
Egunez	3,43	1,07 20,54
Gauzez	3,43	1,71 32,29

Mariaren Lagundian El Gallinero herrikkako errealitatea ikusgai

A.B. | BERGARA

Madrilgo Cañada del Realen dagoen El Gallinero ijitoen herrikkako errealitatearekin arduratuta daude Mariaren Lagundiko Gizarte Integrazio-ko ikasleak. Bigarren mailako ikasle eta irakasleak El Gallinero izan ziren otsailean boluntario moduan hango umeekin lan egiten eta orain, azaroaren 8tik 11ra 33 ume etorriko dira Bergarara.

Bada, neska-mutikoen bisitarekin batera El Gallinero bizi duten errealitatea herrira zabaldu nahi du Mariaren Lagundiak. Hori horrela, *Vida en los Bordes. Miradas al y desde El Gallinero* izeneko argazki erakusketa ibiltaria ekarri dute ikastolara. Mariaren Lagundian bertan ikusgai egongo da azaroaren 10era arte eta interesa duten herritar guztiendako dago

zabalik goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 15:00etatik 17:30era.

Duintasuna eta edertasuna

Hainbat areto bisitatu ostean Bergarara iritsi den nazioarteko argazki erakusketak El Gallineroaren "duintasuna eta edertasuna" erakustea du helburu, baita integrazioarako bideak zabaltzea ere.

Madril, Iruña, Danimarka, Finlandia edo Argentinako argazkilarien lanek osatzen dute erakusketa, guztira hamalau artista.

Erakusketan ikusi ahal diren lanetako batzuek sari garrantzitsuak irabazi dituzte. Susana Vera iruñearrak El Gallineroaren ateratako argazki batek irabazi zuen, esaterako, Espainiako Foto-periodismo saria.



Vida en los Bordes erakusketaren kartela. | EXPOFOTOGALLINERO

Yoga eskoletarako talde berriak osatuko dira eta hilaren 12an saio irekia egingo dute 18:30ean

Udaleko kirol zerbitzuak antolatuta ikasturte hasieran yoga saio irekiak egin ziren Agorrosinen, baina hiru talde baino ez ziren osatu. Ondoren, pixkanaka pixkanaka jendea hurbiltzen hasi da yoga orduengatik galdezka eta berriro ere deialdia egitea erabaki dute. Saio irekia egingo dute berriz azaroaren 12an eta izena emateko epea zabalik egongo da azaroaren 16ra arte.

Mari Carmen Laskurain margolari bergararrak erakusketa ipini du Dixula tabernan

Duela hamabost urte inguru hasi zen Mari Carmen Lascurain bergararra margotzen. Bearteko bazkidea da eta Juanjo Altuna du irakasle. Azken urteetan erakusketa bat baino gehiago egin du eta Beartek urtero antolatzen duen erakusketan ere parte hartu izan du. Orain Dixula tabernan erakutsiko ditu bere margolanak. Azaro guztian zehar ikusi ahalko dira Lascurainen lanak. Zazpi olioizko margolanek osatzen dute erakusketa.

Sortu martxan ipintzeko prozesua hasiko du Ezker Abertzaleak eguazteneko ekitaldiarekin

Begarako Ezker Abertzalea Sortu indar politikoa martxan jartzeko prozesua abian jartzera doa. Horretarako, aurkezpen ekitaldia antolatu dute eguazteneko Irizar Jauregian 19:00etan. Lehenengo argazki herrikoia aterako dute eta ondoren argazki historikoen laguntzaz iraganera begira ipiniko dira. Amaitzeko Mikel Zubimendik *Iragana gogoan, etorkizuneko aukera Sortu* hitzaldia eskainiko du.



Irakurketa-klubak iaz egindako saioa Oñatiko haur liburutegian. | OÑATIKO KULTURA ETXEA

Eguaztenean ekingo diote Irakurketa-klubari

Azaroaren 7an, 28an eta abenduaren 19an egingo dira hiru saioak haur liburutegian, arratsaldez

MAIDER ARREGI | OÑATI

Bularretik Mintzora egitasmoaren eskutik, Irakurketa-kluba ekimenari hasiera emango zaio asteon, eguaztenean. Aurten, hirugarrenez egingo dute. Sekulako harrera izan du eta dagoeneko 15 plazak beteta daude. "Oso gustura gaude ekimen honek daukan harrera ikusita. Aurten ere plazak bete egin dira eta 15 ume eta 15 guraso izango ditugu eguaztenean".

Irakurketa-klubetan gurasoek eta haurrek denbora bat konpartitzen dute, elkarrekin; helburua da irakurzaletasuna bultzatzea azaroa eta abendua bitartean

egingo diren hiru saioetan. Galzagorri Elkarteko eskarmentudun profesionalek gidaturiko saioak dira.

3 eta 5 urte arteko umeendako Hezitzaileek, gurasoek eta 3 eta 5 urte bitarteko haurrek ariketa ezberdinak egingo dituzte elkarrekin.

Tartean, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuen komentarioak eta gomendioak jaso eta egin ahal izango dituzte.

Horrek guztiak daukan beste helburu bat da liburuez gozatzen ikastea eta kalitatezko literatu-

raren biografia osatzen joatearen artean, elkarlanean betiere, hain zuzen ere.

Sorpresak ere izango dira tartean, ikuskizun xume eta motibagarri batekin emango baitzaio amaiera saio bakoitzari. Batzuetan, marrazki bizidunen ikuskizunaz gozatu ahal izango dute haurrek; beste batzuetan, aldiz, Itzal Txineskoz prestatutakoa izango da; eta, tarteka, antzezlanak ere egingo dituzte.

Informazio guztia sarean izango duzue Bularretik Mintzora ekimenak duen webgunean: www.bularretikmintzora.org/irakurketa-klubak.

Helburuak

Honakoak dira egitasmo berezi horrekin, besteak beste, lortu nahi diren helburu nagusiak: hezitzaile, guraso eta haurren artean irakurketa sustatzea; kalitatezko euskal bibliografia ezagutzeko gurasoen, hezitzaileen eta haurren arteko irakurketa giroa sortzea; guraso eta hezitzaileak ozenki irakurtzen trebatzea eta haurrek giro lasaian gozatu dezaten lortzea.

Ondorio nagusiak

Bularretik Mintzora programak dagoeneko 2011ra arteko saioen ondorioak kaleratu ditu. Tartean, Oñatin egindako saioen ondorioak. Arduradunen arabera, hobekuntza nabarmena izan dute zenbait esparruk. Hala, irakurketarekiko jarrera hobetu da; ipuinak kontatzeko estrategiak ugaritu dira; mailagaren erabilpena eta baliabideen mota hobetu da; eta HGLko baliabide eta ezagutza mailak asko hobetu dira, besteak beste.

"Izan ere, ondorioztatutako hobekuntzak eta aurrerapausoak adierazgarriak dira. Haurraren arreta iraupena handitzea lortzen da, eta haur kantak abesten dira gurasoekin batera; liburutegietara joatearen maiztasuna ere handitu egiten dela nabarmendu gura dugu", diote Bularretik Mintzora ekimeneko arduradunek.

Laburtuz, 16 aldagaieetatik, 12tan jaso direla hobekuntza nabariak eta ugariak azpimarratu nahi izan dituzte. "Orokorrean, esan daiteke, bada, irakurzaletasuna finkatzen ari dela ebaluatua izan diren herri horietako familietan; tartean Oñatin, noski", azpimarratu dute.

Hiru saio

Aipatu moduan, hiru saio izango dira: lehena eguaztenean, azaroaren 7an; bigarrena azaroaren 28an; eta hirugarrena abenduaren 19an, haur liburutegian. Ordu eta erdi inguruko saioak izango dira eta arratsaldez egingo dira, 18:00etan hasita. Guztira, 15 haur eta 15 gurasok parte hartuko dute.

Krisiaren aurrean, ekintzaile kopuruak gora

O.E. | OÑATI

Azken bi urteotan gora egin du Oñatin ekintzaile kopuruak. Hala, Jesus Maria Ugarte Sozioekonomiako udal teknikariak emandako datuen arabera, 2010ean 15 enpresa martxan jartzeko proposamenak jaso zituzten eta 18.400 euro bideratu zituzten laguntzetan; 2011n, 19 proiektu eta 32.600 euro; eta 2012an, 23 ideia aurkeztu dituzte herritarrek, oraingoz. Azken horietatik sei gauzatu dira dagoeneko.

Udalak laguntza ezberdinak eskaintzen dizkio ekintzaile berriari. Batetik, ideia hori aztertzeko behar dituen baliabideak eskaintzen dizkio, laguntza tekniko zein ekonomikoa. Proiektua enpresa bihurtzen bada, dirulaguntzak izango ditu sortzen duen lanpostu bakoitzeko. Horrez gain, Olaburu zentroan dauden lokalak ere ekintzaileen eskura jartzen ditu Udalak. Tamaina askotariko sei bulego eta zortzi tailer daude Olaburun. Formazioarako ikastaroak ere eskaintzen dituzte han.

%7,8ko langabezia

Josu Lizarralde Sozioekonomiako zinegotziak gaineratu duen moduan, "kezkarria da Debagoieneko langabezia tasa. Datuen arabera, %10eko tasa du bailarak eta Oñatik, %7,8koa". Enpleguak sortzeko proiektu berriak aurkeztuko ditu Udalak.

Musika, hitzaldia eta antzerkia erretiratuen aste kulturalan

Aste kulturala hasiko dute gaur erretiratuek. Gaur, Pake Lekuko Aloña abesbatzak eta Aretxabelako Basotxok kontzertua emango dute, 18:00etan, agustindarren elizan. Bihar, Jose Antonio Aspiazuk arbasoen barruko arropari buruzko hitzaldia egingo du egoitzan, 17:30ean, eta egubakoitzean Ikusi Makusik azken lana aurkeztuko du.

Googleko tresnak ezagutzeko aukera azaroan KZgunean

Interneti buruzko oinarriko eskolak ez ezik, bestelakoak ere emango dituzte azaroan KZgunean. Horien artean daude: Google tresnak ezagutzeko grafiko aplikazioak, sare sozialak, software librea eta IT txartelak. Edozein informaziotarako edo izena emateko: 943 02 36 72.

100 urte bete ditu Francisca Blazquezek

Urriaren 28an 100 urte bete zituen Francisca Blazquezek. Macoteran (Salamanca) jaio zen. 10 seme-alaba ditu, 23 biloba eta 10 birbiloba. Urtebetetze egunean, Udalaren oroigarria jaso zuen alkatearen eskutik, eta, eguna borobiltzeko, Santa Anan meza entzun zuen etxearekin eta Etxeaundin bazkaldu. Zorionak!



JOSE MUGARZA

ESKORIATZA

Ordenantza fiskalek %3,1eko igoera izango dute datorren urtean

2011ko irailtik 2012ko irailera arteko KPI %3,1 izan dela hartu dute kontuan irizpide hori jarraitzeko

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituzten Eskoriatzarako 2013rako ordenantza fiskalak.

Tasak eta zergak

Tasei dagokienez, gehienei igoera hori aplikatuko zaie; hauei, esaterako: udal hilerriko zerbitzuei, estolderiari eta kirol instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoari. Hala ere, badira salbuespenak: ura %4,5 igo dute. Izan ere, iaz Ur Kontsortzioak fakturazioa %8 igo bazuen ere, zerbitzuaren erabiltzaileei bakarrik %4,5 igo zitzaion.

Zaborraren tasari Mankomunitateak aplikatutako igoera jarretza erabaki dute, eta, beraz, %3 igo da. Autokonposta egiten dutenek, gainera, %25eko hobaria izango dutela azaldu zuen alkateak.

Zergek, orokorrean, guztiek izango dute %3,1eko igoera. Eta onartu zuten beste kontu bat izan zen babes ofizialeko etxebizitzentzat aurreikusitako hobariak kentzea.

Bestalde, etxebizitza hutsentzako indarrean dagoen ordenantzan aurreikusitako erretegia %100era aldatzea ere erabaki zuten. Alkateak esan zuen etxebizitzaren inguruan dagoen espekulazioaren aurka egiteko modu bat dela uste duela eta hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko formulak bilatzen saiatu beharra dagoela.



Martitzeneko ezohiko osoko bilkura. | A.T.

Oposizioa

Gobernuaren proposamenak Bilduko, elizateetako eta PSEren aldeko zortzi botorekin; eta kontrako EAJren eta Ezker Anitzaren bi botorekin egin zuen aurre-erabakia.

EAJko Aitor Urrutia zinegotziak salatu zuen ordenantza fiskalak igotzeko KPIaren igoera irizpide bezala hartzea modu automatikoan jokatzea dela eta "era errazean" egindako lana dela. Salatu zuen baita ere, zaborraren tasa %3 igotzea proposatu dutela Mankomunitatetik, baina hasierako asmoa %6,4 igo-

tzea zela, eta ondorioz, Udalak %3,4ko zuloa egingo lukeela egotzi zuen. Horren atzean motibazio politiko "argia" dagoela gaineratu zuen Urrutiak eta atez atekoaren benetako kostua gordetzea salatu zion Udal gobernuari.

Ezker Anitzako zinegotzi Juan Luis Merinori, %3,1eko igoera lartxo iruditzen zaio: "%3,1eko igoera langileei pixka bat zigortzea iruditzen zait eta nik proposatu dut %2,7ko igoera egitea Donostian onartu den bezala. Baina gero badaude berezitasun batzuk eta alegazioak aurkeztuko ditugu" esan zuen Merinok.

ARETXABALETA

Emakumeen Birako etapa bat Aretxabaletera

Aretxabaleta Kirol Elkarteak hasi berri duen denboraldiko egitasmoen artean dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
2012-2013 denboraldirako dituen asmoen berri eman gura izan du Aretxabaleta kirol elkarteak egunotan, eta Txirrindularitza batzordeak nobedade handia iragarri du: Emakumeen Bira nazioarteko txirrindulari lasterketaren etapa bat, bigarrena, gurean jokatuko da ekainaren 7an. Estatuko bi talde eta nazioarteko 16 etorriko dira, tartean munduko txapelduna.

Gainera, Andramaixetan Leintz bailarako 75. itzulia jokatuko dute.

Plan estrategikoa

Kirol elkarteko presidente Juan Mari Enekotegik, ostera, futbolan dituzten asmoen berri eman du. 2010-2014 plan estrategikoaren arabera dabilzala lanean jakinarazi du, eta joan den denboraldian egindakoak gogorazi: Eskua proiektua; elkarte-kide bat Gipuzkoako Federazioan; "esker on" proiektua abian; Leixargarateko aterpetxea konpondu; elkartearen estatutuak moldatu beste kirol batzuei zabaltzeko; eta kirol eta teknikari alorreko egitura aldatu.

Plan estrategikoan epe ertain eta luzeko proiektuak dituzte jasota eta aurreko denboraldian abian jarritako hainbat oraingoan bukatuko dituzte, horien artean: elkarte eredu definitu (Aloña eredu hartuta); eredu juridikoa eta soziala eguneratu; herriko kirol guztia bateratuko duen elkarte izateko Udalare-

kin lan egin; eta zuzendaritza batzorde eredu aldatu. Horren harira zera argitu du Enekotegik: "Batzordeko kideen %30 emakumeak dira; 30 urtez azpikoak beste %30; eta %50ek ez dute seme-alabarik UDAn. Gazteak sartu ditugu elkartearen gidaritzan lekukoa hartu eta jarraipena emateko".

Publizitatea %80 jaitsi

Elkartearen egoera ekonomikoa ez dela txarra jakinarazi du eta helburu nagusia dela ondoren datorren zuzendaritzari "inola-ko zorrik" ez ustea. UDaren ekonomia arloak lau zutabe ditu: bazkideak eta gurasoak; ekitaldiak, loteria, taberna...; diru-laguntzak; eta publizitatea. Azken hori %80 murriztu da: "Eskerrak eman gura diegu babesle guztiei eta esfortzua hori egiten jarrai dezatela eskatu". Jaitsiera hori osatzeko ekitaldi gehiago egingo dituzte.

Saskibaloia eskola

Saskibaloia eskola abian jartzeko asmoa du UDAn. 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutilendako izango da eta datorren denboraldian hasiko dituzte eskolak. Arrasateko Ointxe eta Eskoriatzako saskibaloia elkartearekin elkarlanean jardungo dute horretarako.

Bestalde, futbol eskolan neska gura ditu UDAn, emakumeen futbolaren oinarriak jartzen hasteko. Hortaz, animatzeko dei egin diete.

"Batzordeko %30 gazteak dira, gidaritzan lekukoa har dezaten"

"Eskerrik asko babesleei, eta esfortzua egiten jarraitzeko eskatu"

ARETXABALETA/ESKORIATZA

Dagoeneko ireki dute abenduan zehar egiten diren aldi baterako egonaldietan izena emateko epea

Adinekoei zuzenduta abenduan egiten diren aldi baterako egonaldietan izena emateko epea ireki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta zenbait irizpide jakinarazi ditu. Abenduko lehen hamabostaldirako, azaroaren 16a baino lehen eman behar da izena eta bigarreneko, berriz, azaroaren 26a baino lehen. Epez kanpoko eskaerei, leku libreak geratzen diren neurrian esleituko zaie plaza. Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin behar da eskaera.

ESKORIATZA

Aretxabaleto KZguneak ordutegi berriarekin hasiko du azaroa eta goizez irekiko ditu ateak

Aretxabaleto KZguneak ordutegi berria izango du azaroan. Astelehenetik egubakoitzera goizetan irekiko dutela jakinaraziko dute, 09:00etatik 13:00ak bitartean. Ikastaro ezberdinak eskainiko dituzte: *Oinarrizko Internet*, *Sare sozialak*, *Irudia eta soinua*, *Software librea*, *e-administrazioa* eta *It xartela*. Informazio gehiago jasotzeko, 943 02 36 14 zenbakira deitu, *tutor.aretxabaleta@kzgunea.net* helbidera idatzi edo *www.kzgunea.net* kontsultatu.

ARETXABALETA

Miren Carrillo, Aretxarteren azken saritua

Miren Carrillo Amutxastegi izan da Aretxarte merkatarien elkartetik saria jaso duen azken pertsona. Carrillok, Gemes edertze aretoan laser saio bat egitearren, hauxe irabazi du: Begira argazki-dendan 50 eurotan baloratutako estudioko bost argazki. Carrillo pozik dago jaso duen sariarengatik.



ARETXARTE



Herritar batek San Roke osteko oinezkoendako bidea txukuntzeko eskaera egin du. | LZ

ELGETA

Diru sarreraren jaitsiera garrantzitsuak baldintzatuko du 2013ko udal aurrekontua

Irizpideak izango dira "mailegu berririk ez eskatzea, Udalaren gastua egongo diren diru-sarreretara egokitzea eta zerga politika jasangarria bultzatzea"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zortzi lagun elkartu ziren eguaztenez 2013ko aurrekontuaren inguruan Udalak antolatutako batzar irekian; bost zinegotziak ziren, eta bi udal langileak. Herritar gutxi bertaratu arren, Oxel Erostarbe alkateak Udalaren egoeraren gaineko informazio ugari eman zuen.

Zorra 1.107.069 euro

"Elgetako Udalak 1.107.069 euroko zorra du", esan zuen Erostarbek. Hala, zor bizia %62,98 da. "Ez da zor txikia", esan zuen alkateak, "eta 2013an Udalak 207.091 euro amortizatu beharko ditu bai mailegutuan bai Foru Funtseko itzulketa egiteko". Aurrekontuaren gastuetan, beraz, diru kopuru hori aurreikusitako beharko da. "Irizpidea izango da mailegu gehiago ez eskatzea, gastua egon-

go diren diru-sarreretara egokitzeta, eta zerga politika jasangarri bat bultzatzea", azaldu zuen. Oinarriko zerbitzuei eta herriko elkarten dirulaguntzei dagokien irizpidea da mantentzea.

Ordenantza fiskalak %3 gora

Eraikuntzarekin eta jarduera ekonomikoarekin lotutako zergetatik Udalak aurten iaz baino diru gutxiago jasotzea aurreikusten du. Ordenantza fiskalei dagokienean, berriz, hasierako planteamendua da KPIa igotzea; %3, hain zuzen ere. Erabakitzeke dago, baina zaborren tasa gehiago igo daiteke: %3 eta %6,4 artean. Eta zergen kapitulu honetan bi berrikuntza aipatu zituen alkateak: inor errolatuta ez dagoen etxebizitzetako %150eko errekarua aplikatzea, eta IAE zerga urtean milioi bat eurotik gora fakturatzen

duten enpresei ere aplikatzea. Elgetan hamar bat enpresa dira, eta neurriak 10.000 bat euro gehiago biltzea ekarriko luke.

Inbertsioetarako 60.000 euro

Erostarbek 2013rako 1.500.000 euroko aurrekontua aurreikusten du —iaz baino 400.000 euro gutxiago—, eta gastua kontrolatzeko gerrikoak gastu arruntean eta inbertsioetan estutzea proposatzen du. Hala, inbertsioetarako 60.000 euro geratuko liriteke. Zazpi egitasmo aipatu zituen. Diruz lagundutakoak hiru dira: ibilbide tematikoaren proiektua, herri osorako wi-fi sarea ipintzea eta Mendikute baserrirako bidea konpontzea. Eskaerak, berriz, eskolatik eta haurreskolatik jaso dituzte. San Roke osteko bidea konpontzeko eskaera ere egin du herritar batek.

ANTZUOLA

Gazte txokoan lan egiteko begiraleak hartzeko deialdia

Euskaraz jakitea, 18tik gorakoa izatea eta Antzuolako izatea dira bete beharrekoak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Idolaz elkarteak gazte txokoan ikasturte garaian lan egiteko begiraleak hartuko ditu.

Hala, deialdia egin berri dute, eta interesa dutenek izena emateko azken eguna azaroaren 11, domeka, dute.

Bete beharreko baldintzak hauek dira: euskaraz jakitea; 18-

urtetik gorakoa izatea eta Antzuolako izatea.

IKASTAROKAK

Biodantza eta txalaparta ikastaroak antolatu dira azarorako.

Biodantza 4 eta 11 urte bitarteko umeendako ikastaroa da. Astelehenetan eskainiko da, 16:50etik 17:50era bitartean. Ira-

kaslea Mentxu Arjonilla izango da. Ordaindu beharrekoa: 12 euro hileko. Izena emateko epea azaroaren 15ean bukatuko da.

Bestetik, txalaparta jotzen ikasteko aukera ere badago. Azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean, zapatuetan eskainiko da. Ordua: 11:00etatik 13:00etara. Irakasleak: Arrasateko txalaparta elkarteak bi kide. Ordaindu beharrekoa: 24 euro ikastaro osoa. Izena emateko epea azaroaren 6an bukatzen da.

Bada, bi ikastarootan izena emateko, idatzi kultura@antzuela.net helbidera edo, bestela, udaletxera jo: 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta.

ARAMAIO

Igoa, Amilburu eta Agirre aramaioarrek hartuko dute parte Bertxokon

Kanporaketak hilaren 9an, 16an eta 23an jokatuko dira; finala, hilaren 29an, Gasteizen

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako bertsozale elkarteak zein Hala Bedik elkarlanean antolatuta eta Diputazioaren babesarekin, badator 2012ko Bertxoko sariketa. Aramaio, nola ez, izango du ordezkaria: Xabi Igoak, Paula Amilburuk eta Iker Agirrek hartuko dute parte. Hiru kanporaketa jokatuko dira, gaztetxeetan (19:30): azaroaren 9an Murgian —Igoa eta Amilburu egongo dira—, 16an Araian eta 23an Laudion —Agirrek abestuko du—. Kanporaketa bakoitzeko lehen bi sailkatuak pasako dira final handira; azaroaren 29an izango da, Gasteizko gaztetxean (22:30). Sariketarako hainbat berezitasun ditu; hona kanporaketetan bertsozaleek

egin beharko dutena: agurra kantu ezagun baten oinarritua —puntuagarria izango da—, zortziko handian zein txikian hiru bertso, bina punturi erantzuna, bakarkako bertso bat eta hiruna koplak, hiruak, *Santi Mamiñe* doinuan oinarrituta.

Gazteenei plazak emateko

Arabako bertso-mugimenduan urteroko zita bihurtu da Bertxoko sariketa. Gazteendako da, bereziki, eta helburu finkoak ditu. Horien artean, garrantzitsuena da bertsolari gazteei plazak ematea.

Era berean, Arabako entzuleei saio dinamiko, fresko eta animatuak eskaintzea ere badu helburu.



Xabi Igoa eta Paula Amilburu Bertxokon egongo dira aurten ere. | ARTXIBOA

LEINTZ GATZAGA

Eguenean onartuko dituzte Udal tasen igoerak

Bigarren hiruhilabetekoari dagokion etxeetako uraren tasa ordaintzeko epea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Urriaren 23an ziren onartzekoak ordenantza fiskalak, baina azken orduan atzeratu eta eguenean, azaroak 8, egingo dute ezohiko osoko bilkura 2013ko Udal tasa eta zergen igoerak onartzeko.

Goizean elkartuko da udalbatza (08:30) eta azken orduko aldaketarik ez badago behintzat gai bakarra landuko dute. Hala, ondasun higiezin eta ekonomia jardueren gaineko zergek, automobilen gainekoek, uraren eta zaborren tasek eta beste hainbatek igoerarik izango duten edo ez erabakiko dute. Zaborraren kasuan konpostagailu handi bi jartzeko asmoa dauka Udalak herritarren hondakin organikoak jasotzeko, baina hori egin bitartean aldaketa handiegirik ez du izango zerga horrek.

Uraren tasa ordaintzeko

Hori bai, tasa horiek onartu bitartean aurtengoak ordaindu behar dituzte herritarrek. Hala, 2012ko bigarren hiruhilabetekoari dagokion etxeetako uraren eta estolderia zerbitzuaren gaineko tasa ordaintzeko epea zabalik dago. Udaletxetik pasatu beharko dute horretarako —helbideratutako ordainagiriaren kasuan izan ezik— abenduaren 14a bitartean.

KZgunea gaur zabalik

Gaur, hilak 5, KZgunea zabalduko dute arratsaldean (16:00-20:00); azaroko lehen saioa da eta hurrengo hilaren 19an izango da. Aitor Madrid dinamizatzaileak Interneten gaineko argibideak emango dizkie bertara doazen 16 urtetik gorako gatzagarrei.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Apendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 esk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KIROLA



Jon Zabaleta (Mondra) eta Erik Aranburu (Bergara) baloia kontrolatu gura, beste talde batzuk begira dituztela. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

87. minutuan sartu zuen garaipenaren gola Bergarak

- ▶ Mojategin jokaturako derbian joko eta aukera gutxi egon ziren
- ▶ Mondrak berriro galdu zuen etxean; lau partidua galdu ditu

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Julen Iñurrategik 87. minutuan buruz sartutako gola izan zen Mondraren eta Bergararen arteko derbiak emandako aipagarriena. Ordura arte, joko, gol aukera eta emozio gutxi izan zuen derbiak. Minutu luzez euria izan zen protagonista handiena Mojategin. Futbol zelaiko gune batzuetan ura pilatu zen, baina horrek ez zuen eraginik izan jokoan. Mondra sendo irten zen atzean, baina zelai erdian jokaldiak egiteko zailtasunak izan zituen behin eta berriz. Bergara ondo kokatu zen zelaian, baina erasoan ideia garbi barik. Ezaugarri horiekin pasa ziren lehen 45 minutuak.

Iturrinoren taldeak ez zuen jaurtiketa garbirik egin lehen zatian. Mahoneroek, berriz, hiru izan zituzten, eta guztietan Imanol Cabanillas izan zen protagonista. Garbiena, 39. minutukoa izan zen.

Futbolaren bi aldeak

Bigarren zatian ez ziren gauzak aldatu. Akaso Bergarak indarra galdu zuen, eta Mondrak hartu zuen baloiaren kontrola. Baina, orduan ere aukera garbiak sortu barik. Iturrinok hainbat aldaketa egin zituen aurreko lerroetan

idea berriak sartzeko. Minutu asko egin zituzten arrasatearrek Sotoren arean, baina azken errematean ez zuten asmatu.

87. minutuko golak futbolaren bi aldeak erakutsi zituen: etxean irabazi ezinik dabilen taldearena

(Mondra) eta etxetik kanpo lehen garaipena lortzen duenarena (Bergara). Batzuk triste, eta beste batzuk pozarren.

Dena den, bi taldeek egindako lana aintzat hartuta, berdinketa litzateke justuena.

JOSU APELLANIZ | BERGARAKO JOKALARIA

"Gaurko puntuek adorea eta kemena emango digute gora begiratzeko"

Bergarako jokalaria "oso pozik" zegoen Mojategin lortutako puntuekin.

87. minutuan, baina hiru puntuak etxera.

Oso pozik gaude. Lehenengo zatian aukera batzuk sortu ditugu, baina ez dugu asmatu. Dena den, irabazi egin dugu.

Nola ikusi duzu partidua?

Lehen zatian ondo egon gara. Zelai erdian erreperatu ditugun baloiekin aurrera egin dugu zorte handi



M.B.

barik. Bigarrenean, Mondrak menderatu du baloia. Gu eskasago ibili gara, baina azken orduko golarekin irabazi dugu. **Gainera, lehen garaipena etxetik kanpo!**

Aurretik puntu bat lortu genuen UDAREN kontra eta gaur hiru. **Sailkapenean gora begira hasteko ordua da?**

Etxean sendo gabilitza eta gaurko puntuek gora begiratzeko adorea eta kemena emango digute.

IKER LOPEZ | MONDRAKO JOKALARIA

"Puntu bat merezi izan dugu, bigarren zatian egindako lanarengatik"

Burumakur eta triste hurbildu zen Iker Lopez Goienaren mikrofonoetara.

Gaur ere galdu.

Bai. Etxean ez dugu asmatzen. Kanpoan lortzen ditugun puntuak galdu egiten ditugu. Aloñari irabazi ostean, aukera ona genuen gure zaleen aurrean irabazteko, baina ez dugu asmatu.

Ze falta izan zaio Mondrari?

Bigarren zatian lehenengoan baino hobeto jokatu dugu, baina ez



M.B.

dugu aukera garbirik sortu. Dena den, bide onetik goaz eta helduko da garaipena Mojategira. Hori bai, sailkapenean gora egiteko etxetik kanpoko puntuak baino askoz gehiago behar ditugu.

Nola zaude?

Haserre bukatu dugu guztiok. Azken minutuetan gola jasotzek min handia egiten du, eta bi taldeek zer egin dugun ikusita, puntu bat merezi izan dugu-la esango nuke.

EMAITZA

MONDRA

0-1

BERGARA

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Oier, Crespo, Kevin, Erik, Zabaleta, Dueñas (Txonan, 81. min.), Lander (Pavon, 73. min.), Iker, Andoni, Gonzalez eta Azkarate (Zaitegi, 59. min.).

Bergara: Soto, Apellaniz, Urrutia, Nafarrate, Iñurrategi, Aranburu, Cabanillas (Elorriaga, 90. min), Beitia (Retes, 89. min.), Matxo, Baltzategi (valero, 74. min.) eta Crespo.

Oharra: Arrasate eta Bergarako zale asko Mojategiko harmailetan.

FUTBOLA

Aretxabaletak eta Urolak bana berdindu zuten

Zumarragako taldea aurreratu zen Ibarra kiroldegian

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Aloñaren kontra jokaturako partiduan izan ezik, gainerakoetan UDA galtzen hasi da etxeko partiduetan. Batzuetan gai izan da irabazteko, baina Urolaren kontra minutuak falta izan zitzaizkion. Zumarragako taldea aurreratu zen 74. minutuan. Aretxabaletarrak gauza izan ziren berdinakaren gola egiteko: Oxel Apraitzek, buruz berdindu zuen 83. minutuan. "Beste behin galtzen hasi gara. Ez dakigu Urolaren kontra puntu bat irabazi, edo bi galdu ditugun", esan zigun bukaeran Igor Arenatzak.

Urola sendo, atzeko lerroan

Lehen zatia nahiko parekatua izan zen. UDAk ez zuen baloia menderatu, eta Urolaren areara hurbildu arren, ez zuen gol aukerarik sortu. Zumarragakoak sendo kokatu ziren zelaian, batez ere, atzeko lerroan. Defentsa indartsua dutela erakutsi zuten. Horren aurrean, Alberto Albistegiren taldeak ez zuen eraso antolatzeko bide garbirik topatu. "Une askotan antsietate puntu bat izan dugu. Ez gara gai izan Urolaren defentsa zultzeko. Ez dugu asmatu azken errematean", esan zuten.

Bigarrean aldiz, askoz hobeto jokatu zuen UDAk, baina, orain arteko partiduetan gertatu bezala, Urolak gol aukera bat egin eta gola sartu zuen.

Handik aurrera, urduritasuna nagusitu zen aretxabaletarren artean. Sailkapenaren arabera UDA Urola baino talde sendoagoa da, baina emaitzak kontrakoak erakusten zuten.

Albistegik lerroak aurreratu zituen, gutxienez berdinketa lortzeko asmoz. Helburua bete zuten etxekoek 83. minutuan. Baina beste behin, asko sufritu zuen Aretxabaletak.



Haritz Igartua, UDAko jokalaria, baloia oinetan duela eta Urolaren jokalariez inguratuta. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Galdu arren, itxura ona erakutsi zuen Aloñak Touringen kontrako lehia

M.B. | OÑATI

Aloñak Mondrarekin bezala, galdu egin zuen Touringen kontra: 2-0. Baina, Errenterian jokaturako partiduan itxura ona, oso ona erakutsi zuten oñatiarrek. "Partidu ona jokatu dugu, baina ez dugu asmatu ate aurrean. Touringek gehiegizko saria eraman duela uste dut", esan zigun Andoni Azkargortak.

Bigarrean Aloña nagusi

Aloña Mendi ondo kokatu zen zelaian, baina lehiari erritmoa hartu aurretik, Touringek lehen gola sartu zuen. Oñatiarrek ez ziren urduri ipini. Euren jokoa egiten jarraitu zuten. Lehen zatiko gol aukera garbienak Aloñak sortu zituen: baloi bat zutoinera eta kórner erdiraketa baten egin-dako errematea kanpora.

Bigarren zatia oñatiarrek menderatu zuten: zelai erdiaren eta baloiaren jabe egin ziren. Partidua kontrolatu arren, erasoan ez zuten asmatu. "Azken metroetan kale egiten dugu. Hor asmatzea falta zaigu. Dena den, bide onetik goaz, eta emaitzak helduko dira", esan zigun Azkargortak.

Luzapeneko azken minutuan, 93.ean, kórner erdiraketa errematatzeko, Aloñako jokari guztiak sartu ziren Touringen arean. Aldarzteza eta kontraeraso aprobetxatu zuten errenteriarrek bigarrean egiteko.

FUTBOLA

Antzuolak sendo jarraitzen du lehen lekuan, Soraluzei irabazita

Lehen Erregional mailako Antzuolak lider sendoa dela erakutsi zuen aste bukaeran. Soraluzei 3-0 irabazi eta lehen lekuan jarraitzen du 17 punturekin.

Hurrengo aste bukaeran, bigarren lekuan dagoen Getariakoren kontra jokaturako dute, Getarian, Irabaziz gero bien arteko aldea handitu egingo dute antzuolarrak.

FUTBOLA

Mondrako neskek puntu bat lortu zuten Zarautzen zelaian

Mondrako neskek beste puntu bat lortu zuten aste bukaeran. Zarautzen zelaian 3-3 berdindu zuten eta dagoeneko zazpi puntu dituzte sailkapenean, zortzi jardunaldi jokatu ondoren.

Aste bukaeran Mojategin jokaturako dute, oraindik punturik lortu ez duen Castejon taldearen kontra.

FUTBOLA

Ohorezko mailako gazteen derbia Mondrarendako

Ohorezko mailan diharduten Mondrako eta Bergarako gazte mailako taldeek derbia jokatu zuten hilaren 1ean Ipintzan. Arrasatearrek irabazi zuten norgehiagoka 1-2, eta bederatzi puntuarekin daude sailkapenean. Bestalde, maila berean diharduen Aloñak Lagun Onak liderraren etxean irabazi zuen: 0-1.

ESKUBALOIA

Bigarren partidua galduta, dinamika horri buelta emateko beharra du Bergarak

Egiaren kontrako partidurako talde-lana beharko dutela azpimarratu du Muniategik



UBANE MADERA | BERGARA

Lehenengo zatian bi taldeak parekatuta ibili arren, bigarren zati hasierako Ereintzaren aldeko lauko partzialak baldintzatu zuten atzo Bergarak Errenterian kontra jokaturako partidua.

Markagailuko desberdintasuna gainditu ezinda zebiltzala ikusita, urduritasuna nagusitu zen etxekoen artean, eta partidua azkeneko zatian hutsuneak, kaleratzeak eta burugabeko jokoa nagusitu zen. Hortxe joan zitzaien partidua, Josetxo Muniategik, mahoneroen entrenatzaileak berak nabarmendu moduan: "Hasiera txarra izan dugu bigarren zatian, hiru-lauko aldearekin ibili dira eurak, eta antsietatea sartu zaigu. Jokatu dugu hamar minutu burugabe: abiadura larregirekin,

akats handiekin...nik uste dut hor joan zaigula partidua. Eta gainera, izan dugu desgaste handia emaitza txikirako: korrika asko, burugabe, erabaki asko gaizki hartuta, kaleratzeak... Fase horretan arbitroek ere ez dute asmatu nire ustez, akats nabarmenak izan dira gure kontra, jokoa moteldu egin dute eurek, eta hori ez dute zigortu. Eta hor bost goleko aldea hartu dutenean...".

Orokorrean, dena den, atzoko "emaitza txarra" izan dela onartu du Muniategik: "Irabazteko partidua zena galdu egin dugu, eta arazoak ikusten dira, ze azkeneko bi partidua galdu egin ditugu. Orain, dinamika honetatik irteteko konfiantza behar dugu eta datorren astean partidua zaila dugu".

Irabazi beharra orain

Gauzak horrela, datorren asteko partidurako talde-lana indartu beharra dutela azpimarratu zuten Muniategik jokalariei partidua amaieran: "Taldea joko gehiago behar dugu. Ez dugu indibidualitate oso onik eta talde lana indartu egin behar dugu". Donostiako Egia taldea izango dute aurrez aurre.



Plazaola areaz kanpoko jaurtiketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA

Jipoi ederra jaso zuten Elgoibarren Aloñako senior mailako neskek

Euskadiko senior mailan diharduten Aloñako neskek jipoi ederra jaso zuten Elgoibarren kontrako partiduan: 37-11 galdu zuten. Ainhoa Unamunok zuzentzen duen taldeak ez zuen aukerarik izan partiduan sartuta egoteko ere. Oñatiarren ahul jokatu zuten defentsan eta erasoan ez zuten asmatu.

ESKUBALOIA

Harrobiko taldeek ez dute jardunaldirik izan aste bukaeran

Domu Santu eguneko zubia tarteko, Gipuzkoako txapelketatan diharduten harrobiko taldeek ez dute jardunaldirik izan. Euskadiko mailako txapelketatan lehia batzuk jokatu dituzte, baina gainerako guztiek atsedean izan dute. Hurrengo aste bukaeran, hilaren 10ean eta 11an, normaltasunez jokaturako dute.



Ointxe elkarteko saskibalo talde guztiak: entrenatzaileak, jokariak eta arduradunak, Arrasateko plazan. | MIREIA BIKUÑA

AURKEZPENA

Saskibaloiak bermea dauka Arrasaten Ointxeko taldeekin

- ▶ Lehenengo nazional mailatik saskibaloi eskolara arte, 14 talde dituzte
- ▶ Guztira, 150 jokalarirekin dihardute lanean, Josu Larreategirekin

Denboraldiko bosgarren partidua irabazi zuen MUK

Bide onetik doaz Josu Larreategiren mutilak. Azken asteotako irudi ona erakutsiz, mendean hartu zuten Biok Zerbitzuak taldea Iturripen: 90-83. Indartsu eta kementsu dihardute arrasatearrek eta hori antzeman egiten da jokoan eta emaitzetan. Zapatuan ere talde lan ona eginez, irabazi zuten. Bide horretan hurrengo pausua, aste bukaeran izango dute Tabirako liderraren kontra. Durangon erakutsi beharko du MUK zertarako gai den Lehen Nazional mailan.



MUKo jokariak eta entrenatzailea. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasaten ez daukate saskibaloien etorkizunarekin arduratzeko motiborik. Beste behin, Ointxe saskibalo elkarteak gauzak ondo egiten dituela erakutsi zuen zapatuan. 2102-13 denboraldirako taldeen aurkezpen ekitaldia egin zuten eta 14 talde dituztela erakutsi zuten herritarren aurrean. Lehenengo Nazional mailatik hasi eta saskibaloi eskolara arte: senior mailako hiru, gazte mailako bi, hiruna kadete eta infantil mailatan, eta saskibaloi eskolako bi alebinak eta

GORKA ZURUTUTZA
KIROL ZUZENDARIA

"Saskibaloia herritarrei erakutsi nahi izan diegu"

Ointxeko taldeak ezagutzera emateko helburuarekin egin zuten aurkezpena.



MIREIA BIKUÑA

14 talde. 150 jokari. Kopuru ederrak.

Bai. Gure taldeak erakustea zen helburua. Musakolaria eta Iturripera partiduak ikustera joaten ez diren herritarrei zer nolako lana egiten dugun erakutsi nahi izan diegu.

Nolako etorkizuna dauka saskibaloiak Arrasaten?

Nahiko ona. Lehen nazional mailako taldea sendotu egin da. Esperientzia hartu dute eta lan ona egiten dihardute. Bestalde, saskibalo eskola fruituak ematen hasi da. Neskatilak ere saskibaloian hasi dira, eta ezin gara kexatu. Baina lanean jarraitu behar dugu.

benjaminak. Guztira, 150 jokari. Eta horiek guztiak zuzentzen, hainbat entrenatzaile eta Josu Larreategi; bera da-eta, Ointxek orain dela hiru urte hasitako proiektuaren zutabe nagusia. "Apustu sendoa egin genuen orain dela hiru urte, eta emaitzek erakutsi digute, bide onean goazela. Josu Larreategi aukeratu genuen entrenatzaile eta bere ondoan dena da errazagoa. Jokariak eta entrenatzaileok asko ikasten dihardugu", esan zion Goienari aurkezpen ekitaldian Gorka Zurututza kirol zuzendariak.

Talde argazkiak

Zapatuko saskibalo festa 11:30ean hasi zuten Herriko plazan. Saski batzuk ipini eta jokoan ibili ziren neska-mutikoak; elkarteko jokariak direnak eta ez direnak. 12:00etan, jokoan erabiltzen dituzten kamisetak ipini eta taldekako argazkiak egin zituzten, norbere entrenatzaile eta arduradunekin. Aurkezpen ekitaldia bukatzeko bi talde argazki egin zituzten: plazan bata, eta udaletxeko eskaileratan bestea.

EBA

Bigarren garaipena Natra Oñatirendako

Santurtziren kantxan irabazi egin zuen Eneko Blancoren taldeak: 70-72

M.B. | OÑATI

Kantxa zail baten, garaipen garrantzitsua lortu zuen Natra Oñatik zapatuan. Santurtziren kontra 70-72 irabazita, ligako bi partiduak irabazi dituzte oñatarrak. "Azkenean sufritu egin dugu, baina oro har, partidu ona jokatu dugu: bai defentsan eta baita erasoan. Batez ere, kanpoko jaur-

tiketatan asmatu dugu, hirukoitana", esan zigun Eneko Blanco entrenatzaileak. Oñatarrak hiru puntuko 14 jaurtiketa egin zituzten, eta zortzi saskiratu, %60ko portzentajea lortu arte. Horrek eman zien aukera hirugarren laurdena zortzi puntuko aldearekin bukatzeko. Ordura arte, lan bikaina egin zuten.

Laugarrenean, berdinketa

Laugarren tartearren hasieran, Santurtzik 6-0ko partziala egin zuen, eta Natra Oñatik hainbat jaurtiketa huts egin zituen. Hori horrela, bizkaitarrek partidua berdindu zuten. Baina, azken bi minutuetan oñatarrak jaurtiketa libreak aprobetxatu eta irabazi egin zuten.

LEHENENGO MAILA

MUK eta Soraluze Bergarak galdu egin zuten aste bukaeran

Lehenengo mailako gure bi ordezkariak, MUK eta Soraluze Bergarak, galdu egin zuten aste bukaeran, bosgarren jardunaldian. Arrasatearrek Musakolan galdu zuten DKS donostiarren kontra, 66-73. Aldiz, Soraluze Bergarak Lezon jokatu zuen Allerruren kontra. Jipoi ederra jaso zuten mahoneroek: 86-66.

SENIOR NESKAK

Eskoriatzako neskek ezin izan zuten Andraitzen kontra

Eskoriatzako neskek Andraitzen kontra jokatu zuten zapatuan, denboraldiko laugarren jardunaldia. Galdu egin zuten legazpiarren kontra: 50-68. Hasierako minutuan parekatuak izan ziren arren, etxekoek ezin izan zuten garaipena lortu. Andraitzek erakutsi zuen, sailkapeneko bigarren lekuan zergatik dagoen.



Iban Velasco arrasatearra, Euskaltel taldeko elastiko laranjarekin. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Bihar aurkeztuko dute Iban Velasco Caja Ruraleko elastikoarekin

Aurkezpenean taldeko presidentea eta kirol zuzendaria egongo dira

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Iban Velasco arrasatearrak kolore laranja berdearengatik aldatuko du. Elastiko berriarekin ikusiko dugu bihar, martitzena, Caja Rural taldearen aurkezpenean. Ekitaldia Donostian egingo dute, Caja Ruralek Amaran duen sukurtsalean, 12:00etako ekitaldian. Biharko aurkezpen ekitaldian, txirrindulari arrasatearrarekin batera egongo dira Floren Esquisabel presidentea eta Eugenio Goikoetxea kirol zuzendaria.

Velascorekin batera beste 15 txirrindularik jantziko dute elas-

tiko berdea: iaz taldean egon ziren, Antonio Piedra, Andre Cardoso, Javier Aramendia, Marcos Gartzia, Fabricio Ferrari, Manuel Cardoso, Karol Domagalski, Yelko Gómez, Francesco Lasca eta Josue Moyano; eta fitxaketa berriak diren David Arroyo (Movistar Team), Rubén Fernández (Caja Rural amateur), Omar Fraile (Orbea), Francisco Moreno (Androni-Giocattoli), eta Amets Txurruka (Euskaltel-Euskadi).

Caja Rural taldeko txirrindulari guztiek Tuteran egingo dute urteko lehen kontzentrazioa, hilaren 9tik 11ra arte.

Laranjatic, berdera

Iban Velascok urtebeterako kontratua sinatu du Caja Ruralekin. Euskaltelen sei urte egon ondoren, Igor Gonzalez de Galdeanok taldean jarraituko ez zuela esan zion irail bukaeran.

Talde laranja atzean utzi, eta orain berdea dauka buruan, esperantzaren kolorea: "Pozik nago. Caja Ruralen beste modu batean korrituko dugu, ziklistok askeago ibiliko gara eta nire aukerak izango ditudala uste dut. Talde horretan ez dut besteendako lanik egin beharko", esan zion Goienari Iban Velascok.

TXIRRINDULARITZA

Emakumeen Birako etapa bat Aretxabaletan hasi eta bukatuko da

M.B. | ARETXABALETA

2013ko Emakumeen Bira txirrindulari lasterketa gurera helduko da. Hain justu ere, ekainaren 7an helduko dira ziklistak Aretxabaletara. Probako bigarren etapa izango da.

Estatukoak eta nazioartekoak UDA eta Udalaren arteko elkarlanari esker etorriko dira emakumezko txirrindulariak gurera.

Iragarri dute estatuko bi talde eta nazioartetik etorritako 16 talde izango direla bertan. Etapa hasi aurreko sinadura ekitaldirako gunea Herriko plazan jarriko dute eta ondoren lasterketa hasiko dute.

Andramaixetan jokatzeko den Leintz bailarako itzuliaren antzeko ibilbidea izango du Emakumeen Birako etapa horrek: Leintz Gatzaga, Eskoriatza eta Arrasate arte-

ko ibilbidean hainbat buelta. "Herri barrutik pasatuko dira eta azken bueltan Gatzagako errepide zaharra igoko dute", jakinarazi zuen Manolo Zubillaga UDAko txirrindulari batzordeko arduradunak.

75. urteurrena

Bestalde, Andramaixetan, 2013ko abuztuaren, Leintz bailarako 75. txirrindulari itzulia egingo da. 75. urteurrena izanik behar bezala ospatu gura dute UDAko kideek eta hurrengo hilabeteetan joango dira zehazten egun horretako kontuak.

MENDIA

Eskia, parapentea eta mendi bizikleta protagonista Oñatiko hamabostaldian

Hilaren 13tik 21era egingo du Aloña Mendik

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi taldeak gertu dauka hamabostaldia. Mendia ardatz duten ikus-entzunezkoak izango dira nagusi, edo beste modu batera esanda, eskia, parapentea eta mendiko bizikleta. Hilaren 13tik 21era egingo dituzte emanaldiak kultura etxean, 19:30ean.

Gainera, hamabostaldiak irauten duen bitartean, erakusketa bat ikusgai egongo da kultura etxean, hilaren 25era arte.

Santo eta Arenatza

Lehen ikus-entzunezkoan (hilaren 13an) eskia izango da nagusi. Ian Baquerinek Pirinioetan eta Alpeetan egindako trabesiak erakutsi-

ko ditu. Hilaren 14an, Iñigo Gabiria elorrioarrak Transpirenaika nola egin duen erakutsiko du: parapentean.

Ibon Santos eta Iñaki Arenatza bergararrek, berriz, Kanadako Bigaboos inguruetara egindako bidaia erakutsiko dute hilaren 20an; eta Aloña Mendiko kideek 2012ko udaberriaren egindako Chamonix-Zermai eski zeharkaldia, hilaren 21ean.

Azkenik, hilaren 16rako, Felipe Uriartek Indiako Ladakh lurra egindako bidaia erakutsi gura dute. Dena den, oraindik konfirmatu barik dute emanaldi hori.

ARETO-FUTBOLA

Gaur da azken eguna Zaldibarko txapelketarako izena emateko

M.B. | ARRASATE

Zaldibarko areto-futbol txapelketa zapatuan, hilaren 10ean hasiko dute. Oraingo 13 taldek eman dute izena, iaz baino bi gutxiagok. Hori horrela, antolatzaileek azken deia egin dute: gaur, astelehena, azaroak 5, izena eman daiteke. Hori bai, 634 40 50 03 telefonora deituta bakarrik eman daiteke izena.

Hiru talde gutxiago

Zaldibarko txapelketaren 51. ediziorako hiru taldek ez dute izena eman: Ekaitz, Portaboleiros eta Mcawen taldeek. Aldiz, talde berri bat dago: Haizeas weah eta beste batek izena aldatu du: orain arte Dublin izan dena, Ostantz izango da aurrerantzean. Txapelketa zapatuan hasiko dute.



Bi talde Zaldibarko 2006ko txapelketan. | GOIENA

ARETO-FUTBOLA

Eskoriatzak denboraldirako lehen garaipena lortu zuen Kulullagaren kontra etxean: 8-3

Euskal Ligan diharduen Eskoriatzako taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen aste bukaeran: 8-3 menderatu zuen Kullaga etxean. Hasieratik ipini ziren aurretik: 2-0 eta 5-1 (atsedena). Bigarrenetan, bizkaitarrek bi gol egin eta 5-3ra hurbildu ziren. Urduri jarri beharreen, baina, partidua menderatu eta beste hiru gol egin zituen Eskoriatzak.

YOGA

Bergarako Agorrosinen ematen dituzten yoga saioetarako deialdi berria egin dute

Bergarako Agorrosin Ekintza Gunean yoga saioak eskaintzen dituzte. Ikasturte hasieran bost saio ipini zituzten aukeran, baina hiru talde bakarrik osatu ziren. Azkenaldian, baina, hainbat herritar ordutegiei buruz galdezka joan dira Agorrosinera, eta horregatik, deialdi berria egitea erabaki dute. Izena emateko epea gaurtik, hilak 5etik 16ra artekoa da. Hilaren 12an saio irekia egingo dute, 18:30ean, Agorrosinen.

MENDIA

Bizkaiko Biraren 12. etapa egingo dute Besaidekoek hilaren 11n: Balmasedatik Artziniegainokoa

Arrasateko Besaide Mendi taldeak gertu dauka azaroko ibilaldia: Bizkaiko Biraren 12. etapa egingo dute. Alegia, Balmasedatik Artziniegaino doana. Hilaren 11n egingo dute eta 19 kilometro ditu. Ibilaldian parte hartu gura dutenek gaur, hilak 5, bihar eta etzi eman behar dute izena Besaideko bulegoan, 19:30etik 20:30era arte. Zapatuko denboraldiko azken ibilaldia izango da. Hori horrela, bazkaria egingo dute Artziniegain.



Iñigo Gabiriak parapentearen gaineko irudiak erakutsiko ditu. | GOIENA



Dabid Gartzia helmugara heldu berri. | JOSETXO ARANTZABAL



Korrikalariak azken txanpan, Bergarako plazara iristen. | J.A.

ANTXINTXIKA KROSA

David Gartziak hirugarren garaipena jarraian Bergaran

- ▶ Aitziber Urkiola, Andres de Regil eta Ion Galarraga ere txapeldun
- ▶ Joxe Mari Barrenari omenaldi polita egin zioten amaieran

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Aurten ere, Dabid Gartzia nagusitu da Soraluze eta Bergara arteko krolean. Antxintxika triatlói taldeak antolatutako Olatz Erremerteria memorialean, azken urteotan jaun eta jabe azaldu da durangarra.

32.29 izan zen Gartziazen denbora zapatuan, hala ere lasterketa ez zuen lehenengo hasi. Ibai Alba hernaniarra hasi zen tiraka

Soraluzen hasi bezain laster, baina helmugara heltzeko 4 kilometro falta zirenean, lasterketa Gartzia eta Ariznabarreta korrikalarien arteko lehia izan zen.

Irabazleak, azken 2 kilometroetan hortzak estutu zituen erritmo oso altua markatuz, horren ondorioz bakarrik heldu zen Bergarako plazara, bertara gerturatu ziren herritarren txalo artean. Oier Ariznabar duran-

garra bigarren postuan heldu zen ibilbidearen amaierara 33.04 denborarekin eta hirugarrena, Ibai Alba izan zen 33.38ko denbora sinatuz.

Urkiola lehen emakumea

Bestalde, Aitziber Urkiola eibartarra izan zen ibilbidea amaitu zuen lehenengo emakumea 40.43ko denbora eginez. Honek ere pozik bukatu zuen atzoko eguna,

ez zuelako lasterketa irabaztea espero, eta azken txanpan herritarren indarrek aurrera jarraitzeko laguntza eman ziolako.

Patinatzaileen artean lehena, Andres De Regil izan zen, Galdakaokoak 21.06an egin zuen Soraluze eta Bergara arteko ibilbidea, eta hand-bikean ostera, Ion Galarraga izan zen helmugara heltzen lehena, 21.08ko denbora lortuz.

Antolatzaileak pozik


Guztira 434 parte hartzaile izan ditu aurtengoan Antxintxika krosak, 390 lagun korrika, 42 patinatzaile eta 2 handbike-ean, eskuekin bultzatzen den bizikletan. Aurreko urtean baino korrikalari gutxiagok parte hartu izan arren, pozik daude antolatzaileak aurten Domu Santuko zubiarekin bat egin duelako lasterketak.

Barrenari omenaldi

Sari banaketa bukatu ondoren, Antxintxika taldeko kide guztiek, Joxe Mari Barrena, 20 urtetan zehar taldeko presidentea izandakoa, omendu zuten. Lore sorta polit bat eman zioten, eta ondoren taldeko kide denak Barrena agurtzera igo ziren.

Amaitzeko aureskua dantzatu zioten eta berriz hunkitu egin zela aitortu zuten.


Hogei urteren bueltan ibili izan da Barrena taldearen buru. Atzokoan agur esan zion karguari, taldearen norabidea sortzen jarraitzeko beste kide batzuei paso emateko helburuarekin.

**GAIZKA ROMERO**
KORRIKALARIA


"Lasterketa gogorra izan da. Hasieratik aurrean egoten saiatu nahiz, baina lasterketaren erdialderako lehenengo sailkatuen erritmoa ezin izan dut jarraitu. 7. postuan geratu naiz, pozik nago gaur egindako lanarekin".

**ARANTZAZU LARRAÑAGA**
KORRIKALARIA

"Lasterketa polita izan da. Ibilbidea gogorra egiten da, baina ondo egiteko modukoa. Lasterketa taldean hasi dut, baina gutxika banandu egin gara. Emaiza ona lortu dut, sailkapeneko lehenengo postuetan sartu naizelako".

**DAVID GARTZIA**
KORRIKALARIA

"Taldeen etorri gara, baina azkenean ez dugu talde bezala parte hartu lasterketan. Lasterketa gogorra izan da, baina ia baino hobeto egon da, behintzat aurten eguraldiak lagundu egin du".

**MAITANE CHUECA ETA ITZIAR ALDEKOA**
KORRIKALARIA

"Aurretik ere proba honetan parte hartu izan dugu eta ibilbidea oso polita dela uste dugu. Hurrengo astean Behobia-Donostia lasterketa egingo dugu eta hori prestatzeko entrenamendu polita da. Gainera, lasterketa hau giro oso onean egiten da eta antolakuntzak lan bikaina egin du. Lasterketaren ia ibilbide osoa bidegorritik egiten da eta korrika egiteko leku aproposa da, gustura egiten den ibilbidea eta 10 kilometro baino ez dituenek, kirol apur bat egiten duenak egin dezakeen zerbait da".



Andres De Regil patinatzailea. | JA



Ion Galarraga, helmugara heldu zen lehen handbikelaria. | JA



Soraluzen irteteko prest ofizialtasuna aldarrikatuz. | ANDER MONEDERO

Herri kirolak eta gazteen txanda

Soraluze eta Bergara arteko krosa egin zela aprobetxatuz, eguerdian ESAITek antolatuta, herri kirolak egin zituzten Bergarako San Martin plazan. Hasieran herritarrei kosta egin zitzaizen herri kirolak egiten hastea, baina pixkanaka giroa berotu zen eta jende dezente animatu zen.

Horrez gain, arratsaldean Antxintxika triatloiko kideek gaztetxoaren arteko lasterketak antolatu zituzten. Plazan hasi eta erdigunean bueltaka ibili ziren Bergarako korrikalari gazteenak gustura baino gusturago.



Herri kiroletako momentu bat. | JA

LASTERKETAREN SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

1. Dabid Gartzia 0.32.39
2. Oier Ariznabarreta 0.33.04
3. Ibai Alba 0.33.38
4. Martin Berrizbeitia 0.34.34
5. Ekaitz Kortazar 0.34.36
6. Cipri Burcio 0.34.41
7. Gaizka Romero 0.34.42
8. Gaizka Sarasola 0.34.44
9. Jose A. Ruiz 0.34.46
10. Iñigo Eizagirre 0.34.49

EMAKUMEZKOAK

1. Aitziber Urkiola 0.40.43
2. Gema Hernandez 0.41.40
3. Nerea Etxeberria 0.42.10
4. Arantzazu Larrañaga 0.42.14
5. Irene Loizate 0.42.59
6. Itziar Aldekoa 0.43.04
7. Maitane Txueka 0.44.13
8. Amaia Bernal 0.44.23
9. Idoia Aranguren 0.45.59
10. M. Jesus Castro 0.46.23

PATINATZAILAK

1. Andres De Regil 0.21.46
2. Sergio Uriarte 0.22.10
3. Iñaki Zubillaga 0.22.12
4. Joseba Gonzalez 0.22.18
5. Juan De Regil 0.22.33
6. Ander Agirre 0.23.50

HANDBIKE

1. Ion Galarraga 0.21.08
2. Igor Elizburu 0.24.40

DABID GARTZIA KORRIKALARIA

"Azken bi kilometroetan erritmoa mantentzea izan da gakoa"

Zelansentitu zara gaurko lasterketan?



ANDER MONEDERO

Egia esan oso ondo sentitu naiz. Hasieran Ibai oso fuerte hasi da baina lasterketak aurrera egin ahala hobeto sentitu naiz eta azken bi kilometroetan erritmo oso bizian korrika egitea lortu dut. Irabaztearen zergatia detaile txiki horietan dagoela uste dut.

Antxintxika krosa, Tafyd krosa...inguru honetan asko ibiltzen zara ezta?

Bai, zorte ona izan ohi dut inguruotan. Aurten ere Elgoibarren lehen postua lortu dut, eta gustura, sentsazio onekin nabil. Denboraldi polita izaten ari dela uste dut.

Datorren astean Behobia-ra?

Bai, bertan izango naiz, hala ere ez dut uste nire marka pertsonala hautsiko dudarik. Aurten ordu bete inguruan ibiltzea lortuz gero, oso pozik amaituko dut.

AITZIBER URKIOLA KORRIKALARIA

"Herritarren oihuek aurrera jarraitzea motibatzen zaituzte"

Zelan ikusi duzu zeure burua?



A.M.

Oso ondo, lehen postua amaitzea beti da pozgarria. Azkenaldian oso gustura nabil entrenatzen eta hori lasterketan antzematen da. Ez naiz irabaztea pentsatzen etorri baina ibilbidean ondo joan naiz eta esan bezala oso pozik nago orain.

Bakarrik edo taldean aritu zara?

Bakarrik etorri naiz, baina mutil taldetxo batekin egon naiz lasterketaren zati handiengan. Ahal nuen bezala aguantatu dut. Baina azkenean esfortzuak merezi izan du.

Zer iruditu zaizu ibilbide-dea?

Polita dela uste dut, hala ere azken kilometroa gogorra egiten da, aldapa asko daudelako. Azken momentu horietan herritarren oihuek eta animoek aurrera jarraitzea motibatzen zaituzte.

KULTURA



Andre Mari basiliza inguruko zaharrenetarikoa da, eta erortzeko zorian dago. | JOSETXO ARANTZABAL



Gari batean basilizaren ondoan eta ekialdera begira lurperatzen zituzten hildakoak Eliz...



Meza egin artean katafaltoan egoten zen gorpua. | JA.



Dolare motako baserria ere erakutsi zuten. | JA.



Hildakoaren etxera kanpaitxoaz joaz joaten zen apaiza Jauna ematera. | JA.



50 lagun...

Heriotza laino arteko mundurako pausua zeneko errituak ezagutu ahal izan dira Angiozarren

- ▶ Eguenean eta zapatuan bisita gidatuak egin ziren antzinako erritoak azaltzeko
- ▶ Toki gehienetan desagertu egin diren hainbat ohiturek bizirik dira Angiozarren

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Angiozarko auzo-alkate Jose Angel Mikeok ederki asko gogoratzen du mutiko zenean eta meza-laguntzaile edo *monagillo* lanetan

jarduten zuenean, nola joaten zen apaizarekin batera hiltzorian edo agonian zegoen pertsonaren baserri Jauna ematera edo azken igurtziak egitera. Kanpai txiki

batekin soinua ateraz egiten zuten baserrirako bidea. Hiltzorian zegoen pertsonaren logelan, gau-mahaian, aldaretxo bat ipintzen zen Amabirjinen irudiekin, eli-

zako liburuarekin eta hiltzera zihoan pertsonaren baliozko objektuekin. Momentua iritsitakoan hildakoa kanposantura eramaten zuten eliza-bidetik.

Elizako jarlekua eta manta

Kanposantuan lurperatzeko ohitura baina, nahiko berria da. Orain dela gutxira arte hildakoak elizan lurperatzen zituzten. Baserri bakoitzak hilobi bat izaten zuen elizan eta hari jarlekua deitzen zitzaion, bertan jartzen zelako etxeko andrea. Bada, pertsona bat hiltzen zenean, eta jarlekuaren azpian hilobiratu ostean, haren gainean manta beltz bat ezartzen zuten eta kandela edo argizariak piztuta mantentzen ziren mantatxoaren gainean lehenengo urteurrenena arte; manta-jasotzea egin arte.

Angiozarko San Migel elizan jarlekuak duela 60 urte inguru kendu ziren, bankuak ipini zituz-

JAIONE ISAZELAIA
BERGARA



"Bisita oso atsegina izaten ari zait. Ikusi besterik ez dago zelako taldea batu garen. Gure ingurua eta arbasoen ohiturak ezagutzeko aukera aparta da".

JOSE ANGEL ARRIARAN
ANGIOZAR



"Bertakoa izanda oso gustura entzuten dira horrelako kontuak. Azalpenak ematen dituen ere oso ona da. Ikusten da asko dakiela eta gaia bizi duela".

ROBERTO IZAGIRRE
BERGARA



"Gustura gabilta. Entzuten ari garen gauza asko eta asko gainera berriak dira. Nondik gatozen jakiteko modu bat da. Oso interesgarria benetan".

JOSE ANGEL MIKEO
AUZO ALKATEA



"Angiozar ezagutzera eman ezinda gabilta. AHTren Y-aren ertza baino askoz gehiago gara, asko daukagu erakusteko. Hori da gure erronka eta helburua".

MUSIKA | Inoren Ero Ni Bergarako Gaztetxean | 25



Inoren Ero Ni taldeak ikuskizun polita eskaini zuen zapatu gaueko kontzertuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Inoren Ero Ni taldeak ikuskizun polita eskaini zuen zapatu gaueko kontzertuan. | J.A.



Etxean ipintzen zen aldarea. | J.A.

tenen, baina oraindik mantendu egiten dira, esaterako, mantaren eta kandelaren errituak.

Gorpua etxetik elizaraino eramateko ere protokolo zorrotza jarraitzen zen eta XX. mendera arte, hilkutza barik, izara zuri batean bilduta eramaten zuten hildakoa. Haren aurrealdean, aldamenen eta ondoren zein joango zen ere ondo zehazten zuen protokolo hark.

Etxean jaio eta etxean hil

Urtetan are gehiago atzera eginda, kanposantu barik hildakoak etxean bertan gelditzen ziren, erre egiten zituzten gehienetan eta sutondoan sartu errautsak. Antzinako sinesmenen arabera, pertsona bat etxe batean sortu eta hiltzen zen, ez zen inoiz handik ateratzen. Azpimarratu behar da gainera, antzian heriotza ez zela bizitzaren amaiera, beste bizitza baterako pausua baizik, laino arteko mundu baterako pausua. Zentzu horretan sua laino arteko bizitzaren eta bizitza errearen arteko lotura izango litzateke.

Bisita gidatu arrakastatsuak

Orain arte esandako guztiak eta askoz gehiago ikusi eta ikasteko aukera izan zen pasa den egunean eta zapatuan Angiozarren egin-

dako bisita gidatueta. Jon Arroita historialariak gidatuta, sasoi batean heriotzaren inguruan egiten ziren hainbat errito ezagutzeko aukera izan zen.

Angiozarko San Migel parrokiaren elkartu ostean Elizamendira joan ziren gurutze-bidetik. Bertan dagoen Andre Mari basiliza inguruko zaharretarikoa da eta badu bitxikeria bat: bertako Andre Maria ez da Euskal Herrian eza gutzen dena. Flandesetik ekarri da, ilehoria da eta eta bularra ematen dio ume biluziari.

Angiozarko San Migel parrokiaren amaitu zen bisita gidatua eta bertan kontatu zituen Jon Arroita Angiozarren heriotzaren inguruan orain dela gutxira arte mantendu diren erritoetako batzuk. Esaterako, norbait hiltzen zenean etxekonekoari abisatzen ziotela lehenengo eta hura arduratzen zela elizara joan eta horren berri emateaz. Kanpaien hotsagatik, inguruko baserrietako bizilagunek jakiten zuten hildakoa emakumea, gizona edo umea zen.

Arrakastatsuak izan ziren bi bisita gidatuak, batutako lagun kopuruagatik eta baita ere horiek azaldutako interesagatik. Heriotza eta hildakoa horren gogoan izaten diren egunotan aukera ezin aproposagoa Angiozarkoa.

KRONIKA

Energiaz beteriko ikuskizuna

FITXA

MUSIKA

INOEN ERO NI ETA SONIC TRASH**Estiloa:** Rock, Post hardcore...**Non:** Bergarako Gaztetxean.**Eguna:** Zapata, azaroak 3.**Iraupena:** 150 minutu inguru.

ANDER MONEDERO | BERGARA

Txapa Irratiak antolatuta, Inoren Ero Ni eta Sonic Trash taldeek kontzertua eskaini zuten zapatu gauean Bergarako Gaztetxean. Bi taldeetako kideek esperientzia handia dute oholtza gainean eta nahiz eta ibilbide eta estilo desberdinetako taldeak izan, biek ala biek publikoaren arreta irabazi, eta musikaz gozaztea lortu zuten.

Oholtza gainera igotzen lehengo taldea Inoren Ero Ni andoaindarrak izan ziren. Hardcore doinuak egiten zituen BAP! taldeko errautsetatik sortu zen 2003an, BAP! taldeko hiru kide berriz ere elkarrekin jotzen hasi zirenean. Andoaindarrak hardcore doinu azkarrak doinu motelagoekin nahastu zituzten. Hasieran 2011an kaleratutako *Fregoli* diskoko abestiak izan ziren nagusi, eta emanaldiak aurrera egin ahala, publikoa berotu eta kontzertuan sartzea lortu zuten. Taldeko abeslariak, Eneko Abregok, publikoa zirikatzearrekin batera lortu zuen giroa berotzea, eta emanaldia

bukatzeko taldearen klasikoak jo zituzten, besteak beste, *Bi milioi pixel* abestia.

Bigarren taldeari dagokionez, berriz, Ya Te Digo taldeak atsedendia egitea erabaki eta taldekide batzuk Sonic Trash proiektua abiarazi dute. Aurreko proiektua baino askoz ere rockeroak dira eta lehen diskoa aurkezten dihardute. Euren abesti eta bertsoiez osatutako emanaldia eskaini zuten, tartean, Cancer Moon-en *Caster* abestia.

Irratia finantzatzeko bidea

Aurtengo ikasturtean Txapa Irratiak antolatu duen lehenengo kontzertua izan da oraingo hau. Irrati librea publizitaterik gabekoa izanda, irratiaren gastuei aurre

egiteko Txapak urtero bospasei kontzertu antolatzen ditu Bergarako Gaztetxean. Horieta, Txapa Irratiak gaztetxearen barraren etekinak jaso, eta urte osoan kamisetak eta merchandising-a salduz irratia finantzatzen dute.

Aurten, 18 irratsaio ekoizten dituzte

Autogestioan oinarritutako irrati libreak aurten parrilarako 18 saio ekoizten ditu. Gehienak asterokoak dira, baina badira 15 egunean behin ekoizten direnak, eta baita hilean behinokoa ere.

Txapako eguneroko programazioan, zapatuetan izan ezik, gutxienez, beraiek ekoiztutako saio bat dago. Bergarako irrati libreko programazio parrillan gurasoentzako saioak, musika programak, umorezko saioak, gaztetxe kontzertuak, eguraldiari buruzkoak... Txapakoek era guztietako irratsaioak egiten dituzte eta programazioa osatzeko, Arrosa irrati txiki eta libreen sareko programak erabiltzen dituzte.

Txapa, 28 urtez uhinetan

1984. urtean sortutako proiektuak urte guzti hauetan autogestio bitartez aurrera egitea lortu du. Irrati libreko asanbladatik ehunka pertsona pasatu dira, urteen arabera, jende gehiago edo gutxiagorekin, baina hasierako ideiarekin jarraitzea lortu dute: herritarrek herritarrentzat egindako irratia izatea.



Inoren Ero Ni taldeak ikuskizun polita eskaini zuen zapatu gaueko kontzertuan. | A.M.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Altsasu. 2. eskukoa eta ia ia erabili gabe. Altzariak jarrita. 618-19 07 24.

Aramaio. 105 m2koa: hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metroko garaje itxia atari ondoan. Erabilgarriak diren 15 metroko ganbara. 669-70 39 77/652-72 83 60 (Mariasun).

Asturias. Asturiasen bi pisuko etxea eta lur saila salgai. 649 -40 26 22.

Beriz. Berizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. 647-7773 92.

Berriz. Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela haundi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldea. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685 -72 46 90 / 675-71 23 69.

Beriz. Berizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. 647-7773 92.

Cuzcurrieta del Rio Tiron (Errioxa). Pisua salgai. Hiru logela, garajea eta igerilekua eta lorategia komunitarioak. Prezioa: 100.000 euro. 692-99 43 51.

Durango. 86 m2 ko etxebizitza salgai. Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskigitokiarekin, ganbara eta garajea. Solairua: 5. Prezioa: 270.000 euro. 688-64 26 43 (Jaione).

Durango. Askatasun etorbidean pisua salgai. Dena hegoaldeko, oso eguzkitsua egun osoan, 83 m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino, oso ondo zaindua eta modernoa. 652-75 54 46.

Elorrio. Duplex etxebizitza, 78 m2 erabilgarri (90 m eraikiak). Argitsua eta isila, errekarra begira. Egongela nasaia, logela bi eta bainugela bi. Errekakale, 10 2gn solairua. ziertzaloizate@hotmail.com edo 605-72 29 45.

Elorrio. Elorrio erdigunean estreinatu gabeko etxea salgai. 77 m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariarekin. Prezioa, 230.000 €. 634-45 72 01.

Garai. Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m2-ko lursaila. Garaiako San Migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi sorra, nahiko laua. 200 m2ko baratza, frutalari. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako proposa. Toki lasaia, hegoaldeko begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetzak kontsulta, jate-txeak (2) eta bus geltokitik 150 metrotara. Durangotik 10 minutu. Ap-8 autopistatik 5 minutu. 639-83 34 89. jo.aman-tegi@gmail.com.

lurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, lurretan. 66.000 euro. 685-72 80 42.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112 m2 azalera eraikitua. Aukera bikaina. Deitu telefono zenbaki honetara: 695-77 31 41.

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Trasteleku eta igogailuarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675-71 72 83.

103. ERRENTAN EMAN

Bastida. Oporretako pisua alokatzen dugu igerilekuarekin. Torre - Otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuok deitu hona: 620-62 92 45. iar-teaga@hotmail.com.

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen dugu donostian, antiguo auzoan bertan. Persona bat edo bintzako egokitua, bi planta dauzka. Eguzkitza da eta lasaia. Prezio 550 euro. 609-48 11 24.

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. 2 logela. Eguzkitsua. Oso egoera onean. Deitu zenbaki honetara: 615-73 59 10.

Mallabia. Mallabiako landetxea. 4 logela, 4 komun, sukaldea eta egongela beheko suarekin. Taldeetan alokatzea posible da. 943-17 00 09.

Irurtzun. 3 logela, argitsua, altzariarekin eta banakako berogailuarekin. Oso polita. Leku ona. 600-38 74 00.

lurreta. lurretan logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633-23 38 48 Jon

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzbeide kalean. Hiru logelakoa. 615-73 29 83.

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. 660-45 87 56.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696-70 55 09.

Bergara. Pisua hartuko nuke errentan, pertsona euskalduna. 635-74 61 45.

Durango. Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. 632-37 28 87.

Elorrio. Pisu baten bila nabil alokatzeko, 3 logelarekin eta altzariarekin. 94-658 21 91.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. 657-55 81 15.

Arrasate. Logela bila nabil astean zehar erabiltzeko. Gizonetza langilea naiz. 250 euro inguru ordainduko nituzke hilabeteetan. Posible bada Zigarrola edo erdigunean. 622 00 13 19

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Etxe berria. Erdigunean. Azaroaren 1etik aurrera sartzeko aukera izango luke. Presazkoa da. 630-94 68 37 (Eli).

Bergara. Logela ematen da errentan. 699-09 46 26

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-85 86 68.

Durango. Pisukide bila gabil-tzan bi lagun gara. Hizkuntza Eskola aurrean dago pisua, alde zaharretik oso gertu, eta Tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera proposa. Animatu! 679 -62 04 47.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dugu. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 -73 87 24.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebetean baino gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Durango. Bipertsona 3. Baten bila tabiran behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. 637-29 24 65

Elgoibar. Logela daukat errentan emateko. 699-60 91 90.

Durangaidea. Logela alokairuan Landako etorbidean, Durangon. Pertsona arduratsuari emango zaio lehentasuna. 648-20 03 70.

2. GARAJEAK

201. SALGAI

Arrasate. 15,5 m2ko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontzertu-iturbide egoitza artean. 628-14 92 74 / 943-77 08 02.

Durango. Durangon Fray Juan de Zumarraga kalean (Euskaltel dendaren azpian), garaje/trastero itxia salgai. Deitu 629-41 43 63 telefonora.

Durango. Fray Juan de Zumarraga kalean, 8m2-ko trasteroa alokatu edo saltzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629-41 94 11.

Durango. Garajea salgai Plateruen plazan. 28.000 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 679-47 57 85.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 660-45 87 56.

Elorrio. Elorrioko Berrio-otxo kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Deitu telefono zenbaki honetara: 658-75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. 660-45 87 56.

Otxandio. 2 garaje salgai, bat itxia. Otxandion. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679-74 00 61.

Durango. Garajea alokagai. Askatasun etorbidean, 35.50 euroan. 675-71 95 54.

Durango. Durango erdigunean, Ezkurdi inguruan kokatuta dagoen garajea errentan. 629 -24 07 23.

Durango. Garaje itxia errentan Durangon, erdigunean kokatuta. 629-24 07 23.

3. LOKALAK

301. SALGAI

Durango. 25 m2-ko eraikuntza berriko lonja, Durangon. Bulego baterako edo komertziorako aproposa. Zonalde komertzial onean kokatuta. Gutxienez 2 logela dituen etxebizitza bategaitik aldatzen dugu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-81 85 92.

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen moldata. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzeko ere posible da: 800 euro/hil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-75 78 07 (Ana).

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lonja ematen da errentan, San Andres auzoan, elektronikoa parean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-467 60 20.

Durango. Bulego bat alokatzen dugu Durangon. 42 m2. Durango erdian. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656-78 02 15.

Durango. 65 m2-ko lokal komertzial egokitua. Eraikuntza berria. Madalena zonaldean. Deitu 609-15 92 45 edo 655 -24 03 27 telefonoetara.

Elorrio. 170 m2ko lokal zoragarria Elorrio erdian alokatzeko prest, 4 eskapirate haundiak, autobus geltokiaren ondoan edozein negozio ipintzeko prest primerrako baldintzekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-39 00 09

304. ERRENTAN HARTU

Arrasaten. Lagun koadrila batendako 50 metro koadro baino gutxiagoko lokal bat nahi-ko gure errentan. 689373143 (Ander)

Pabiloia. Pabiloia behar dugu errentan Debagoienean. 605 76 98 97

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Zaldibar. Zaldibarren umea eskolara eramana eta etxeko lanak egiteko emakumezko eskalduna behar da. 670-59 84 32.

402. ESKAERAK

Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatu eta hezkuntza berezian espezialista. 600 -39 47 77.

Arrasate. Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko debagoienan. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634-12 56 87.

Arrasate edo Bergaran. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziak ditut. 636-41 98 14.

Arrasate, Bergara edo Aretxabaletan, neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaitzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. 697-20 00 86.

Arrasate. Arrasateko emakumea gertu umeak eta nagusiak zaitzeko eta etxeko lanak egiteko ere bai. 943-25 05 72 / 658-70 56 94.

Arrasate. Neska gazte euskaldun eta esperientziadunak txakurrak hezten lan egiteko luke. Interesatuok deitu 697-41 66 24 telefono zenbaki honetara.

Arrasate. Neska boliviarra pertsona nagusiak edo umeak zaitzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informea eta paperak ditut. Gazez eta egunez, baita orduka ere. Deitu 618-14 71 34 telefono zenbakira.

Bergara. Esperientziadun emakumea lanerako prest. Interesatuok deitu 617-12 61 44 telefono zenbakira.

Bergara. Bergaran mutil arduratsua gertu nagusiak zaitzeko. Geriatriakasketak ditut. 651-09 04 97.

Bergara. Bergaran pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuok deitu 19:00etatik 21:00etara. 654-05 91 77.

Debagoiena. Taberna edota kafeteri batean arratsaldez lan egiteko gogoz dagoen neska gaztea. Ikaslea goizetan. 686 -20 18 35.

Debagoiena. Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldean lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666-83 21 95.

Debagoiena. Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldean lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666-83 21 95.

Debagoiena. Asteburuetan lan egiteko nuke nagusiak zaitzen edo garbitasun lanetan. 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbitzeko egiteko. Tituladuna. 680-77 06 46.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetariko garbitzeko egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626-91 49 04.

Debagoiena. Bertako neska nagusiak edo umeak zaitzeko gertu. Egunez zein gazez. Dispoibilitate osoa. Esperientzia. 618-00 08 28.

Debagoiena. Bertako neska nagusiak edo umeak zaitzeko gertu. Egunez zein gazez. Dispoibilitate osoa. Esperientzia. 618-00 08 28.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaitzeko. Klinika laguntzaile titularekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943-25 02 96, 662-58 96 11.

Debagoiena. Neska gertu nagusi zein umeak zaitzeko. Klinika laguntzaile titularekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943-25 02 96, 662-58 96 11.

Debagoiena. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaitzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 -84 89 26.

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaitzen eta garbiketa egiten. Gazez zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685-13 48 63.

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: umeak edo nagusiak zaitzen zein garbiketarako egiten. Dendari ere bai. Etxean bertan bizitzen, egunez zein orduka. Erreferentziak ditut. 636-41 98 14.

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaitzen eta garbiketarako egiten. Gazez zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685-13 48 63.

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: umeak edo nagusiak zaitzen zein garbiketarako egiten. Dendari ere bai. Etxean bertan bizitzen, egunez zein orduka. Erreferentziak ditut. 636-41 98 14.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaitzeko. Klinika laguntzaile titularekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943-25 02 96 / 662-58 96 11.

Debagoiena. Ostarlitzan eta umeak zaitzen esperientzia duen neska gaztea lan bila. 615 -72 72 86.

Debagoiena. Neska gertu lanerako: nagusiak zaitzen, etxeko lanak egin, garbiketarako, sukalde zein tabernatan. 610 -99 70 46.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanek egin edo bestelako lanetarako debagoienan. 722-14 42 86.

Debagoiena. Urte askotako esperientzia duen emakumea, arduratsua, lanerako gertu. Umeak zaindu, etxeko edo tabernako lanak eta etxe, jatetxe zein bestelako garbiketarako egingo nituzke. 943-79 96 25 / 647-10 58 72.

Debagoiena. Neska arduratsua ume eta nagusiak zaitzeko gertu. Esperientziaduna. 633 -49 62 53.

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaitzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Deitu 691-03 25 02 edo 943 -54 09 41 zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Garbiketarako zein nagusi edo umeak zaitzen. Legezko paperak ditut. 672-96 08 22.

Debagoiena. Neska arduratsua etxe, atari eta abarretan garbiketarako lanak egin zein nagusiak zaitzeko gertu. Deitu 616-62 85 91 telefono zenbaki honetara.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile gisa lan egiteko nuke. Sei urteko esperientzia. Elikagai erabiltzaile titulua daukat. Miguel. Deitu telefono zenbaki honetara: 634-41 90 51.

Debagoiena. Mutila gertu harakin laguntzaile lanetarako. Esperientzia daukat hezurrak kentzen eta aurreko zinatutan. Edozein lanetara moldatzen naiz. 610-91 33 40.

Debagoiena. Mutila gertu harategian edo sukaldean laguntzaile lanetan aritzeko, baita tabernetan, garbitasun lanetan edo nagusiak zaitzen ere. Esperientzia. 647-15 18 23.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Eskarmentua daukat hegazti granjatan, biltegian, eraikuntza zein margoketan lanetan. Orduetegi malguta eta edozein herrian lan egiteko prest nengoke. 631-10 57 91.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943-79 96 25 / 647-10 58 72.

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko: garbiketarako, nagusiak zaindu eta abar. Orduka ere bai. 633-28 81 24.

Debagoiena. Esperientziadun neska edozein motatako lanak egiteko prest. 639-08 86 33.

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaitzeko, garbiketarako eta abar. Baita base-rietan ere. 622-77 60 65.

Debagoiena. Mutila lan bila: peoi, gidari, zaindari eta abar. 651-55 36 29.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634 -78 19 54.

Debagoiena. Margolari gisa lan egiteko nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637-52 89 91.

Debagoiena. Garbiketarako egingo nituzke. Baita zerbitzari lanak ere. 662-08 22 03.

Debagoiena. Igeltzari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zaindaria gisa lan egiteko nuke. 622-59 92 14.

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita garbiketa lanak egiten ere, atari eta abarretan. Erreferentziak ditut. 636-41 98 14.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. 672-70 71 25.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauaz gaixoak zaintzeko. 602-37 14 43.

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketara orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoa laguntzeko. 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622-77 60 65.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean gaixoak zaintzeko ere. 618-13 46 15.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarako edo etxean bertan bizi izaten lan egiteko Hamar urteko esperientziaduna. 646-78 81 40.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka edo asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tabernak ere garbituko nituzke. Disinfectantia osoa. 699-60 91 90.

Durungaldea. Lan bila nabil garbiketara zein umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest, baita asteburuetan ere. 644-63 51 45 / 631-02 29 82.

Durungaldea. Asteburuetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen mutil gaztea. Janaria egin, garbiketa, paseoa emateko... 22 urte ditut eta arreta soziosanitario ikasten ari naiz. Interesatuek, deitu 622-93 72 86 zenbakira.

Durungaldea. Neska euskalduna haurrak zaindu edota partikularrak emateko prest. 661-37 85 29.

Durungaldea. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna Durungaldean umeak zaintzeko lan bila. 625-70 78 31.

Durungaldea. Umeen zaintzan, dendari lez, hosteleritzan... lan egiteko prest. 672-69 91 52.

Durungaldea. Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauz. Erreferentziak. 616-78 80 33 Luz Adilia.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziarik nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauz. 608-24 85 54.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Deitu 660-87 53 60 telefonora.

Durungaldea. Lan bila garbiketara edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. 680-29 66 76.

Durungaldea. Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaindu lan bila. 602-12 22 45.

Durungaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. 631-02 29 82.

Durungaldea. Emakume euskalduna Durungaldean eta egunean bi-hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618-40 58 79 (Izaskun).

Durungaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631-24 26 07.

Durungaldea. Orduka zein gauz pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 633-93 41 06.

Durungaldea. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaindu edo garbiketarako eskaintzen du bere burua. Asteburuetan edo astegunetan. 652-72 02 29.

Durungaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaindu lan bila. 690-68 73 95.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu lan bila. 644-63 51 45.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaindu lan bila. 632-51 68 61.

Durungaldea. Durungaldean 24 orduz pertsona nagusiak zaindu lan bila. Deitu 602-12 22 45 telefonora.

Durungaldea. Mutil arduratsua lan bila, lorezaintzan, nagusiak zaintzen edo altzairu montatzaile moduan. Esperientziarekin. 676-11 21 74.

Durungaldea. Nagusiak zaindu edo bulego eta harategiak garbitzen lan egiteko prest nago. Lanaldi osoan, goizez, arratsaldez edo gauz. 690-68 73 95.

Durungaldea. Durungaldean garbiketara, umeak, nagusiak zaindu lan bila. 652-13 00 41.

Durungaldea. 24 orduz nagusiak zaindu lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 631-25 09 98.

Durungaldea. 24 orduz nagusiak zaindu lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 679-53 01 60.

Durungaldea. Nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketarako prest. Papelekin eta erreferentziarekin. 620-82 85 79.

Durungaldea. Esperientziadun neska lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketarako. Papelekin. 602-81 12 63.

Durungaldea. Neska zaindu edo dendari lez lan egiteko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. 618-01 61 99.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaindu 24 orduko lan bila. Esperientziarekin eta erreferentziarekin. 608 12 22 45 edo 632 86 92 82

Durungaldea. Emakumea garbiketara, ume zein nagusien zaindu lan egiteko eskaintzen da. 24 orduz edo egunez. 672-92 40 83.

Durungaldea. Umeak edo edadeko pertsonak zaindu edo garbiketarako lan bila. 632-55 69 95.

Durungaldea. Bolibiki neska 24 orduz umeak edo nagusiak zaindu, edota garbiketara lanak egiteko prest. Erreferentziak. 692-57 18 71.

Durango. Emakume euskalduna eta esperientziaduna pertsona nagusiak zaindu lan bila. 699-74 57 23.

Durungaldea. Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, umeak edo edadekoak zaindu. Lanaldi osoan edo orduka. Erreferentzia onekin. 638-43 79 01.

Durungaldea. Pertsona arduratsua lan bila, pertsona nagusiak zaindu, garbiketara, lorezaintzan, baserrietan ere aritzeko prest. 622-47 39 41 // 632-37 28 87.

Durungaldea. Pertsona arduratsua lan bila, 09:00etatik 14:00etara. Zaintzan zein garbiketara. 632-72 43 23.

Durungaldea. Nagusiak zaindu lan bila nabil, 24 orduz edo asteburuetan. 602-12 22 45.

Durungaldea. Erizain laguntzaile, pertsona nagusiak zaindu lan bila. Deitu 608-46 48 44 telefonora.

Durungaldea. Neska arduratsua etxeko lanak egiteko edota nagusiak zaindu lan bila nabil. Orduka. Esperientziaduna eta erreferentziarekin. Deitu 648-20 03 70 telefonora.

Durungaldea. Neska gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaindu, garbiketara (portalak, tabernak) zein etxeko lanak egiteko lan bila dabil. 24 orduz, lanaldi osoan edo lanaldi erdian. Erreferentziarekin. Deitu 620-82 85 79 telefonora.

Durungaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusie laguntzeko eskaintzen da. 24 orduz, egunez, asteburuetan edo jai egunetan. Erreferentzia askorekin. 666-75 21 47.

Durungaldea. Lan bila nabil. 24 orduz, gauetan edo asteburuetan nagusiak zaindu. Esperientziarekin eta erreferentziarekin. Geriatria kurtsoa egi, ffla. Papelekin. 634-00 82 22.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketara lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. 631-13 22 91.

Durungaldea. Egunez edo orduka 10:00etatik 20:00etara nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketara lan bila. Esperientziarekin. Deitu 632-15 80 89 telefonora.

Durungaldea. Emakumea lanaldi erdiz lan egiteko prest umeen edo nagusien zaindu edo garbiketara. Goiz, arratsalde zein gauz. Esperientzia eta erreferentzia onak. Deitu 636-85 20 59.

Durungaldea. Emakumea pertsona nagusiak zaindu lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Erreferentziarekin. Deitu 638-23 37 39 telefonora.

Durungaldea. Emakumea umeak zaindu edo garbiketara lan bila. 24 orduz edo egunez. Papelekin eta erreferentziarekin. 650-10 18 31.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaindu zein kamarero lanetan aritzeko lan bila nabil. Esperientziarekin eta erreferentziarekin. 630-86 99 21 (Andres Arrieta)

Durungaldea. Lan bila nabil. Edadeko pertsonak zaindu edo etxeak garbitzeko. Lanaldi osoan edo erdian. Erreferentziarekin. 650-61 01 94.

Durungaldea. Nagusiak zaindu zein garbiketara lan bila. Lanaldi osoan, baita gauz ere. 660-70 66 18.

Durungaldea. Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Garbiketara, sukaldari-laguntzaile edo zaindu, ume zein nagusi. Arratsaldetan. Erreferentziarekin. Deitu 670-67 46 41 telefono zenbakira.

Elorrio. Neska gazte eta euskalduna, Durungaldean haurrak zaindu edo etxeak garbitzeko prest. Esperientziarekin. Yanire. interesa baduzu, deitu: 657-77 54 37.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginkatu dituen eta udalekutan lanean esperientziarekin duen neska gazte euskalduna, arratsalde haurrak zaindu eta eskolako lanean laguntzeko prest. Urteak daramatzat hontan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Honduraseko neska langile eta arduratsua. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaindu eta garbiketara lanak egiten esperientziarekin. 616 84 89 26

Oñati. Neska euskalduna gertu tabernako eta etxeko lanak egiteko. Baita umeak zaindu ere. 685-73 06 80.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Euskara eskolak. Kazetaritzako ikasle bat naiz eta karrerako 1go mailako euskara arloa prestatzeko laguntza behar dut. losune. Deitu 665 71 10 03 telefono zenbakietara.

Italiera Oñatin. Italiarako eskolak jasoko genituzke Onatin. Deitu 685 73 06 80 telefono zenbakira.

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut, talde txikitara edo bakarka. Adin guztiak (5 urtetik aurrera). Erreferentzia eta hobe-kuntza. Azterketen prestakuntza ere bai (ket, pet, fce...). Deitu eta informatu konpromiso barik. 606-72 47 10.

Durango. Irakaskuntzan esperientziarekin duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. 675-00 79 19 egorrono@gmail.com

Durango. Gaztelera eta literatura azterketetarako klaseak: DBH, Batxilergoa, selektibitate, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloak. 656-79 15 99.

Durango. Euskaldun irakaslea, magisteritzan diplomatua, klase partikularrak emateko prest lehen hezkuntzan eta DBHn. Edozein galdera egiteko deitu 618-06 87 49 telefonora.

Durango. Mondragon unibertsitatean industria ingeniariatza daukan durangarra. Azken urte eta erdia atzerrian pasa dut eta beraz ingeles maila egokia eskain dezaket. Bestalde, esperientziarekin daukat marrazki tekniko, matematika, fisika eta abarren klaseak ematen (LH, DBH eta Batxilergoan). Beste arloren bat landu nahi izanez gero, jakinarazi mesedez inongo arazorik gabe. Kontaktua telefonora: 665-71 11 08. iker.totorika6@gmail.com

Elorrio. Lehen Hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsalde klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginkatu. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688-64 06 04.

Oñati. Neska, ingeniariatza ikasketak bukatuta, bigarren hezkuntzan dauden ikasleei eskola partikularrak emateko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 617-76 48 25.

6. MOTORRA

601. SALDU

Rover 45 confort 1.4 gasolina. Rover 45 confort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, abs, airbag, pioneer 4x4Dw irrati-cda, lapurreten kontrako inmovilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konprometuzurik gabe. Transferentzia nire kontura. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607-15 24 03.

Salgai furgoneta WG Multivan 4 tdi 2.5. Kanbio automatikoa. 102 zaldi dauzka kondizio honean dago. Kanpinarako presatuta. Deitu 609-48 11 24 telefono zenbakira.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Artzaitzakurrak. Artzaitzakur kumeak eskaintzen dira. Interesatuok deitu 616-93 63 51 telefono zenbakira

Katuakopari. Katuakoparitzen ditugu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-70 91 18.

Txakurkumeak opari. Hiru hilabeteko Border Collie txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 79 75 31

704. BESTELAKOAK

Hezitzaile. Neska gazte euskaldun eta esperientziadunak txakurrak hezten lan eginkatuko. 697 41 66 24

8. DENETARIK

801. SALDU

Almirante trajea. Lehen jaurtazteko almirante trajea salgai. Neurria: 10. Zapatak izan ezik gainontzeko gutzia. Behin erabilirik, 150 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 00 08 28

Altzariak salgai. Altzariak salgai: Ohearen egitura eta bi mahaitxo: diseinu modernoa, neurriak 1,50m x 1,90m, berri-berria dago (urte bete), prezioa 450 euro (bere salneurria denda 1.800 euro). Koltxoia: neurriak 1,50m x 1,90m. Prezioa 60 euro. Ikasteko mahai zuria: berri-berria dago, prezioa 50 euro. Umeen logelarako bost kaxoidun sinfonierra: prezioa 85 euro. Banak markako egurrezko apalak: prezioa 150 euro. Banak markako mahai baxua: prezioa 65 euro. 610-41 55 11.

Altzariak salgai. Ohea eta mahaitxo bi, diseinu modernoa eta berria, 360 euroan. Koltxo berria 1,50x1,90cm; 60 Euroan. Idazmahaiak kaxoi zuriekin, 55 euroan. Sinfonierra kaxoiekin, 65 euroan. Mahai bat, 60 euroan. 610-41 55 11.

Bikien karrotxoak salgai. Easywalker markako bikien aulkia salgai, kapazo batekin. 676-73 02 76.

Biolinak. Hasi berrirentzat bi biolin salgai. Prezioa adosteko. 649 76 79 64

Bizikleta salgai. Bizikleta estatikoa salgai. Prezioa 65 euro. 610-41 55 11.

Chico markako karrotxoak salgai. Chico markako karrotxoak salgai. Prezioa 50 euro. 610-41 55 11.

Galdara. Gasoliozko berogailuarendako Roca etxeko galdara. 10 berogailuarendako modukoa. Osagai guztiak. Baserri edo familia etxetarako egokia. Termo elektriko opati. Merke. 943 79 34 74 945 44 53 03, 616 23 81 74

Gas galdara. Junkers etxeko gas galdara daukat saltzeko. Ceraclax Excellence ZSC 35-3 MFA. Potentzia handiko eta ia berria. Negu bakar batez egon dalanean. Erdi-prezioan (1.000 euro). 685 72 83 24

Ileapaindegiko altzariak salgai. Egoera onean. Deitu telefono zenbaki honetara: 652 71 74 48

Konsola salgai Sega Mega Drive konsola salgai. Hiru jokurakin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 71 74 48

Maclaren aulkia salgai bikintzeko. Maclaren markako bikintzeko aulkia grisa salgai. Egoera onean. 659-42 58 90 aotxotorena@yahoo.es.

Nintendo DS Lite. Kolore zuria. Osagarri guztiarekin (zorroa, etxerako zein kotxerako kargagailuak...). Egoera oso onean dago. Oso gutxi erabilia. 100 euro. 670 52 58 74

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontaktua: 650-17 22 85 edo strato-kaster@gmail.com

Shaska eta haurren aldaketa. 0-2 urterako minia eta shaska salgai. Stokke slespi zuria. 2010eko uztailera, egoera oso onean eta gutxi erabilia. 350 euro. Haurren aldagailu zuria (stokke) 150 euro. 648-20 37 75.

Silver cross kapota salgai. Berri-berria. Prezioa 650 euro (bere prezioa 1.500 euro da). 610-41 55 11.

Umeendako karroa. Mutsy 4 rider modeloa. Beltza. Euritarrako plastikoarekin. Deitu 677 52 56 27 telefonora

Umeentzako osagarriak salgai. Quinny markako hiru erruberadun ume kapota eta silla, 195 euroan. Barbie markako bizikleta larrosa, 50 euroan. Umeentzako koloretako mahai biribila eta auklia, 53 euroan. Taka-takamuskagaz, 30 euroan. 610-41 55 11.

Umeentzako Quinny buzz 4 gurpilun aulkitxoak salgai. Salgai umeentzako Quinny buzz 4 gurpildun aulkitxoak. Kolore gris eta beltza. Aulkitxoarekin batera, kapazoa (beltza), silla (udarako eta neguko fundarekin, grisa), bandeja eta bere zorrotxoak dagoz. Egoera onean dago. 659-42 58 90 aotxotorena@yahoo.es.

VW T4 furgonetarentzat altzaria. T4 furgoneta (beste batzuentzat ere balio lezake) ohea egiteko balio duen altzaria saltzen da. Gauzak gordetzeko edukiera handia. Koltxoi bane. 150 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 95 73 16.

Xurgagailua. Akaroen aurkako eta kontsumo baxuko. Gutxi erabilirik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 62 02 49

Yamaha clavinova pianoa salgai. Yamaha clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketarako oso egokia. Nahizanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuok deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653-73 78 58.

802. EROSI

Baserritar jantzia. Neskatilaretzat 18 hilabeteko neurriko baserritar jantzia erosiko nuke. Salgai baduzu deitu 686 21 02 23 telefonora

Klarineta. Klarineta erosi nahiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 43 25 03

803. EMAN

Bideoa. Panasonic NV SJ 410 bideoa ematen da, El Mundo-ren 100 pelucilas de nuestra vida bilduma eta guzti. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-55 42 21.

804. HARTU

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskolatera. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu boliviako bigarren mailako eskolatera. 655-71 76 66.

Bidali zure ordenagailua Perura. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bidaliko dugu Peruko eskolatera. 655-71 76 66.

Mutikoarendako arropa. 11-12 urteko mutiko batentzat erropak falta zit. Era batean edo bestean eskertuko da. Deitu 635 00 69 26 zenbakira.

806. GALDU


Argazki kamara Arrasaten. Sony DSC-W35 kamara digitala galdu genuen urriaren 7ko asteburuan, Munar eta Arimazubi inguruan. Familia argazkiak daude bertan. Aurkitu duenak dei dezala zenbaki honetara, mesedez. Aurrez eskermila. 696 23 90 74 edo 679 07 72 65.. Romanengatik galdetu.

Autobuseko txartelak. Txartel zorroa galdu nuen Lurraldebus autobusean, urriaren 5ean, egubakoitza, 12:00etako linean. Barruan autobuserako txartelak dauzka. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Norbaitek aurkitu badu dei dezala zenbaki honetara: 943 76 52 39

Disko gogorra Aretxabaletan. Disko gogorra, Toshiba markakoa, galdu nuen urriaren 11ko goizean. Aretxabaletan, Azbe eta Pagalday pentsuak inguruan. Ume argazkiak daude bertan, norbaitek topatu badu mesedez deitu zenbaki honetara. Aurkitu baduzu deitu 658 72 52 33 telefono zenbakira. Eskerririk asko.

Lepoko katea Oñatin. Lepoko katea galdu nuen irailaren 30ean, domeka, ilunkara aldean, barraka eta plaza inguruan. Domina bat ere badauka. Miguel izena dauka idatzita. Norbaitek aurkitu badu dei dezala telefono zenbaki honetara. 695 73 45 74 edo 943 78 25 71. Eskertuko da

Patinetea Arrasaten. Urriaren 17an Oxelo etxeko patinetea galdu nuen Arbolapetan. Norbaitek aurkitu badu dei dezala telefono zen



Nexus 4 sakelako telefono berria, denba baten erakuslehoan. | XATAKA.COM

Googlek ezustean aurkeztu ditu Nexus 4 eta Android 4.2

Sandy urakana tarteko Googlek ez ditu nobedadeok nahi moduan aurkeztu

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Google eta LG etxeek ofizialki aurkeztu dute Nexus 4 smartpho-nea; hala, orain arteko zurrumuruak baieztatuta geratu dira. Azken asteotan hainbat filtrazio-

ri esker jakin da LG etxea ardu-ratuko zela Googlen sakelako telefono berria produzitzeaz. Besteak beste, Indian zegoen LGko zuzendari batek baieztatu zuen zurrumurua. Eta barregarria

dirudien arren, Google etxeko langile batek duela hilabete batzuk taberna batean ahaztuta utzi zuen prototipoa -Iphonez gertatu izan den moduan. Horrenbeste gora-behera eta gero, baina, ezin izan

dituzte nobedadeak behar den moduan aurkeztu, Sandy urakana tarteko bertan behera utzi behar izan zutelako prentsaurrekoa.

Gaitasun handiko sakelakoa

Nexus 4 gailuak 4,7 hazbeteko pantaila du, 1.280 bider 760 pixel-eko bereizmenaz, eta hazbete bakoitzeko 320 puntuko dentsitateaz. Lau nukleotako prozesadoreaz, estetikoki Samsung Galaxy Nexus modeloaren antza du.

Aurreko Nexus gailuekin jarraituz, laugarren edizioak baieztatzen du gaitasun handiko telefonoa dela, eta nobedadeetako bat da batera kargatzeko ez duela kablerik behar.

Nexus 10, tableta berria

Sakelako telefonoa ez da, baina, Googlek ateratako nobedade bakarra, Samsung etxeaz batera tableta berria aurkeztu dutelako. Gailuak 10 hazbete ditu, eta Googleren esanetan, "planeta osoko bereizmen onena" duen gailua da. Hala, iPad-ari konpetentzia zuzena egiteko jaio da, orain arte Apple etxeko gailua nabarmentzen zelako irudi bereizmenean.

Android berria, 4.2

Amaitzeko, Googlek sistema eragile berria ere aurkeztu du, "Simplea, ederra". Jelly Bean izena mantenduko du, eta lehenago aipatutako gailu berriak sistema horrekin etorriko dira; hala, abiadura eta errendimenduan igarriko da hobekuntza.



Boligrafo inteligentearen irudia. | LIVESCRIBE.COM

Wifia duen boligrafoa, eta paperean idatzitakoa digitalizatzen duena

X.U. | ARRASATE

Livescribe Sky Wifi izeneko boligrafoa "inteligentea" da. Edozein orriren edota koadernoren gainean erabil dezakegu normal, beste edozein arkatx edo boligraforekin egingo genukeen moduan, baina aldi berean, wifi konexioa duenez, orri horretan idatzitakoa digitalizatzen da gauza da. Internet bidez konexioa egin eta idatzitako -edo marraztutakoa- Evernotera pasatzeko gauza da.

Beno, esandako ez da erabat zuzena, izan ere, lan hori behar den moduan egiteko, idazten duen orriak berezia izan behar du -ez dira garestiak. Izan ere, smartpen-ak ondo funtziona dezan izpi

infragorrien bidez trazuak jarraitu behar ditu.

Eta hori bakarrik ez, boligrafoa kapaz da audioak grabatzeko, eta idazten dugunarekin batera audio horiek Evernotera pasatzeko.

154 dolarretan salgai

Hori da Livescribe boligrafoak balio duena, Interneten erosiz gero 154 dolar ordaindu behar dira, eta izen bera daraman webgunean dago eskuragai. Aipatu dugu koaderno edo eskuorri bereziak behar direla; hala, eskuorri horiek 15 dolarretan daude salgai, eta larruzko agenda, berriz, 29 dolarretan.

Atariren bideojoko klasikoetako batzuk iOSen eta Androiden

X.U. | ARRASATE

Bideojokoak garatzen dituen enpresa mitikoak, Atari, iragarri berri du hainbat bideojoko klasiko iOS eta Androiden erabiltzeko moldatuko dituela.

Azkenaldian bideojokoak garatzen dituzten etxe askok hartu dute lan hori -Nintendok ezik- alegia, euren bideojokoak plataforma berrietan erabili ahal izateko moldatu (tablet eta sakelakoetan).

Urriaren nobedadeak izan ziren

Arlo horretan urriaren hainbat nobedade izan ziren, besteak beste, Crazy Taxi edota Carmageddon moduko bideojokoak

aurkeztu zituzten. Eta, Sega etxeak Sonic ezagunean oinarritutako bideojokoa aurkeztu zuen iOSerako.

Atari, klasikoekin

2013ra begira, berriz, Atari ekarriko ditu hainbat klasiko: Rollercoaster Tycoon, Dungeons & Dragons: Warbands, Atari Casnino eta Outlaw. Norbaitek esango du joko horiek ez direla Asteroids, Pac-Man edo Enduro bezain klasikoak, baina bere garaian izan zuten arrakasta errepikatzen badute, salmenta onak izango dituzte plataforma berrietan.



Rollercoaster Tycoon jokoaren irudi bat, PCrako. |

Megauploaden ordezkoa urtarrilean dator

X.U. | ARRASATE

Hasiera batean blindatutako artxiobak partekatzen *paradis* moduan saldu zuten -Gobernuek muturrak sartu ezingo zuten lekua. Gero, poliki-poliki detaile gehiago jakinarazi dituzte, eta dagoeneko badakigu noiz aurkeztuko duten Megauploaden ordezkoa: urtarrilaren 19an.

Berez, atzerapenez dator aurkezpena, Kim Dotcom-en iragarri zuelako urte amaierarako martxan egongo zela. Hiru asteko atzerapena izango du, baina badago horretarako arrazoirik, izan ere, egun horretan urtebete beteko da AEBtako gobernuak Megaupload itxi zuenetik -eta Dotcom etxean atxilotu zutenetik.

Detaileei dagokienez, daki-guna da Mega berria lehenengo Megaupload modukoa izango dela, baina artxiobak zifratzeko aukera aurrerakoekin, segurtasunaren alde egiteko. Hala, Dotcom-ek twitter esan berri du "mundu hau hankaz gora jartzeko prest" dagoela. Hasteko, AEBak zerbitzutik kanpo utzi ditu; horrela ezin-ingo dute muturrak sartu.

Microsoft Surface jaio da iPad-a estu hartzeko asmoz

X.U. | ARRASATE

Urriaren 26an argitaratu zuten Microsoft Surface RT tablet berria, iPad-az lehiatzeko asmoz, eta *appleweblog.com* webgunean konparazio osoa egin dute. Jakinekua da bietako bat ere ez dela merkea, ez dira merke izateko jaio, kalitate handiaz egindako gailuak direlako. Tartea geroago eta txikiagoa bada ere iPad-ak jarraitzen du izaten merkatuko tablet onena. Lehiakideak geroago eta gertuago daude, baina pantailako bereizmenean oraindik alde dago.

John Browett-ek eta Scott Forstall-ek Apple utziko dute

Aldaketa handiak iragarri dituzte Apple-eko zuzendaritzan. Tim Cook-ek erabaki zorrotzak hartu ditu, eta John Browett (Apple Storeko arduraduna) eta Scott Forstall (iOS arloaren arduraduna) lehenakariordek enpresa utziko dute. Oraingo ardurak horiek gainontzeko arduradunen artean banatuko dituzte.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

Nork nahi du nire
semearekin ezkondu?

Gezurra badirudi ere, hori da *Cuatro* telebista kateko saio baten izena. Gizartearen maila eta txoko ezjakinetatik hautatutako emakume talde bat agertzen da, ustez, aberatsa den gizakume bat konkistatzeko.

Ados. Debagoieneko biztanle maiteok, esaidazue, mesedez (eta arren) ez duzuela saio higuin-garri horretan sinesten... Bertan parte hartzen duten partaide askok Mediaset taldeko (*Telecinco*, *Cuatro*...) beste saioetan ere parte hartu baitute, eta gehienak modeloak, aktoreak eta kontulariak izaki, agerian uzten dute dena aurreikusitako gidoi batean oinarritzen dela. Hitz gutxitan esanda: ez da egia, beraz, gezurra da.

Adibide bat, bikote horietako bat etxeko logelan "bakarririk" geratzen denean, eurekin batera, hiru kamera, bi soinu teknikari eta erredaktore bat daude, hots, sei pertsona gehiago. Egoera pornografiko horretan maitasuna azaleratzea posible dela uste duzue? Gainera, kontuan izanda diruduna den gizon bat lortzea dela saioaren helburua, zein mailatan uzten dituzte programa horretako emakumeak? Prostituta esatea gutxi izango litzateke...

Azken datu bat: Debagoieneko ikusentzuleen % 20k ikusten du saio hori.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 5



Harmailatik

Soraluze-Bergara lasterketa eta ESAITek antolatutako euskal joko partehartzaileen berri emango dugu. | 21:03

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Onein
13:52 Gipuzkoa kultura
14:24 Ekogune
14:54 Berriak
15:14 Eguraldia
15:17 Zorion Agurrak
15:22 Esatea libre
16:42 Zorion Agurrak
16:47 Berriak
17:07 Eguraldia
17:10 Onein
17:38 Ikusmira
18:08 Beranduegi.tv
18:28 Ekogune
18:58 Musikaz Gain
19:08 Musikaz Gain
19:18 Ikusmira
19:48 Zorion Agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:01 Gurean gaur
22:01 Harmailatik
22:46 Berriak
23:06 Eguraldia
23:09 Magazinea
23:54 Harmailatik
00:39 Berriak
00:59 Eguraldia

MARTITZENA 6



Gurean Gaur

Tokiko telebistek eguneroko elkarlanean egindako abistegia da Nagore Uriartek aurkeztutako saioa. | 21:03

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:10 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:17 Zorion Agurrak
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:15 Gurean gaur
16:41 Berriak
17:01 Eguraldia
17:04 Esatea libre
18:24 Musikaz Gain
18:34 Harmailatik
19:19 Gipuzkoa kultura
19:49 Zorion Agurrak
19:54 Berriak
20:14 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean gaur
22:03 Berriak
22:23 Eguraldia
22:28 Musikaz Gain
22:38 Magazinea
23:23 Leteaz kantuberbetan
00:43 Berriak
01:03 Eguraldia

EGUAZTENA 7



Ekogune

Bioeraikuntzak zer diren eta nola egiten diren azalduko du Josu Jauregik aste honetako Ekogunen. | 22:00

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Hamaika.bit
13:45 Berbetan
14:27 Beranduegi.tv
14:47 Berriak
15:02 Eguraldia
15:05 Hamaika.bit
15:35 Onein
15:57 Harmailatik
16:42 Berriak
16:57 Eguraldia
17:00 Ikusmira
17:30 Zorion Agurrak
17:35 Musikaz Gain
17:46 Beranduegi.tv
18:10 Gurean gaur
18:43 Zorion Agurrak
18:48 Musikaz Gain
19:00 Bertso saioa
19:35 Musikaz Gain
19:47 Zorion Agurrak
19:52 Berriak
20:07 Eguraldia
20:12 Magazinea
20:57 Gurean gaur
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gipuzkoa kultura
00:10 Berriak
00:15 Eguraldia

EGUENA 8



Gipuzkoa Kultura

Donostiako Ondarretako hondartza 1890. urtetik 1948ra egon zen kartzelan erakusketak ikusgai. | 22:00

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Ekogune
13:45 Hamaika.bit
14:15 Onein
14:47 Zorion Agurrak
14:50 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Hamaika.bit
15:43 Gurean gaur
16:13 Musikaz Gain
16:24 Ekogune
16:54 Berriak
17:14 Eguraldia
17:17 Ikusten
18:17 Hamaika.bit
18:47 Planik bai?
19:07 Beranduegi.tv
19:32 Musikaz Gain
19:42 Zorion Agurrak
19:47 Berriak
20:07 Eguraldia
20:13 Magazinea
20:58 Gurean gaur
22:00 Gipuzkoa kultura
22:30 Planik bai?
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Ekogune
00:28 Berriak
00:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 9



AsteOn

Gaurkotasunarekin lotutako albiste eta erreportajeak dira AsteOn saioaren ardatz nagusia. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:24 Magazinea
13:09 Gurean gaur
13:39 Zorion Agurrak
13:44 Onein
14:16 Beranduegi.tv
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Ikusmira
15:58 Gipuzkoa kultura
16:28 Beranduegi.tv
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:16 Planik bai?
17:36 Ekogune
18:06 Ikusten
19:06 Beranduegi.tv
19:30 Ikusmira
19:40 Zorion Agurrak
19:44 Berriak
20:04 Eguraldia
20:07 Planik bai?
20:27 Gipuzkoa kultura
21:02 Gurean gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Esatea libre
23:53 AsteON
00:23 Planik bai?
00:43 Berriak
01:03 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Atez atekoaren gaineko
Oñatiko informazio
bulegoa ezagutuko dugu

Atez ateko zabor bilketaren harira, sistema berri honek sortzen dituen zalantzak argitzeko bulegoa zabaldu dute Oñatin. Arrasaten ere zabor bilketa sistema berria ezarri behar denez, bertan izango gara bulego honek herritarren kezka nola argitzen dituen ikusi eta ezagutzeko.

'Concierto Concepto'
dantza ikuskizuna eta
'Zuloak' rock taldea

Brodas Bros taldearen dantza eta hip hop doinuak hilaren 11an Amaia Antzokian ikusteko sarrerak zozketatuko ditugu. Horrez gain, Zuloak taldeak Oñatiko gaztelekuan hilaren 9rako sarrerak ditugu. Hauek lortzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo irratia@goiena.com helbidera.

Gurasolandia ekimeneko
antolatzaileekin
elkarrizketa

Bihar, martitzena, Txatxili-purdik antolatutako II. Gurasolandiari buruz informatzeko, Ahizpea Otxandiano, arduradunetako bat izango dugu Arrasate Irratian berriketan. Aurtengoan bi egun izan beharrena aste osora luzatzearen arrazoia emango digu besteak beste.

TELE-ALBISTEAK

Leteri buruz
Kantuberbetan saioan,
Sarasuaren omenaldia

Aurtengo urtarrilean Aretxabaletan egindako omenaldia ikusteko aukera izango da


GOIENA | ARRASATE

Jon Sarasuak Xabier Leteri egindako omenaldi xume eta hunkigarria ikusteko aukera izango da Goiena Telebistan. Urtarrilaren 20an Aretxabaletako Arkupe kultur etxean eskaini zuen emaldian, Leteren poesia eta kantua errezitatu eta abestu zituen. Arrastoa utzi du Xabier Letek euskal jendartean, eta Sarasuarengan zer esanik ez; "Letek eragin zuen nigan eta aspalditik nuen haren gaineko kantaldi bat egiteko gogoia, gaur egin dudana gisan, modu oso intimuan".

Leteren testuak sakontzen

Leteri buruz jardun zuen Sarasuak omenaldian. Leteren garapen pertsonalak bere testuetan, poesietan izan zuen islaz, hain justu. Sarasuak Leteren testu asko ulertzen eta kokatzen laguntzen du saioan, kasu askotan testuak bere testuinguru historiko-politikoan kokatuz.

Honako Sarasuaren esaldi honek laburbiltzen du neurri handi batean poeta handiaren izatea. "Arrastoa utzi digu gizon honek. Ideologiaren gainetik benetakotasunaren testigantza utzi



Jon Sarasua emanaldian. | GOIENA

**Arrasto handia utzi
zuen Xabier Letek
euskal jendartean,
Sarasuaren ustez**

**Sarasuak Leteren
testu asko ulertzen
eta kokatzen
laguntzen digu**

digu; bere egia bilatu zuen uneoro". Argi geratu zen aretxabale-tarrarentzat Lete guztiaren gainetik eta etengabe bere egiaren bila ibili zen poeta izan zela, agnostikotasunetik eta existentzialismotik espiritualtasunera, dogma guztien gainetik bere bidea egin zuen euskal idazlea.

Erljioa, maitasuna, heriotza

Bi aro nagusitan banatzen du Sarasuak Xabier Leteren lana: "Soziala eta existentzialista da lehena eta barnekoia eta espirituala bigarrena" dio. Xabier Letek, kristautasuna berreskuratu eta hainbat poesia idazten ditu horren gainean. Eta maitasunaz, eta berriz ere heriotzaz...

Leteren bilakaeraren interpretazioa bukatzeko, *Ni naiz. Oartzuarrak bere buruaz esaten zituenak hausnarketarako bide; ni naiz erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta trixtea...*

Beraz, saio berezi hau ikusteko aukera izango dugu aste honetan Leteaz Kantuberbetan tartean, martitzenean 23:23an.

ZORION AGURRAK




OÑATI
Naroa Moia Bikuña
Azaroaren 11n, 7 urte.
Zorionak, guapa!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzia! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
Keltse eta Kemen Malbadi
Azaroaren 11n, 3 urte.
Zorionak bikote! Ondo pasau zuen hirugarren urtebetzean! Segi orain arte bezain alaiak izaten!



OÑATI
Eneko Bengoa Igartua
Azaroaren 11n, urtebete.
Zorionak eta urte askotarako!!
Zure familixakuen partetik!!
Patxo potolo bat!!



BERGARA
Iker Igartua Kortabarria
Azaroaren 8an, 10 urte.
Zorionak! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Iker Igartua Kortabarria
Azaroaren 8an, 9 urte.
Zorionak! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat amatxo, aitatxo eta handiena, Uxeren partetik. Horrela segi, txapeldun!



ESKORRIATZA
Urtzi Diaz Rivas
Azaroaren 7an, 4 urte.
Zorionak, txapeldun!
Azkenean heldu da zure eguna. Zu zera etxe hontako piratarik handiena. Familia guztiaren partetik, ondo pasatu eguna.



BERGARA
Maddi Arando Arbelaitz
Azaroaren 6an, 5 urte.
Osintxuko Maddik azaroaren 6an, 5 urte.
Zorionak eta muxu pototolo bat etxeko guztien partetik. Ondo pasatu, sorgintxo.



ARETXABALETA
Aitor Artolazabal Narbaiza
Azaroaren 6an, 41 urte.
Zorionak, Aitor! Beste urtebetetze bat baina beti bezain guapo! Ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat gu guztion partetik.



ESKORRIATZA
Gentzane Andetxaga Korujo
Azaroaren 5an, 8 urte.
Zorionak, Gentzane!
Ondo pasatu zure egunian. Disfrutatu asko-asko. Muxu potoloak aita, ama eta Oinatzen partetik.




ARRASATE
Laia Etxagibel Ruidiaz
Azaroaren 5an, 4 urte.
Zorionak, gure sorgintxo!
Eta muxu handi-handi bat denon partetik.



ARRASATE
Allison Garcia Cornejo
Azaroaren 5an, 12 urte.
Zorionak eta patxo handi bat zure egunean, guraso, familiako eta lagun guztion partetik.



ARETXABALETA
Ane Aguilar Olabe
Azaroaren 5an, 3 urte.
Zorionak, poxpolin! Ondo pasatu eguna! Patxo potolo-potolo bat etxekuon partetik!



ARETXABALETA
Oxel Artolazabal Martinez
Azaroaren 4an, 7 urte.
Zorionak, Oxel!
Honezker 7 urte, ze handia! Danok joango gara zure eguna ospatzera beraz, prestatu merixendia, eh?



BERGARA
Josu Martinez Loiti
Azaroaren 4an, 8 urte. Zorionak, superman! Baietz ondo oportetan! Domekan urtero bezala denok soziedadian... Akordatu pasteekin! Denon partetik, muxu handi-handi bat.



ARRASATE
Garazi Azkarate Ojanguren
Azaroaren 4an, 4 urte.
Zorionak! Amatzoren, aitatxoren, Lideren eta lehengusu Oihanen eta Hegoiren partetik.



OÑATI
Ekain Gereñu Arregi
Azaroaren 4an, 2 urte.
Zorionak eta urte askotarako! Muxuak etxeko partetik eta ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
Eneko Zugasti
Azaroaren 3an, 3 urte.
Zorionak, bitxo! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo handi-handi bat etxeko partetik.




ARETXABALETA
Iker Madinabeitia
Azaroaren 3an, urtebete.
Zorionak, maittia!
Zapatuan zure lehen urtebetetzea ospatuko dugu. Marrubizko eta txokolatzeko muxuak aitatxo eta amatzoren partetik.



ESKORRIATZA
Goiatz Arana Larrañaga
Azaroaren 3an, 7 urte.
Izugarri maite zaitugun guraso eta familiaren partetik, zorionak!



ARRASATE
Yoli Matilla Urrutia
Azaroaren 3an, Urtebetetzea. Zorionak, guapa! Oso ondo pasatu egun berezi hau, etxeko eta laguntxo guztien partetik. Marrubizko kiloka patxo. Muxutxuek, printzesa!




ARRASATE
Josu Orobengoa Vitoria
Azaroaren 3an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zeure egunien eta guztiok zeurekin batera ospatu dezagula primeran! Besarkada handi bat!



ESKORRIATZA
Isabel Unzueta Abaigar
Azaroaren 2an, 85 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Egun eder eta zoriontsua pasatu daizula, zure seme-alaben partetik.



OÑATI
June eta Nahia Blazquez Zelaia
Azaroaren 2an, 7 urte.
Azkenean 7 urte!
Zorionak eta ondo ospatu zuen urtebetetzea etxeko guztien partetik.



OÑATI
Ane Alberdi Gil
Azaroaren 2an, 2 urte.
Zorionak, sorgintxo, familia osoaren partetik. Eneko, Maider eta Hugok pa handi bana bidaltzen dotzue. Ondo pasatu zure urtebetetzea.



BERGARA
Beñat Piñeiro Garcia
Azaroaren 1an, 5 urte.
Zorionak! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik.




BERGARA
Mati Pagaldai Gomez
Azaroaren 1an, urtebete.
Zorionak, bihotza! Zure lehen urtebetetzea ospatzeko desiatzen gare! Eta lasai, kandelatxua putz eitzen, Lukenek lagundukotzu-ta!



ARRASATE
Lier Escobar Aperribai
Azaroaren 1an, 6 urte.
Zorionak, mutiko handi!
Zure familia osoak munduko laztanik goxuenak bialdu ditu zuretako!



OÑATI
Joana Elortza Txintxurreta
Urriaren 31n, 26 urte.
Zorionak, Joan! Espero dot egun polit bat pasaitia eta maitte zauen jentiaz pasatu ahal izatia. Eibartik! Muak!



ARRASATE
Ibai Etxebeste Rodrigo
Urriaren 30ean, 9 urte.
Zorionak Ibai! Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko partetik!




BERGARA
Maitane Karasatorre Basauri
Urriaren 30ean, 11 urte.
Zorionak, Maitane, etxeko guztien partetik, bereziki Izarren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!



BERGARA
Alazne Murgizu
Urriaren 30ean, 18 urte.
Zorionak, guapisima! Bagoiaz poliki-poliki danok 18 urte betetzen! jeje Ondo zelebratuko ditxugulakuan... 18 muxu potolo kuadrilakuen partetik!



OÑATI
Uxue Egaña Azkargorta
Urriaren 30ean, 10 urte. Neskarik politxenak 10 urte betetzen ditxu! Zorionak, printzes! Oso, oso ondo pasatu, Uxu!



ARETXABALETA
Nerea Zubizarreta
Urriaren 30ean, Urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, guapa! Patxo potolo-potolo bana Araitx, Doltza eta Eleneren partetik. Ondo pasatu eguna!



OÑATI
Enaitz Kortabarria Txintxurreta
Urriaren 30ean, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Lucia Bachiller Hernandez

Arrasate. 3,700 Kilo. Urriaren 11. Gurasoak: Nuria eta Jorge. Argazkian, Lucia anaia Markelekin.



Mikel Gorosmendi Ugartemendia

Oñati. 3,440 Kilo. Urriaren 26a. Gurasoak: Arkaitz eta Eider. Argazkian, gurasoekin eta Haizea arrebarekin.



Urko Morales Cachafeiro

Bergara. 2,850 Kilo. Urriaren 27a. Gurasoak: Virginia eta Javi. Argazkian, Urko jaioberria sehaskan lo.




Ametz Beitia Otegi

Aramaio. 3,910 Kilo. Urriaren 29a. Gurasoak: Idoia eta Jon Ander. Argazkian, Amets amaren besoetan.



Unax Iglesias Calvo

Oñati. 3,170 Kilo. Urriaren 29a. Gurasoak: Jessica eta Felipe. Argazkian, Unax amaren besoetan.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Ekaitz Otxoa-Aizpurua

Eskoriatza. Urriaren 29a. Gurasoak: Itziar eta Jon. Argazkian, Ekaitz amaren besoetan.



Hodei Moral Redondo

Arrasate. 3,210 Kilo. Urriaren 29a. Gurasoak: M. Jose eta Jorge. Argazkian, Hodei jaioberria sehaskan lotan.



Unax Rodriguez Gende

Eskoriatza. 2,800 Kilo. Urriaren 27a. Gurasoak: Patxi eta Bea. Argazkian, Unax sehaskan lasai-lasai.

BABESLEA



Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86

DENBORALDI BERRIA




Jarraitu gaitzazu Facebooken: UME ARRASATE





DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Gurdi-tegi	Bibliako pertsonaia	XI. hil
	* Oñatiko elizatea	Jardun	Errusiar an-dre agintariak
	Ez hain beltza		
	Abesbatza		
Altzoa	Enperadore alemana		
Musika tresna	Gailen		
		Zoro	
		Frantziako ibaia	
Gorai-patu			Bizkaiko ibaia
Arbolako masusta			
		Harrapa ezan!	
		51	
Egile atzizkia	Uharteak		
Afrikako aintzira	Kontso-nantea		

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	K	I	N	G	N	A	T
K	V	L	R	I	E	L	
O	N	V	A	R	U	M	
	I	S	I	E	R	O	G
O	R	E	T	L	O	V	F
R	A	S	A	I	K	A	M
A	S	I	S	G	R	A	
Z	T	O	R	A	V		
A		M	O				

BILA-BILA 7



Nor engainatu gura du honek?

Ez dakigu mozorro honen azpikoak ehizan egin gura duen, edo argazki bat atera; dena den, ez dirudi metodo oso eraginkorra...

www.sarda.es



"Zientifikoki ez dago frogatuta organuarekin arima transplantatzen ez denik"

MARILO MONTERO | TELEBISTAKO AURKEZLEA

Aurkezle nafarraren esanak berriz ere trending topic bihurtu dira. Hiltzaile baten organoak transplantatzeko aukeraren aurrean bota zituenak sutan jarri zuen Internet eta izan ditu bere ondorioak: aurrerantzean bere saioan ez du editorialik egingo.

www.rtve.es



Max. 14°

Min. 4°

Eguraldiak hobera egingo du baina tenperaturek beherako bidean jarraituko dute. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-11-05

HAMARREKOA

Gorka Aginagalde Agertokietan *Cotillas* obrarekin ikus dezakegu gasteiztar polifazetiko hau, baita Losdelgas taldearekin abesten ere; eta telebistan, *Luna, el misterio de Calenda* telesailean | TXOMIN MADINA

"Niretzat umoreak ez du mugarik, eta ez du izan behar"

1. Nolakoak dira *Cotillas*-en kontatzen dituzuen txutxumutxuak? Esklusibarik?

Ez, ez dago esklusibarik! Baina hortxe gabiltza, beti hitz egiten: bi pertsona elkartzean, hirugarren bati buruz egingo dute berba. Erregari, emazte eta gizonei, animaliei... buruz hitz egiten dugu obran.

2. Zein da umorearen muga?

Niretzat ez du mugarik, eta ez du izan behar. Beti diot bufoia naizela: lehen bufoiak erregaren kontra egin, eta honek barre egiten zuen. Abantaila daukagu hor, baina aprobetxatu egin behar da. Garaiotan barre egin behar da, eta zirikatatu.

3. Antzerkian barrea, telebistan beldurra. Zelan bizi zara gizotso artean?

Oso gustura. Lanean talde ona gaude, gidoiak ere ondo daude eta emaitza ona da. Niretzat errazagoa da drama egitea: ia ez duzu ezer egin behar, aurpegia ipini bakarrik [barreak]. Umorea zailagoa da.

4. Bigarren denboraldian argituko al da *Calendako misterioa*?

Errodajeen bertan ere sekulako misterioa dago; gidoiari ez dute ezer esaten. Hamazazpigarren kapituluarekin gabiltza, eta ez digute ezer kontatzen; ez niri, ez inori.

5. Ingurukoak saiatzen dira informazioa ateratzen?

Bai, beti gertatzen da hori, normala da. Baina ez diet kontatzen; ikusteko esaten diet.



JOAKIN ORTEGA

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Gosea kenduko nuke"

"Makila magikoarekin gosea kenduko nuke. Harrigarria da 2012an egonda, 2013ra bidean, oraindik zenbat jende dagoen jateko barik. Eta bestela, makila magikoa borra moduan erabiliko nuke eta batzuei sekulako ostia emango nieke".

6. Zergatik ez zaitugu gehiago ikusten euskaraz lanean?

EGA ateratzera joan behar naiz! [barreak]. Alaba txiki bat daukat, eta eskerrak berarekin hitz egiten dudana! Egin dut antzerkia, baina gehiago kostatzen zait. Baina egin behar dut, eta egingo dut.

7. Airbag eta gero, ezagutu zaituzte Guardia Zibilen kontroletan?

Bai, izan kontutan bost film egin ditudala Guardia Zibil moduan. Militarra ere izan naiz, polizia... Ertzaina izatea falta zait! Ezagutu nautenean, ondo hartu naute. Baina urrun hobeto!

8. Losdelgasen kontzertuetan ere trikornioarekin agertzen zara. Konfesatzeko trauma berezirik?

Ez, traumarik ez. Baina lehen esan bezala, bufoiak gara eta estamentuekin sartu behar da. Boteretsu guztiei egurra eman behar zaie.

9. Talde ganberroa zaretela esatea, gutxi esatea da...

Belarria duen aktorea naiz, sekulako pribilegioa da lau musikari bikain horiekin egotea. Ganberroak bagara, baina lehenengo, musikariak. Ikusi nahi ditugun kontzertuak egin ditugu: rock and rolla, dantza, barreak... Sekulako festa!

10. Antzerkian zabilta, telebistan, musikan... Zuk zeuk zertan nabaritu duzu krisia?

Denetan! Gauzak ez ditut horrela inoiz ikusi. Horregatik nabil hainbeste gauzatan: ez didate ondo ordaintzen!

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Too much

Aspaldi hontan, betidanik ez bada, arduratu xamar nabil euskararen etorkizuna dela eta; Basque Culinary Center on bat behariko dugu, web orriak, blogak eta blogspotak ere barne, gure helburuak lortze aldera; the normalixeixon, alegia; newsletter bat ere gaizki ez; gure slogana, humanity at work; lana euskaring lenguitxean, packaging, piping eta handling erara, (on-line ez bada) egiten dugun bitartean; showroom ikusgarriak, Bilbao Exhibition Center haundiegi geratzen zaigunetan, produktuak erakutsi eta saltzeko; era berean spot publizitario bat; European Foundation for Quality Management-en araberrako jectio maila daramate euskal enpresek, behar denean joint venture-ak eginez; workshop-ak eta work coffe-ak antolatzeko abilezia ikaragarria erakutsi dugu betidanik; master oso probetxagarriak egiteko, zer esanik ez; eta global training bekak ere, heziketa gero eta errazago bihurtzeko; rock and roll-a, jaiegunetarako; edo Athletic-en partidua, corner, offside ("orsa" euskara jator eratorrian), referee (osea errefera), penalty eta goal (agian) eta guzti.

Hizkuntzen arteko harremanetan, eraginak, betidanikoak izan dira; bai; gure euskara, horren ispilu; bale; baina oraingo uholde hau, ez zaizue iruditzen tumatxa (hau da, too much) dela? Zer egin dezakegu?



Euskara, kalitatezkoa, profesionala, gertukoa, konfiantzazkoa, liderra, aberatsa, lehiakorra...

urrats biziak
www.baieuskarari.org



www.facebook.com/baieuskararizurtagiria



@baieuskarari



www.baisarean.org

laguntzailea: **goiena**
KOMUNIKAZIO TALDEA